

Txillardegi

LABARTZARI AGUR

Diseinua: Borja Goitia
Azaleko argazkia eta egilearena: Juantxo Egaña

© Txillardegí
© ELKARLANEAN S.L. Donostia 2005

L.G. SS. 1147/2005
ISBN 84-9783-314-7

Elkar argitaletxea
Portuetxe kalea, 88 bis
20018 Donostia
Tel. 943-31 02 67
Fax: 943-31 02 16

elkarlanean@elkarlanean.com
www.elkarlanean.com

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L. Martín Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)

LABARTZARI AGUR

*Espainiako eta Frantziako
presondegia ankerretan
beren urterik onenak galdu dituzten
preso abertzaleen gorazarrez*

egileak

Herenegun, hemengoa ez den funtzionario potolo batek deitu ninduen “Zentro” ra; eta ohiko ez den zere-
moniaz, eskutitz hau eman zidan:

Labartza, 2000ko irailaren 1ean

Kaixo, Antton laztana!

*Oruezabala abokatuagaz izan nok Bilbon gaur goize-
an.*

*Eta hau esaustak: oinguan ziur esan daikeala, ziur gero,
datorren 14an libre urtengo'okala. Eguenian, beraz.*

*Etxakixat gutun hau nos emongo deutesen. Tira, aste bi
yagozak tartian!*

*Baia, edozelan be, barrixa telefonoz berresten saiatuko
nok; eta hik heuk be heure buruba prestatzeko aukera izan-
go dok.*

Aupa!

Atarixan egongo nok, esan beharrik ez.

Besarkada handi handi bat.

Eta aurki arte!

Ixaskun

I

–Antonio Días... digo, Antonio Dihaser... Diaser-gay... Dihasegaray Ayica –entzun nuen.

“Kostata bota duk, motel; eta, beti bezala, txarto”, pentsatu nuen.

Ez baitzen lehenengo aldiz saiatzen, ez horixe, nire izena ahoskatzen. Baina, ezin.

–Sí –nik.

–Cóhe loh bártulo, y sha puede marsharte.

Enrique gartzelazain sudurgorri krudelaren ahots lakarra zen.

–O sea –nik bat-batean zozoturik antza– ¿que dice que me puedo marchar?

–Sí. Eso eh –bere nazka-muzina nekez disimulaturik–. Fuera te ehtá ehperando tu hermana Izahcun.

–Ya.

Berantetsia nengoen. Etsipenean etsia, barne oina-zean gogortua, sortua.

Eta 446 egun hartan itxarondako agindu pozgarriak (446 baitziren, bai, neure kalkuluen arabera; eta ez 445 edo 447) ez zuen nigan espero zitekeen asaldua piztu.

“Sha pueleh marsharte”ARRANTAZ eta nazkaz ahoskatuak.

Murrutzar zurien gaisetrik, libro, jostari, ilunabar gardenetan nitaz trufatu nahi bide zuten mentzigu eta hartxori arinak, aldra zalapartaritan agertzen eta desgertzen ziren eta egurats barea gurutzatzen.

Oraingoan, ordea, lehenengo aldiz, kide sentitu nituen.

–Está bien, sí. ¿Cómo no? Ahora mismo me preparo.

Ezer gutxi neukan nik, egia esan, “prestatzeko” modukorik.

Hamazazpi urte luzez ilunabar bikainak esperantzarik gabe ikusi ondoren, azkeneko hamabost hilabeteetan argi izpiak batez ere zapuzturik jasan ondoren (hauek bai gogorrak!), etxera bidaliak nituen neure apurrak oro, koittadu honek. Aurrerantzean beharko ez nituelakoan...

Joxe Auxtin Arrietaren *Labur aroz* liburua irakurtzen hasia nintzen egun haietan, hain zuzen (Ixaskunek kostata sartua). Hura neukan neurekin.

Baita ingelesezko *Collins* gorri-beltza ere, eta Thomson-Martineten gramatika. Gehi arropa zarpail batzuk, garbigailu pertsonalak... Hutsa.

Besteren batek irten behar zuela zirudien.

Baina pixkanaka neure egoera berriaz jabetuz joan nintzen.

“Sha puede marsharte” hitz hirukotea errepikatzen zen nigan behin eta berriz, eta mila oihartzunetan. In-

fernu geldo kiratsetik jaregina nengoen, beraz. Libro. Aske!

2000ko irailaren 14a zen, osteguna. Arratsaldeko sei eta erdiak. Sekula ahantziko ez ditudan data eta mementoa.

Arrats hartan ere, zero urdina garden Valcornejan, giro bikaina. Epel, 28 edo 30 grado menturaz. Eguratsa lehor.

Eta, hori dela bide, Labartzan sentituko nuen sargori sapa itsaskorraren aztarnarik ez.

–Me gustaría despedirme de Edorta y de Eulogio antes de irme –galdetu nuen nik izuti, eta esaldia tarripataka ihesi joan bide zitzaidalarik.

–Esoh ehtán en el módulo treh –moztu zuen brauki.

–Sí, ya sé –nahi baino umilago.

–Pueh entonse orbídate de esho. Y márshate de una ve, ¡cohone!

“Aluba –nire artean–. Hilko ahal haiz!”.

Bederatzi euskaldun geunden Valcornejan. Jakin banekien hori. Baina ez nuen beretako inor ezagutzen; eta gartzela barruan sekula ez nituen gurutzatu.

Ni nengoen moduluan (5ean, alegia), euskaldun bakarra nintzen.

Edorta eta Eulojio, Ixaskunekiko bisitaldietako batean “ezagutu” nituen (elkarri hitz pare bat esatea “ezagutzea” baldin bada). Bisitaldietako gelan hamar mintzaleku zeuden, hamar “taquilla”, kristalez gu presookiko isolaturik.

“Eutsi goiari!”, esan zidaten ozenki egun hartan, berak beren ahaideak ikustera zihoazelarik.

“Gauza bera!”, nik neure “mikrofonoa” edo dena delakoa eskutan hartzen nuelarik.

Gaurkoan, nolana ere, desberdina zen osoki. Gaurkoan kanpo aldera nindoan...

Irteteko “formalidadeak” bete behar izan nituen, banan-banan, geldo-geldoki. Gartzeletan ez da ezertarako presarik egoten.

Hauetan ari nintzelarik, Valcorneja-ko lautadan barren egunero ordu hartantxe urrunduko ohi zen trenaren dei zorrotza entzun zen, erdiragarri. Eta guganaino barroteen artetik iritsi.

Ez ezagutzen eta ezagutu nahi ere ez nuen Ekialdeko Mancha mutur mugagabea iraungi zen poliki.

Irailaren 14 hartan “libre” hitza entzuten bide zen kanpotikako zarata eta txistukada guztien gainetik.

Eta eguneroko intziri etsiari jarraitu ohi zitzaion tristura latza, nigandik errotik desagertua zela nabaritzen hasi nintzen.

“Inoiz ikusiak ez nituen bagoi haietako batean –neure arterako ari– agian, nor jakin, bere irribarre ezta eskaintzeko irrikan zihoakeen neskatila amoros bat, bera ere ilusioz mukurdu...”

Eta atetzar barradun astunen zabalketa hasi zen mantso.

Valcorneja-ko presondegia zaharkiturik zegoen.

Burdinazko errail bakarraren gainetik irristatuz baztertzeko ziren ateak; elkarren ondoren, eskuinalderantz,

ezkerraldean orduan tarte edo pasabide bat eskaintzen zutelarik.

Eta aurreko atetzarrak kolpe zatar batez toperaino iritsia zela abisatu artean, ondorengo atearen operazioa ez zen hasten.

“Horrelako zazpi zeudek!”, neure kolkorako.

Gehiegi. Urdinxka metaliko hotzean hotzegi. Gotorregi, astunegi, berantiarregi beti.

Azkenean, kostata, zazpigarrenaren atzean, presondegia inguruko karrajo zabala sumatu nuen.

Hantxe, pabiloi hartan, bederatziehun kilometro luze jasan ondoren (Senideek asteburuetan antolatutako autobusetan eginak), ezkerreko bisita-gelaxkoko afoinuan egoten zen Ixaskun leiala; ni nintzen neba minberatuari abegi ona bederen eskaini zain.

“Ixaskun bai saindua, saindurik bada”.

Baina gaur ez nindoan bisita-gelara; eta karrajo-tarteaz haranzko bulegora abiatu nintzen. Sinesten lanak banituen ere, gaurkoan... kanpora bainindoan, kalera, etxera!

Eta sarrera nagusira hasteko.

Orduantxe, hain juxtu, atariko bulegora sartzera nindoalarik, kamioi hori batek gurutzatu du eskuinetara, Valcorneja aldera. Eta, ia une berean, ezkerretarantz, polikiago, Peugeot beltz batek. Kaleko “piztiak” libro zebiltzan... Noski!

Haize ufada epel batek agurtu ninduen leun.

Eta taupadak azkartzen zitzaizkidala nabaritu nuen.

Eta 17 urte geldo luzez jasandako kalbario bukagai-tza (“oparizko” 15 hilabetetan zornatua), harrigarriro galkatzen zela erreparatu nuen. Eta egunak, asteak, hilabeteak, urteak, akigarri beren astuntasunean, bat-batean arindurik, 17 segundotan gertatutako lokamuts iheskor bihurtzen zirela.

Zortzi bidaia jasangaitz, kunda itogarrian makurturik; han eta hemen egindako zortzi txapeo, gehi bost gosse-greba luze (29 egunez bigarrena, Puerto IIan, aita hil ondokoa). Nik dakita zer besterik? Infernu aldi osoak, harrigarriro, hasperen bakar baten iraupenera bilduak.

Sufrikario meta dorpe erraldoia, hutsune ñimiño iheskor bilakaturik.

Hura miraria!

“33 urte hituen sartu hindutenean –ni neure artean ari–. 50 dituk gaur... Iazko Sanjuanetan jaregin behar hinduten putakume horiek...”

Baina madarikatzeko hitz egokirik nigan ezin aurkiturik, isildu egin nintzen; baita neure arterako ere.

–Su hermana le espera hoy en la salida del centro penitenciario –argitu zidan ahots desberdin batek–. No en la salita de otras ocasiones.

–Sí. Gracias.

Azkeneko atetzarra zabaldu zen.

–Antton!... Laztana!... Laztana!...

Eta estu-estu besarkatu ninduen.

Ahaztuta neukan ia-ia bi soinen arteko ukipen be-
roa zer den.

Azkeneko bisitaldietan beira zikinez bestaldetik ezin
ezer zehazki ikusirik, oraingoan besotan hartzean, de-
xente flakaturik eta zaharkiturik aurkitu nuen gaixoa.

“Ez duk zaharra, ordea –pentsatu nuen–. 52 urte,
hik baino bi gehiago”...

Aurpegia zurbil, betzuloak sakon, bluxa urdin hura
exkax, orrazkera bera xarmagabe. Eta akitua, unatua,
neke gaitzean apurtua, nik uste.

Eta urrin liluragarri hark, buruan eta bluxan ausar-
ki ezkotua, ageriago uzten bide zuen urteetan pilatuta-
ko miseria ezabagaitza.

–Bai, Izaskun. Baia ezton oingoa malkotarako ueña.
Eutsi goixari!

Nire sasi-irmotasuna, ordea, kordokatzen hasia zi-
tzaidala erreparatu nuen.

Eta honek amorrua eman zidan. Ni, gure amaren
ezpalekoa izanik, itxurakerien eta belaxkerien kontrakoa
naizelako. Zakarreraia bera nahiago nukeen une hartan,
melodramatiko agertu baino.

Bere malkoak xukatu zituen arrebak, nola-hala irri-
barreari eusten ziolarik.

Eta gaztetako Izaskun Ihartzegarai neska pertxentak
bere inguruan erruz hedatzen zuen xarma hura antze-
man nion berriro, begirada berde leun hura berreskura-
tzen zuelarik.

–Parka, Antton. Ezin izan yoat.

–Lasai, neska! Ezer be zetan parkatu beharrik etxaon
eta.

Eta handik pixka batera:

–Gogorregixa izan don, bai. Azkanengo hamabost hillebete honeik batez be. Lar izan don, bai. Latza!

Kalera irten gara biok.

Zer dinot “kalera”? Albacete-Alicante erreperidera irten garela esatea zehatzago litzateke.

Ilunabarra heldu. Ortzia garbi.

–Guretzako taxia hortxe yagok. Eta gaur gauerako logela bi bere bai. Hotel Alcázar izenekoan erreserbatu yosat, Valcorneja herrixan berton, elexearen ondoan.

Nire begitartera agertu ez den irribarrea egin dut barrutik lipar batez. Ezen, Don Quijote-ren paraje haue-tan, oraindik ere “El Alcázar” bataiatu baitute lasai osta-tu berri hau... Hemen jai diagu, garbi!

Baina ez diot Ixaskuni deusik esan.

Eta Peugeot beltz batek eraman gaitu.

–Berton afalduko yoagu, bai? Eta gura besteko ba-
rri emongo yotseagu alkarri.

–Nik neuk, badakin, ezer gitxi konta zeikenat!

–Baitta! Ene zozua!... Parka, Antton. Neuk esango
deuat hamaika kontu.

Eta nire gelara bildu gara biok. Eta arrebak hamaika istorio kontatu dit, etenunerik gabe ia-ia.

Tximist batek gurutzatu du orduan nire barrua (eta Ixaskunena ere bai, beharbada)... Baina zirkinik ez egi-ten saiatu naiz; neure arterako pentsatuz:

“Sartu nindutenean –eta zaharrak ez ditut kontu honetan sartuko– laurok bizi ginen elkarrekin geure *Allikenen*: bi gurasoak eta gu biok.

Aitarena, bego: geroztik hamar urte joanak, ahaztua zegok nolazpait... Puerton nengoelarik joan zitzaiguan betirako... Gero, berriz, handik gutxira, gure baserriaren salmentarena gertatu zuan... Mingarria, oso, nireztat behintzat... Baina ondo egin zian gure amak...

Baina gure amarena... orain dela zazpi hilabete bakarrrik gertatua... eta ni Labartzako ehortzetara ezin joan izana... Nahiz Ixaskunek ahalegin guztiak egin... Zerriok!”...

–Pentsakor hago, Antton. Larregi berbain dot?

–Ez, ezton hori.

–Hortaz, zer?

–Ezebez. Lasai... Pasako don.

Orduantxe jo du ordua kanpandorreko erloju zaratsuak: ordu biak.

Leihotik begiratu dut: oskarbi sakon, milioi bat izar.

–Urtengo’gu? –galdetu diot arrebari–. Eta arnasea sakon hartu?

–Ez, Antton! Leherregina nayagok.

–Dirdaitsu yagon berriz be Valcorneja de Cepedillako zerua.

Baina indarrrik ezean, etsi egin behar.

–Zeru ezin garbiago honi “zohardía”, esate’eutsonan gure Amañi Gaxuxak. Gogoratzen yan? Umetan Altzaira egin genduzan bisitetan...

–Bai horixe!

–Bixar arte, Ixaskun. Ondo lo’in!

“Centro Penitenciario de Valcorneja de Cepedilla... Carretera de Albacete, km. 418... Módulo 5... Enrique sudurgorria... Hotel Alcázar” ...

Hasperen sakon bat itzuri zait.

Ipar-Mendebalderantz begira, ozta-ozta teilatuen gainetik, Euskal Herrirako bidea markatuz, antza, Hartz Nagusiko zazpi izarrak ikusi ditut, ñirñirkari. Baita, goraxeago, Hartz Txikiko zazpiak, eta beronen Ipar-Izarra ere.

“50 urte dituk hik –neure kolkorako–. Izan, berandu ez duk...”

Baina, ustekabeen, espero ez nuen zalantza batek harapatu nau estu:

“Nork daki?... Baldinba ez!... Baina bizia gupidagabea izaten duk gehiegitan...”

Ongi dastatua dut jadanik horren egia latza.

Geroak erranen”.

II

Alacant-eko aireporturainoko berrogeita hamasei kilometroak (Mancha-ko azkenak eta Alacant-en barrenekoak) berehala irentsi ditu gure taxiak.

–Del Norte, ¿no?

“Norte de qué” neure artean.

–Sí. Tenemos el avión a Bilbao a las tres y media. Pero hay que andar con tiempo. Ya sabe.

–Lo he notado enseguida. Me imahino que hablan vahco entre uhtede. Porque no leh entiendo nada. Er talán, er de aquí ar menoh, se entiende. Pero el suyo...

–Así es.

“Hil arte piztia bitxiak izango, lokalismo xixtriñen jopu... Països Catalans-etan gaude. Letrero elebidunak dira, bai... Baina taxista hau... Valcorneja aldekoa da, gutxienez...” neure artean.

Erabat ahantzia neukan keroseno usaina, bat-batean sarkor, gailen; eta hegazkin orroa, giroan gorgarri.

Arbel beltzean hegaldien berri. Bospasei guztira, jairak eta etorrerak barne.

–Begira hor, Antton. Hirugarren lerroan: “Vuelo Ib 3711. Embarque: 15.05”. Hori dok gurea. Goazemak.

–¿Solo llevan equipaje de mano?

–Pues sí...

–Asientos 17E y 17F. Salgan por la puerta 2, al fondo, a la derecha; y accedan al avión por la puerta trasera. Aquí tienen sus billetes.

Ordu biak laurden gutxi. Bidaian, hegaz, 900 kilometro orduko.

Baina bai hemen orain, eta bai hara iritsitakoan, zain, aspertu ere arte zain. Kontraesan nabaria.

Sasi-filosofia merketan abiatzeko gogorik bat ere ez, ordea. Eta ez dut txintik atera.

Bozgorailuak deika hasi dira:

“Por favor: señores viajeros para el Vuelo Iberia 3711, vayan acercándose a la Salida 2...”

Eta ahots burokratiko bera, baina ingelesez oraingoan: “Please, proceed to Gate 2...”

–F letrakoa leihoari yegokok, eta hiri itxiko deuat.

Eseri egin gara. Hegala nire parean ia-ia.

–Hasia dok hau mugitzen, Antton. Noiztanik hegazkinik hartu barik?

–Egon apur batez... Hogeit bat urte dozan, nik us-te... Bai... Hori don: hogeita bat ozta-ozta. Orduan Bartzelonara yoateko hartu nebalarik, bigarren aldixa zunan...

“Beldurra ez duk hau –neure artean–. Baina ez ote da hau nire azkeneko bidaia izango?... Baina hala baltz ere, zer? Heriotza aparta, ez dea hala?... Nori axola, bestalde, Antton Ihartzegarai hau betirako itsu, mutu eta gor gertatzea? Ezta heure buruari ere!...”

Tira, tira! Hamazazpi urtez Inperioan barrena ostatuz ostatu zahartu eta zatartu ondoren, zertara datoz orain horrelako galdera txepelok?... Baina, aitor dezagun umil egia: giza aberea lurrean arrastaka hobeto moldatzen da, zeruan goiti horietan hegaz baino...”

“Fasten seat belt while seated” irakurri dut bazter guztietan.

–Bidaixan barrena garrikoa lotuta gordetako –argitu nahi izan dit Ixaskunek.

–Bai, bai. Ingelesez apur bat ikasi yonat urte honeitan.

–Egixa! Deskuidatuta esan deuat. Dagoeneko sano dakik, ezta halan?

–Apurtxu bat.

Emakume-ahots koloregabeak, zintan grabaturik antza, azalpen hotzari ekin dio: “Siguiendo las normas internacionales de seguridad, vamos a ofrecerles ahora una demostración...”

Jendeak ez entzuna egiten die aholkuei.

“... Este aparato es un Airbus 320; y tiene cuatro salidas marcadas con la palabra *Exit*: dos a la altura de las alas...”

Segidan gauza bera ingelesez ahots berak.

Ixaskunen alboan eserita dagoen bidaiaria *El Mundo*-ko orrialdeak ari da irakurtzen: “Nuevo ataque suicida al Norte de Tel-Aviv. Hay 14 muertos y más de 37 heridos. Entre ellos se encuentra la mujer joven palestina que hizo estallar, en el interior de un autobús israelí en el que viajaba, el cinturón de explosivos que ceñía su cuerpo...”

–Ikusteok, Antton? Ikaragarrixa dok! Egunero bardin!

–Bai, bai. Latza! Gaxua nesikia!...

Berriro emakume ahots metalikoa ari: “En caso de despresurización de la cabina, las máscaras de oxígeno caerán automáticamente sobre sus asientos...”

Hegazkina bete egin da.

Gure atzeko lerroan, aholkua entzun orduko itxuraz, garrasika hasi da ume bat.

“... en tal caso –ahots hotz bera ari– colóquense la máscara delante del rostro, y respiren normalmente...”

Atzeko ume negartiak, hitz horiek ulertu balitu bezala, are biziago eutsi dio bere negar-saioari.

“... the oxygen masks will drop... and breathe normally...”

Barregura ematen dit eszenak.

Egunkariak banatzen hasi da eskifaiako sehia.

–Hemen badakik: *ABC*, *La Razón*, *El País* onenean... Geuriak han erosiko yoaguz.

–Enon bapere harritzen Gara eta Egunkaria Iberiak ez erosteaz.

Hegazkina pistabururaino joan da. Eta, harakoan, aise irakurri ahal izan dugu alimaleko letretan: *Aeroporto de Alacant-Alicante*.

“Despegue inmediato”, komandanteak.

–Baldinba etxonaguz Valcorneja eta gaiñerakuak barriro ikusiko!

–Hala biz! –Ixaskunek.

“Dentro de diez minutos –entzun dugu handik ordubetetsura– aterrizaremos en el Aeropuerto de Bilbao. La temperatura es allí de 18 grados, y el cielo está prácticamente cubierto, con nubes bajas. Pero no llueve... Mantengan el asiento en posición vertical, apaguen sus cigarrillos, y hagan uso del cinturón de seguridad...”

Lau eta erdiak nire erlojuan.

Bidaia guztian barrena ikusitako harri gogor eta meseta idor horiei bukaerakoan muino berde multzoa nagusitzen hasia zitzaielarik, baserriek pilkortu dituzte zuriz mazelatako belaze leunak.

“Horietako bat zuan *Allikene*, gure arbasoen baserri eraitsia –neure artean ari–. Bederatzi urte joanak, eta hala ere ezin minutu batez ere ahantzia... Beldur nauk, hain zuzen, zinez, Ubago gaineko zubitxora joan, *Allikene* inguruko soro haietara bertaratu, eta zementuz eraiki dituzten lau bloketzarrak begiratzeko ere bertuterik aski izango ote dudan”.

–Pentsakor, ezta?

Gero eta bakanago ikusi ahal izan ditugu hodeien arteko ostarte igarokorretan geure mendi eta herriak.

Azkenean gure hegazkina lainotera trinkoan murgil-
du da. Kitto.

“Itsaso ganean gaude”, azaldu dute. Ezkerretara egin
dugu gero, eta leihatilatik hegala ren lehenengo metroak
oso goraka jarrita sumatu ditut.

–Antton: gaurkoan etxoagu gauza handirik ikusiko.
Higaitik sentitzen yoat... Aspaldi honetan ikusi bako
Bizkai berdea zerutik begiratzeak etorreraren poza azkar-
tuko ebalako... Baia ikusi, ezer gitxi oskarbiz be; eta
gaur are gitxiago. Labartza bera naximentu ñimiñoa
dok hemetik. Eta Allikeneren orde zko lau etxaburuak,
bart azaldu neuan ez, lau domino piezatxu zut...

Zauskada ahal bezala disimulatuz, zerbait erantsi
dut:

–Pena don, bai... Horrez gain, belarrixetan min, ez-
teunat bapere ondo entzuten.

“Jaun-andereok –beste ahots burokratiko horieta-
ko bat oraingoan euskaraz ari–. Hemendik zenbait mi-
nututara Bilboko Aireportuan hartuko dugu lur...”

–Ezton posible, Ixaskun! Euskaraz??

–Bai. Euskal berba batzuk botaten yuezak azkenen-
go bolada honetan, bai...

–Fartsante alaenak! –irten zait ustekabe an eta goraki.
Baina inork ez bide du entzun.

–Ixo, Antton! Mesedez!

Hegala ren muturreko argi ñirñirkaria ozta-ozta ikus
genezakeen.

Isildu egin dira bidaiariak. Isildu egin gara denok,
hobe; atzeko ume negartia izan ezik.

Lasaigarri, nonbait, halako musika leuna piztu dute, biolinez mukuru oratua.

Hegazkina behera eta behera artean. Eta ezer ez agiri behealdetik.

Lur hartzeko trapazeria atera du azkenean. Ez gaudede oso goian, hortaz.

“Hamazazpi urte joanak... Hamazazpi urte xahutuak... Hamazazpi urte lapurtuak...”

Halako batez kolpe zatar bat nabaritu dugu. Lurra ukitu eta segituan, jauzi bezala egin du hegazkinak. Eta ordukoan bai: pistan barrena nabarmenki geldotzen ari.

Jendeak arnasa hartu du disimuluaz, eta txalo jotzen hasi da.

Nik ez.

Besotik heldu dit estu Ixaskunek.

–Etzen gaozak, Antton! Aupa!...

Ez nuen Loiuko aireportu berria ezagutzen.

–Nik Sondika neukanan gogoan.

–Hau ederragoa dok.

–Bai. Baia...

–Baia, zer? Munduba eztok urte honeitan geldittu.

–Gureztat bai, ordea. Eta orain berandu ez ete dan dana... belu... Badakin... Pasea lez.

Ixaskunek gaitzespen muzina egin du.

–Itxi baketan, Antton. Gure kotxia ekarri yoat, eta bost eta erdixetan etzen. Etze politta, modernoa, eroso. Ikusiko'ok! Egunargiz ondiño.

–“Gure” kotxia esan don?

–Bai. Eneuan ezer esan? Opel txiki bat, gorri illuna. Niretzat aski ixan dok; eta orain, ba, bixontzako be bai. Ezta? Bela aitzuko dozak urte honeetako barrabas-kerixak. Bai horixe!

“Labartza Barri”. Ubago errekez Mendebaldean. Etxe berri bat.

Eta han, Ixaskun arrebaren arabera, ezagutzen ez dudan neure bizileku berria zain: Mateo Zugasti kalean, 33, 4. estaian.

–Hire logelia, etzeko onena dok.

–Ta, hori?

–Hortxe bizi izan dok ama Allikene saltzean. Zortzi urtez. Aurtongo lelengo hillebetietan be, badakianez, hortxe bizi izan dok.

–Baitte.

–Bera hiltean gauza batzuk aldatu yozat, edo han edo hemen ostondu. Baie ohe bakarraren ganeko fotoa hortxe itxi yuat. Etxatak ondraua irudittu kentzea. Allikene aurrean egiña dok. Eta aitte eta ama bixak indarrean ageri dozak. 1945ekoa gitxi gorabehera.

–Ondo egin don.

–Apal horreik hutsak yagozak ixa-ixa. Normala. Amak etxuan irakurten, eta nik neu’pe, gitxi. Neronek erosi yozat hiretzat. Eta mahai handixago bat eta armairua erantsi. Merezi dok, ezta?

Nire gelako balkoitik, Iparralderantz begira jarrita, ezkerretara, kaleburuan, itsasoa ageri da.

Kantauri itsaso zabala.

III

Biharamunean bertan berrikusi nahi nuen itsasoa. Behar gorria sentitzen nuen, errabiatua. Egarrri jasangaitza bailitzan. “Barruan” prestatutako *bidaia anti-kronologikoan*, hauxe zen lehenengo urratsa.

Behar hau azkartu egin zen gau luzean.

Valcornejako eta Herrerako bi egonaldietan batik bat olatuen arnasa orrotsu nekagaitza zer den ahaztua neukan.

Orain badakit: oztopatu ere egiten du loa.

Allikeneko urteetan, ez zen itsas orroa beti entzuten.

Itsaso zakarrez galarazten gintuen. Ez bestetan.

Aitor dezadan ez nengoela ni bart (eta ez nagoela gaur) neure onean. Lanak nituen oraino, neure gelan aske nengoela sinesten:

“Valcornejako lokamutsa pasea duk”, errepikatzen nion neure buruari.

Baina, izan, hau ez duk Allikene. Eta nik Allikenera nahi...

Igogailuaren makineri zaratak berak ere ustekabeen harrapatu nau bizpahiru aldiz gau minean, erdi lozorroan nentzalarik.

–Zelan eiñyok lo, Antton?

–Erdipurdi, egixa esan. Oso nekez loakartu non, eta oso erraz itxartu.

–Normala, nik uste, lelengo egun honeitan. Hartuik oin armosua lasai, eta hoa auzoa ezagutzera... Gaur zapatua, paseiaria franko topauko dok Ondarrondon. Bilbotar asko be bai.

Arrebak ez du itsasoa aipatu.

–Horixe eingo yonat. Banaixona. Gero arte.

–Bazkari goxua prestatuko deuat eguerdirako. Le-ka-patatak, aspaldiko partez; eta Atxetatik beretik ekarritiko sardiñak segidan. Eta dana Labarkako arda bal-tzaz bustixa.

Hesketa automatikoko igogailua erabili nahi ez (erabili *ezin* esatea zehatzago, nahiz aitortu nahi ez), eta oinez jaitsi ditut lau pisuak.

Portaletik irtetean, Mateo Zugasti gure kaletik ezkerretara jo, eta aldapa leunean gora muttur bat egin ondoren... itsasoa agertu zait aurretik!

Eta, hara agertutakoan, eskuin aldean, Labarganeko lurmuturrak hesten zuen San Telmo hondartza berrikusidut, baita Ipar-Ekialderago labar luze iluna ere, labartza, alegia; herriari izena eman ziona.

Eta gainean Labartzako *Farola*; orain “goiko” garbizaleek (beren artean beti erdaraz ari) “Itsasargia” birbataiatua... Bego.

“Sha puede marsharte” hitzak errepikatzen ziren oraindik nigan, lokamuts likatsuetan bezalatsu... Hemen ere hil arte entzun eta berrentzun beharko ote dut hire erremuskada madarikatua??

Olatu gaitzen ilarak ez zuen etenik.

“Hau bai zabala”, pentsatu dut ozenki.

Eta arnasa sakon hartzeari ekin diot, indarka ia-ia, kresal lurrunean igeri, antsiak jota dauden eriek airea hartzen duten bezalatsu.

Itsasgane izeneko xaleta aurkitu dut kaleburuan bertan, Mateo Zugasti eta Ondarrondo pasealekuko izkinan. Txukuna bai, baina berriantxa. Sustrraigabea, nolazpait.

“Sartu nindutenean –nire artean– etxetxo hau ez zegoen”.

Hurrengo xaletari, ezezaguna hau ere niretzat, arbelezko teilatu erpinekoari, *Muskildi* deritzo. Nik berau nahiago *Itsasgane* delakoa baino...

Ubago errekaaren ezkerraldeko ertzean, eta zubi zahararen ondoan, Altzaiko arbelezko teilatu erpinak gogoratu zaizkit. Hauxe izan daiteke sentitu dudan zirrara bortitzaren gakoa.

Marea behera izaki, zakarrago zegoen itsasoa. Eta olatu sailak, lauzpabost lerrotan jarraian leherturik, elka-

rretara biltzen ziren Labarpeko gunean, *Dorre* jauregiaren aurrealdean.

Tarteka, San Telmo hondartza-bazter hura hustu bezala egiten zen; eta urik gabe utzitako eskualdea, uholde apartu harrigarrian itorik, berriro betetzen zen osoki ur hondartsuz.

Goizeko hamarrak ziren, eta Iparraldetik haize-bala ahulak zetozen aldika. Urrunean, zeruertzeraino lehertutako olatuen atzeko marra amaigabean, ontzi beltz luze bat, brankan eta popan kubo zuri bana ageri.

Ekialderantz jarraitu dut, Labartza Barri giblean utziz.

Eta Ubago erreka gaineko zubitxoa gurutzatzen hasi naiz.

Errekarri zuria, lehor; ozta han-hemenka ur xirripa urri batzuk hondartza aldera isuri. Lehortea bide, agian, gure gaztaroko lats gardenari ur uherra nagusitu zaio orain.

Eskuin aldean, berriz, aurrez aurre eguzkiak dirdaitu argiturik, kalekka estu bihurriak hiribarnerantz joaki berrikusi ditut.

Labartza nekusan, hitz batez, eta aspaldiko partez. Neure Labartza, alegia. Orain, arrebak esan didanez, “Labartza Zaharra” bataiatua.

Zergatik “Zaharra”? Berriak behar du gaitzizenik, ez errotutakoak.

Ardo zaharrak aitzakiarik behar ez duen bezala. Ardo, laguna bezala, zaharrago eta hobea baita, omen.

Hor dago, betiko bere hartan, San Pankrazio eliza, bere kanpandorrea eta guzti.

(“Gero sartuko naiz, umetango usainen bila”).

Baina nik gaur, lehenengo irtenaldi honetan, Labarpeko harralde eta malkorperaino egina diot promesa neure buruari.

Hantxe, Labarganeko zelai luzean, Farola horixka hexagonala. Eta beronen gain-gainean, “itsasargia”, Farola alegia; baita lente jirakorra inguratzen duen burdinazko balkoitoa ere.

Eta are eskuin alderago (Ekialderago, alegia), Samar-tin ermitatxoa, betiko bere hartan.

“Bihar edo etzi haraino joango naiz –neure artean–, baita harantzagoko trikuharriraino ere. Baina gaurkoan Labarpe harraldea eta itsasoa, aski ditut”.

Harrak barruan ari: “Hamazazpi urte galduak!” ...

Haurtzarotik beretik, San Telmo hondartzaren gain-gaineko Ondarrondo pasealekuan, labartzarrok errespertuz eta bekaizkeriaz begiratzen genituen zazpi jauregien ondotik abiatu naiz polliki, metroak banan-banan edoskiz.

Izenen ilara ez zen nigan batere ezabatu, ezta higitu ere: *Kantoi*, *Uruburuenea*, *Maitena*, *Unbe*, *Loretxu*, *Aranbaltza* eta *Dorrea*. Zazpi, bai.

Txikitandik Uruburutarren etxe gorria nuen nik denotan maiteen: zuhatsu, ilun, hamaika zuhamuxkaren artean misterioitsu. Eta oraingoan ere, albotik pasatzera-

koan, beste sospresa bat: zuhaitz adarren artetik piano baten notak entzuten baitziren, olatuen orroan gailen.

Eta neure gabezia sentitu dut latz:

“Ikasten hasteko belu habil, Antton”.

Baina ez-entzuna egin diot barnetikako eresi hitsari.

Chopin-en Valsen bat jotzen ari zela iruditu zait. Baina ez dakit ziur. Maitena, Unbe eta Aranbaltz xaletetako leihoak hetsita aurkitu ditut. Harrigarria: aspaldiko urteetan jauntxo horiek ez ziren horren goiz itzul-tzen Bilbora eta Madrilera.

Aurrerago, Aranbaltz eta Dorre artean, beti bezalatsu topatu dut Arteta parkea. Arteak haziago ote? Bai, noski. Baina, ikusitakoan ere, ezin esan. Ziur, jakina: 17 urtetan... Baina ordurako ere ikusgarri zeuden.

Bidexkak betikoan: umel, itzaltsu. Arte eta pago galantak, iturritxoia erdian, beti ura dariola; eta, han-hemenka paseatzeko, enborrezko langak, eta zubiño lizunduak latsen gaisetik.

Hauxe bai Valcornejan etengabe bururatzen zitzaidan bazterra!

Eta atzealderago, Labarganeko mazelataraino pasealekuan joaki, eta ondotik galtzadarri-mokorrez eraikitako harresiak inguraturik, Dorrea gaztelu zaharra topatu dut. XVI. mendekoa, herrian denok dakigunez, eta betidanik Goiri-tarren jabego aparta.

Itsasaldeko harresia, ondotik pasatzean erreparatu ahal izan dudanez, goroldio geruza mehe batez ilunduta dago.

Dorreko belazearen barrura sartzea badago. Hari-tzondo zaharrez josirik, jauregia bera huntzaz estalia

(muttur batzuetan bakarrik gorritzen hasia), ozta-ozta antzematen ziren aurrealde zabalean sei leiho gotikoak, binaka hiru bikotetan paratuak.

Urmael borobileko ur-xirri entzungaitza han, beti ari... Burdinazko pendiz zaharkitua, “Second Empire”koa bete-betean, bere hegal metaliko erorkorrak eta guzti.

Horretan pauma bikote bat, belardietan paseiari, begira gelditu zait.

Lepoko urdin distirantari berde erasokorra nagusitzen zitzaion hegaletan, eta isats aldera belzten.

“Zer dakite, jakin, munduaz, puntuzko Goiritar hauek? –bururatu zait–. Ezer ere ez”.

Eta une hartantxe, berriro ere, zartako batek astindu nau:

“Valcorneja... Puerto... Ez! Infernuaren izenok... Otoi! Utz nazazue baketan... Orain, erruz kostata, alajainkoa, bizitzeko garaia heldu zait. Utz nazazue, arren! Aski izan da.”

Eta “Libertadea zoin den eder!” kantari ekin diot, gogoratzen zitzaidan apurra bederen.

Jadanik, harresiaren gainetik, Labarpeko harraldea neukan neure aurrean hondartzaren bukaeran; eta, gainetik, malkor more luze iluna, herri izenaren gakoa:

*Labartzako malkorrak
metrotan berrogei,
beste hainbeste Farolak
argixak laurogei...*

Poto omen dago horretan. Baina labartzarrok hori kantatzen dugu.

Itsaso txikia zegoen, are apalagoa. Eta kresalezko lurrunaren usaina oso sarkor hedatzen. Olatuak ausart, mehatxu itxuran, gorago eta gorago altxatzen ziren lehortzerakoan.

“Kresala usaintzeko, itsaso txikitan sarkorrago” neure artean.

Mendebaldera begiratu dut orduan, hemendik aurrera bizileku izango nuen “Labartza Barri” rantz, eta harantzago.

San Telmo hondartzaren amaieratik gora abiatzen da errepidea, eta zuhaitzian barrena ezkututzen.

Atxeta herria, Labartzarekiko lehen auzoa, gure kide arrantzalea (gu hondartza “turistiko” tzat hartzen gaituzte), egon hantxe dago, bai, Atxetaurre puntaz atzealdean. Baina Labartzako harralde honetatik ez da ageri.

Otoio mendi-hegi iluna ikus dezaket, hori bai; eta Matxitxako muturra ere bai, urrunean. Erdizka gandupean gaurkoan.

Eta Ixaskunek sumatu bezala, gaur, larunbata, eguraldi ederra, jende asko pasean. Udate ofiziala, atzo amaitu zen. Eta zaindarien talaitxoaren gainean inor ez dago; eta bi bandera mastak hutsik daude.

Neska erakargarri mordo bat topatu dut, zeru urdina begira etzanda.

Eta, beharbada 17 urte idor hauetan dena ahaztu edo erdi-ezabatu zaidalako, Valcornejara eta abarretara joan

aurrekoak baino kilikagarriago atxeman ditut. Baina baita eskuragaitzago ere.

Surf-ohol bana besapean, nire ondotik pasa dira horretan bi mutil gazte eder, sendo, mardul, heriotzaz sekula pentsatu gabekoak; eta hondartzara jaitsi dira. Oholen zurian egilearen marka bera irakurri ahal izan dut; baina ahaztu egin zait.

Etzanda zeuden neskatilak, disimulu handirik gabe, lotsagabe, paratu zaizkie so.

“Berrogeita hamar urteko senton kaskaildu honek –ni neure artean– zer espero dezake 30 urte gazteago diren sexu-pitxi horiengandik? Nork hobetsiko du mende Erdiko agure ezkor hau? Arrotz bihurtua natzaie, beste espezie batekoa nolazpait. Otoi, Antton: burua gailen dadila”.

Jaka beltz lodi bereziak jantzi dituzte, aski nekez; eta beren soinekoak laga dituzte ezagutzen ez nuen txabola zatar batean.

Eta, ez bat eta ez bi, olatu handiak zeudela-eta loriaturik, jadanik uretan jostari ari ziren beste hamabost bat kiderengana jo dute, beldur izpirik ere erakutsi gabe. Olatuen beldur piztia haiek?

“Orain dela hogeitau urte, aitor dezadan –neure arterako ari– ez ninduan ni gauza hori egiteko... Labartzan ez zegoan surflaririk batere. Egia hau ere... Nire ondotik arestian pasa diren bi horiek ez dituk labartzarrak, nik uste... Erdaraz ari zituan behintzat... Edonola ere, eta bertakoak baldin badira ere, ez ditiat ezagutzen”.

Jende ezezagun asko topatu dut. Eta aurretik eta eskuin aldeko kaleetatik, ume zalapartari asko, bainu poltsa mordo bat, eta kolore askotako xukaderak besazpian.

Labartzarrik bat ere ez. Nire garaikorik, alegia. Aukerarik ez inori “Kaixo, Kepa!” edota “Kaixo Mandoko” esateko. Nire “hamazazpialdia” baino lehenagorik inor ere ez dut topatu. Nireak egin dik, garbi. Hau ez da ene herria.

Neure bihotzondoan, arrotz antzeman dut neure burua.

Nahiz, hau badakit, ulergarria izan inor ez ezagutuarena gertatzea. Larunbata izanik, eta gure herria modan jarri delarik, labartzarrok desagerturik...

Hala ere, gauza honetaz behintzat ziur naiz.

Pasealekutik behera aldapa bat bazegoen hemen, orain dagoen berbera.

Baina geroztik “prantatu” duten izugarrikeria honen arrastorik ez. Hau zatarkeria!

Zementu grisez eraiki dute halako *saizulo* bat (nolazpait adierazi behar) itsusi halakoa. Hiru leiho ziztrinez hornitu dute, itsasora so (hirurak hetsita topatu ditut jadanik irailaren 16 honetan).

Eta izena jarri diote harro: *Surf Taldea*. Letrak gorriak dira, baina inguratzen dituen karratua beltza. Udalak, badaezpada, hortxe, telefono kabina garden bat jarri die, piramide itxurako estalki bat gainean duelarik.

Eta erloju borobil bat ere bai, aldapaburuan.

“Labartza berritu honetan surflariok errege”...

Hain zuzen... hamabiak eta hogeit hamar markatzen du une honetan.

“Ez duk posible –bururatu zait–. Oraintxe irten diat etxetik...!”

Hondartza gaineko aulki marroi luzeetakoren batean eseri nahi nukeen. Ezin! Nahiz hogeit hamar egon hondartza gainean.

Egurrezko haga mordo batez eginak dira, garai batean Donostian ikusi izan nituenen tankerakoak. Kopia hutsak hobe.

Labartzarrok ez ei gara gutxiago “Bella Easo”koak baino.

Eta, tarteka itsasora so, tarteka umeren baten baloi-kadak joko ote ninduen peskizan, hogeit hamar bat surflari adoretuon balentriak miresten paratu naiz patxadan.

Dorre aurreko karek epelean eserita, hondartzaren gain-gainean.

Bertagotik nik itsasoa dastatu nahi, ordea; eta haraldearen gaineko errepide espaloitik abiatu naiz Labarpean barrena; malkor beltzairearen aurretik.

Lubiziak maiz gertatu ohi direla-eta, sare trinko zabal bat ikusi dut labarra luzeran estaliz.

Baina arroka puska galantak amildurik, gainditu egin dute bizpahiru lekutan barradera metaliko hori, babes gisa jarritakoa barregarri utziz.

Letrero batek hau dio: “Aurrerago ez pasa. Arriskugarria izan daiteke”. Eta behe-rexeago, erdaraz: “Peligro. No pasar”.

Baina nik aurrera jo dut.

Olatuak gero eta handiagoak nire aurrean. Aparra eta kresal gandua, gero eta hurbilago, eta azkarrago.

Ustekabean, olatu azkar haietako batek harrapatu nau osotara. Itsaso hotz guzti-guztia neure gainera erori dela sinetsi behar izan dut. Eta, gertakiaz jabetu orduko, blai nengoela.

–Bardin dostak! –bota dut garrasi bizian.

Aparra nagusi bazterretan, eta Ondarrondo pasealekuan putzu luze bat sortu da; behin eta berriz uhin ñimiñoz kixkurtua.

Beste olatu batek, alimalekoa hau ere, mehatxatzen ninduen. Eta apurtxo batez eskuin aldera jo dut, ihesi; nolazpait Dorreko esparrura hurbilduz.

Berriro harrapatu, ordea, eta berriro blai:

–Bardin dostak! –errepikatu dut goraki.

Jantzi guztiak blai, are zapatak ere. Begiak bat-batean gorriturik eta azkuraz. Eta alkandorari itsatsita, aloka puska bat, dutxaren lekuko.

Eta, zoritxarrez, etxera behar nuela erabaki dut.

Bidean dardar nindoalarik, “Sha puede marsharte” hitzak entzunarazi dizkit barrenak...

“Hau lana! –neure artean–. Gutxienez azkeneko egun hartan ez ninduen zerri hark ‘gabacho’ eta ‘hijo de francés’ deitu, beste askotan bezala... Gaitz erdi!”

“Hi bai, hijo de español”, esan nuen ozenki.

Itsas orroak estali egin zuen nire oihu alfer eta zentzugabea.

Barre algaraz hasi nintzen halere kresal giroan.

Berehala egongo nintzen Labartza “Barri”an.

Eta Ixaskunek prestatutako sardinez eta Labarkako ardo beltzaz berotzeko esperantza eta beharretan igo ditut lau solairuak, oinez, korrika, “jinasi apur bat egi-tekotan” Ixaskuni azaldu nionez.

Gezurra.

“Igogailu hertsi hartan preso...? Utikan!”

Kontatuak nituen jadanik: 68 maila.

Pozarren arnasestuka igoko!

Oraingoz behintzat...

IV

Bizpahiru egunez gibelkoi.

Ez batere ahanzkor. Ez horixe!

Osoki tematua, hain zuzen; eta logalea bera ere de-
xente galdurik.

–Agertu haz, Antton, Allikene aldera?

“Zausk!”

–Yun binon, bai. Bayakiñat, yakin, han zer ikusiko
dodan, eta zer ez... Eta horregaitixek nayagon uzkur,
herabe, bildurrak hartua. Zelan esango?

–Bada ni neu be, enok neure buruaz oso seguru.
Baia erabagi bat hartu yoat. Eta beharbada aitztuta dau-
koan foto bat erakutsiko deuat.

–Beste foto bat?

–Bai. Gure yangelan eskegita egon zuan urtietan.
Allikeneren foto handi bat dok, 1956koa. Bere marko
dotorea eta guzti. Gurok ikusi?

–Bai horixe!

–Niri trixtura handixa emotestan. Eta Allikene sal-
tzean, ostondu egin nayoan kaxa baten. 44 urte pasa,

bai; eta fotoan agertzen direzan ia-ia guztiak yoan dituk. Aitzen dok esan gura dodana?

Sekulako zirrarak hartu nau. Gurasoak agertzen dira bertan, sendo. Beren onenean agian, eta ni orain naizen baino gaztexeago... Kontuak atara! 43 eta 40 urte.

–Hi ta bixo’pe hortxe gaozan. Ume bi, irripartsu; Amama Ixoneren alde banatan. Bera alargun ordurako. Hi zortzi urteko neskatillia; ni seiko mutilla. Urte asko yoanak; baia ondo gogoratzen non egun hartaz.

»Nik sumatzen dodanez –jarraitu dut– data eta gomitatuak kontutan hartuz, Aitatxi Erramun eta Amañi Gaxuxaren Urre-Eztaiak antolatu yuezan Allikenen handiro. Eta fotoa ospaketa horren lekukoa don...

–Txapela zabal bana yantzirik agertzen dan morroe mordo hori –oraingoan arreba mintzo– Altzaiko senitartekoez osatua dok, duda barik. Üthürraltarrak etorri zituan aldran *Espainiako* ahaidiak agurtzera. Zaharrenak etxe aurreko jesarlekuan jarririk yagozak; hiru enbor puskaz gurasoak moldatu eben hartan. Gu biok, gazteenok, zutunik, noski. Eta zutunik Allikenen bizi zirenak be.

–Baleiken, bai. Batzuk etxoasnat ezagutzen. Baia beste batzuk bai. Hau, adibidez, osaba Karmelo don, duda barik; oin Atxetan bizi dana...

–Beste andra hori –azalpenen hariari eutsi dio gogotsu– amaren aitzia dok, gaztiagoa zana bera baño: izeko Zuri, Allika-tarra, azkenean hi “barruan” hengoenean, oin dala hamabost bat urte, mutxurdiñ hil zana... Fotoan... hori don... bere 39 urteetan.

Arnasa hartu bide du. Eta nik jarraitu dut:

–Begira, begira hau, Ixaskun. Zutunik eta aizkoria eskutan daukan hori, morroia... Zelan eban izena?

–Etxakixat pa neuk pe. Hau markia!

–Bada niri be etxatan oin haren ixena etorten... Ala, bai! Ointxe bai! Anjel Etxebarria, Gizaburuagakua, uste yonat.

–Horixe! Anjel! Aitte baño helduxeagoa adiñez, ene ustez.

Begira gelditu gara luzaz.

–Ondo iñyon, Ixaskun. Hau bai dokumentua!... Nekrologikua, ia-ia. Danak hil yozan! 44 urte ezpaita hutsaren hurrena.

–Danak ez, Antton –Ixaskunek arrapostu–. Andra sendo hori, yesarrita dagoana, izeko Bego dok. Eta Atxetan bizi dok, alargun. Osaba Karmelok aspaldian itxi eban betirako, bere lau seme-alabakaz.

–Gure lehengusuak. Baitta!

Gure Allikene hura (fotoan berehalatik uler zitekeenez), batera zen baserri apala, txapala eta jaso. Txapala altueraz: ukuilua, etxebizitza eta ganbara. Apala, berriz, dotoreziaren aldetik. Eta jaso ere bai, etorkiz edo leinuz.

Estu xamarra, hamar bat metro: bi leiho eta ate bat erdian, balkoiaren luzeran; atzealderantz luze xamarra bazen ere.

Atalgainean Allikatarron armarrria ageri da: zezen bat goian, eta giltza eskerga bat behean. Eta data hau harrian zizelkaturik: 1776. Giltza hori zer izan daiteke-

en ez dut inoiz jakin, batzuetan Udalean eta Sagarninaga Kulturunean saiatu izan banaiz ere.

Etxaurrean erruz hedatua, berriz, etxeko mahasparra ageri da; mahats morko eder eta ugarien emale.

Eskuin aldean intxaurreko handia, fotoa egitean hostoz josia. Eta ezkerretan, teilaz estalitako etxola hura, tresnategi eta egur-gordeleku izana. Eta beronen atean etxeko alperra: ardatzetik burdinazko urkuluaz eta pertikaz hornitua.

Eta udako arrastiri epeletan erabili ohi genuen harrizko mahai borobila.

Hiru zakur izan ohi genituen Allikenen. Hirurok nire barrualdian hilak...

Fotoan “Baltza” artzanor alemana besterik ez da ageri, neure kuttuna: bere etxetxoaren aurrean, kateatuta beti gizajoa (zaindari sena gal ez zezan, omen); eta, belarriak tente, foto egileari erne begira.

“Ttotto” eta “Augi” bi euskal artxakurren arrastorik ez dago argazkian: norabait parrandan joanak...

“Bi inozoak libro; babestailea, aldiz, estekaturik”, neure artean.

Etxazpian gordetzen genuen azienda. Ongi oroitzen naizenez, 1980an, nik etxetik alde eta Euskal Herrian gaindi “ibiltari” hasterakoan, 6 behi genituen, 10 ardi eta asto bat, “Astoko” otzana.

Etxaurreko balkoia zen Allikeneren ezaugarri nabarmena, ene ustez. Zabalera osoan, egurrezko *eskillara* ikusten da argazkian; bere *bantzua* eta guzti.

Goian, azkenik, lastoa, teila puskak, are zahar bat, zutoin mordo bat, nik dakita zer besterik, mandioan pirlatzen ziren; armiarmak eta berauen sare lodituak urri ez zirelarik.

Fotoan ezin ikus, jakina. Baina oso maite nuen nik atzealdeko sorotik gora igotzen zen egurrezko mandio-zubia. Handixek sartzen ziren, hain zuzen, ganbararakoak oro. Eta harakoak izan ez arren, inguruetatik hurbiltzen zitzaizkigun saguzar batzuk.

Aspaldidanik utzia bide genuen kisu-labea, bestalde, ez zen fotoan ikusten ahal. Harrizko zuloa gelditzen zen. Eta makina bat aldiz jostatuak ginen gu artxakurrak hara sarrarazten. Gure deabrukerien ondorioz, ez baitzen beti egiteko erraza; ezta erakargarri, hezur baten triki-mailua paratuz ere...

Atzealdean, pentze leunean, *solua* genuen. Eta hama-bi hektarea hartan bildutako pilo bat arto, tomate, tipula, lusagar eta babarrun jana nago ni. Baita hango zuhaizti apalean jasotako piku, sagar, udare, eta abar ere.

Beti ere, ustez bederen, kanpotik ekarritakoak baino hobeak.

Gaur egun Allikenen zoriontsu izan nintzela iruditzen zait.

—Pena handixa emouskuan baserrixa saldu beharrak. Benetan. Baia aitxe hildakoan, eta hi barruan luzerako plantan... zer egin zeikean? Eta ni neu egunero dendara behar, kalera... Eta ama han, garrixa minberaturik, ortuan lusagarrak hartzeko ezin makurturik, aziendaz arduratu ezinean, egun osoan bakarrik... Etzuan posible

izan, Antton. Eta 1991n ondo saldu geuntsoan “Inmo-Viz” promotoreari. Horreri esker yeukoagu diru apur bat.

–Yakiña, Ixaskun. Azalpenik emon beharrik eztaukon.

–Holan erosi genduan Mateo Zugasti kaleko etzia; eta hor egon gaituk ama eta bixok azkenengo urte honetan... Eta bera aurtengo neguan hiltian, gu bixona dok... Handitzen ari dok Labartza, ganera. Eta Allikene lelengo lerroan egoan, kale baserri bihurturik, iruntzia ixateko bezperan. Urtenbiderik ez egoan. Benetan.

–Ezezpa! Lasai. Bayakiñat.

–Eta argazki hau non parau yakin ez, eta... oston-duta! Gurok?

–Noski! Emostan. Non zintzilikatu asmatuko yonnat.

Gaztaroan kortatik gora zetorkigun simaur-sunda bera eta abereen marruak aditzen hasia nintzela iruditu zitzaidan. Eta, azokatik Astoko lotzerakoan Amama Ixonek botatzen zituen “ixo!” ozen haiek berrentzun nitza-keela...

“Joanak joan, Antton!”, neure artean.

Eta Allikeneren ordezeko lau bloketzar “modernoak” ikuskatzera deliberatu nintzen. Urrundik behintzat begiratzerara...

“Labartza Barri”tik nahiago.

Eta, horretara, Ubago errekaen ezker ertza korritzen duen Julio Bastarrika kaletik joan naiz.

Bizpahiru kotxe aurrealdean geldirik, ezin ezagutze-ko heineraino kaletarturik, osaturik, hitz batez zeharo aldaturik, topatu dut Allikenerekiko parez pare geneukan Errekalde baserri zaharra. Etxaurreko arku zabala ez da aldatu. Baina bizpahiru barruki itsusi erantsi dizkiote, eta xarma guztia galdu du.

“Ez duk hik ere luzaz iraungo”, bururatu zait, Errekalde gogoan.

Eta Azoka aldera egin dut, beti ere Ubagoren ezkeraldetik; bertaratzeak hozkia emango balit bezala.

Gure *solua* zena, erabat desagertu da. Eta, errekez bestaldean, Ixaskunek aipatuak zizkidan lau bloketzarrak topatu ditut.

Zementuzkoak dira, paraleloak, berdin-berdinak, nortasunik batere gabeak. Oso dira altuak: zortzi edo hamar solairu. Eta Iparralderantz luzeak arrunt: 40 bat metro bai.

Labartza “Zahar” guztia estaltzen dute.

Errekaldeko belarditik begiratuz, hiru etxarteetatik hiru zero puska ikus daitezke, hormigoi grisak batetik eta bestetik mugatuak.

Hiru ortzi xerrenda, hormatzarren artean preso...

Goragalea sentitu dut.

Igande kari, San Pankrazioko kanpaiek deitu dute mezatara.

Ni, trenbidearen ondotik, Seiabidetik aurrera joaki, Azokaraino iritsi naiz. Hetsia zegoen dena, eta gaztainadia hutsik.

Haritzondo urtetsua, Allikenekoaren adinkidea guxtienez, beti zindo, inoiz baino ederrago iruditu zait.

Hots, ustekabea, Seiabideko 3an, geltokia baino lehentxoago, ikurrin zabal bat topatu dut, harro eskegita. “Arrano” hitza ikusi dut, eta bertara hurbildu naiz.

Eta atean atxikita ohar hau irakurri, batuaz dotore idatzia:

Datorren ostegunean, arrastiriko zortzietan, harrera egingo zaio hemen Valcorneja-ko presondegitik etxera etorri berria den Antton Ihartzegarai herrikideari. Ahal duzuen guztiok bertara azaltzea espero dugu –Labartzako Herrikoak, 2000ko irailaren 16an.

Harridura eta poza nahasirik nigan une horretan.

Hots, une horretantxe, Atxeta aldera abiatzera zihan trenak bere txistualdi zorrotz luzea entzunarazi du bazterretan.

–Ez, arren!! –jalgi zait erraietatik–. Hau gabe ere gehiegi zen lehenengo igande isil honetarako... Gaizki egin dut Allikene inguru horietara igandez hurbilduta. Nola ez nintzen atzo konturatu?

Txistukada zorrotz luzakor berbera entzun ohi nuen egunero Valcorneja madarikatuan.

Ehiza zakur batek, belarrian min hartuta, bere uhulgu hitsa erantsi nahi izan du hor nonbait.

“Larregi duk”.

Eta “Grupo Inmo-Viz” karteltzar haien ondotik berriro sekula ez pasatzeko zina egin dut.

Allikeneren ordez... “Inmobiliaria Vizcaya, S.A.”.
Bapo!

Datorren ostegunean (baina erabaki honek betirako balio du), Labartza Zaharreko kale bihurrietatik jaitziko naiz Seiabideko Arranora.

V

–Arranoko Ander etorri zuan bart. Etzidamu arrastirian, datorren egueneko zortzixetan, “harrera” edo dana-dalakua eingo deutsela bertan; eta han egoteko.

–Bai. Bayakiñat. Hain zuzen be, atzo handik pasakeran ikusi nayonan.

Eta neure buruari agindu niona beteaz, barnealdetik, Labartza Zaharra zeharkatuz joan naiz bertara.

Ondotik berrikusirik, balio berezia hartzen dute San Pankrazio elizpearen zuraje beltzaire horiek.

Tentaldian erori ni; eta ezertan sinesten ez duen hau sartu egin da barrura.

Halako itxitura afoinua eta intsentsu usaina nahasirik, ahaztuta neukan zirrara bitxiak liluratu nau, batera haurtzaroarekiko malenkoniaz eta urruntasunez oratua.

Hogeita hamar urte honetan inongo elizatara sartua ez nintzelarik...

Aldarearen gainean Pankrazio nerabea agertzen da, basaki bere 14 urteetan martiri hila.

Diokleziano enperadoreak Erromako kale gorrian hil arteraino torturatua, eta azkenean aizkorakada batez lepoa moztua...

Pankrazio gaztea, hala ere, burua eskuetan daukala agertu izan zaigu labartzarroi betidanik. Odoletan blai, baina irribarrez.

Eta oraingoan mutil hura bertago sumatu dut umetan mezatara amarekin joan ohi nintzen urte urrunetan baino.

Plaza Barria inguratuz, Seiabideko 3ra iritsi naiz.

Ander Iturriaga zegoen atean nire zain:

–Kaixo, Antton. Bizkor?

–Zelan ez?

Herrikoa bixi-bixi topatu dut. Barruan gazte jende asko.

–Gaur hire eguna dok. Hortxe daukok heure erretratua, berehala jaisteko prest. Jaseko hago!

–Gazteago behintzet bai.

–Noizko fotoa da?

–Etxakixat... 1980koa edo?

–Ixaskun arrebiaren bidez lortu geuntsan.

Eta fotoaren oinean hau irakurri dut hiru lerrotan:

Antton Ihartzegarai Allika

1983-IV-22 / 2000-IX-14 bitartean preso egona

Ondo etorria Labartzara

–Datak ondo yozak, bai. Apirillaren 22 hura, bari-xakurik trixteena ene bizitzan! Udabarri hasiera politta...

Anderrek ez du zer erantzun jakin.

–Beste dato bat be emon behar yoagu. Baia hor etzuan kabitzen; eta neure berbaldixan aipatuko yoat. 1999ko ekainaren 27an urten behar hebala. Hamabost hilleko “propiña” hori eztok makala ixan...

–Pentsa! –nik.

Seiabideko 3 hori, behea eta solairu bakarreko barruki luzeko bigarren sotoa da; seguru aski aspaldiko denboretan Azokako aziendarentzako korta izana. Gai-neko egoitzan, bulego pare bat antolatu dute, telefono eta ordenagailuarekin. Eta behean sukaldea dago, baita komunak eta taberna apal bat ere.

–Hauxe dok, ba, gure elkarlekua –Anderrek–. Baitte gure iñyargunia be!

–Etxaok bape txarto.

Gelako paretetan lau erretratu.

–Hortxe daukozak Labartza-Atxetako lau presoak, gaur: Jon Zelaia dok hau, 4 urte barruan; Antselmo Elordui beste hau, 6 urte; Tomax Euba hurrengo hau, 9 urte; eta Malen Solagaistua, azkenekua, 8 urte. Neska politta benetan.

–Etxoat iñor be ezagutzen!

–Yakiña. Hi baiño gaztiagoak dituk (ni baiño be bai!, barrez). Neskiak 31 bat urte yaukok, nik uste; eta Atxetakoa dok. Antselmo eta Tomax, barriz, kale borrokagaitik yagozak Valdeciénagan, eta 22 eta 26 urte berterik etxuek. Malenek, aldiz, “rollo” txarra yok, eta Alcalá-ra eroan yuek yoan dan astian, Zuera-tik eta beste lau gartzelatatik pasa ondoren.

–Nire seme-alabak ixan leikezak laurok!

–Hor nunbait, bai.

Mahai batean xanpain botila batzuk erreparatu ditut; baita ardo beltza, gorria eta sagardoa ere. Eta pin-txo mordo bat, kolore guztietakoak. Afari formal bat baino gustagarriagoak.

–Baia... zer da, ordia, hau guztixa?

–Merezi doan harrera... ala ez?

Bi txistulari gazte hurbildu zaizkit:

–Gabon! Ondo etorria etxera!

–Millesker.

–Amentxe'ozu Hilaixo. Gero hire omenez aureskua yantzeingo dauena. Atxetatik etorri dok beren-beregi.

–Urte askotan, mutil.

Larregi hau guztia. Benetan.

Eta “barrutik” erakutsi dit Anderrek *Herrikoa*.

Hasi orduko, tamaina handian, “sartu” baino lehenagotik ezagutzen nuen argazki famatu bat topatu dut: Argalak eta Telesforo Monzonek elkar irribarrez agurtzen.

–Ezagutzen, ezta?

–Nire adiñekook behintzet, bai eta bai.

–Eta hi heu zelan, Ander?

–Esate'an lez, txarra kenduta ondo! Valcorneja ez, baia zerbaitxu ezautu yoat nik be “Su Majestad” en ho-teletan...

–Zenbatetan?

–Nik hiru ezautu yotaz: Segovia, Cáceres eta Puerto bi. Gitxi hire onduan, bayakixat...

–Beti lar. Bakar bat be, larregi.

–Gu geu, Antton, zaharrak gaituzak. 42 urte yaukot nik; hik baño zortzi gitxiago. Eta, halanda be, enok lehengua.

Eta Antselmo eta Tomaxen fotoetara eraman nau berriro:

–Honeik emote’ eustiek esperantza... Enpresiak horrelangoak behar yauzak. Gu hoba gaozak beste beharretarako.

–Beste beharretarako diñok? Zeiñetarako?

Aurpegian bertan ere arbuio muzin bat agertu bide zait.

–Bai. Hi kultura gixona haz. “Jausi” baiño lelago be, egixa esan, kultura gixona hintzan. Eta arlo horretan bayagok zer egiñik; eta politikarenian be bai.

Entzuteko beldur nintzen hitzak ziren Anderren horietzek.

–Zaharra nazala esan gurok?

–Zahar-zaharra ez... Berrogeita hamar urteko gizona ez dok zaharra... Baina enpresiak gazte yentia behar yok, aurrera ingo badau.

Espero ez nuen tristura olatu batek harrapatu nau goitik behera; lehengoan Labarpeko olatu apartsuak blaitu ninduenean bezalatsu. Eta Ander konturatu egin da.

–Zer dok?

–Ezebez. Lasai.

Txistulariak aureskua jotzen hasi dira. Eta, amaitu-takoan, txapela erantzi du dantzariak nire aurrean, eta agur egin.

Eskegita zegoen nire fotoa kendu du Anderrek orduan, eta txalo zaparrada galanta lehertu da gelan.

Ixaskun ere hantxe zegoen, Arrosa eta Gotzone bere bi adiskide minekin; labartzarrak biak; eta berak ere, nire arreba bezala, beren berrogeita hamarretan abiatuak.

Ixaskunek zapiaz begiak xukatzen zituela iruditu zait.

–Ongi etorri Antton gugana!!...

Eta ohiko lau gorakoak bota ondoren, Anderrek bosgarrena entzunarazi du ozen: “Gora Euskadi ta Askatasuna!!...”

–Gora!! –erantzun dugu denok.

Zerbait esateko eskatu dit Anderrek.

Ez nekien nik, ordea, zer esan.

Memento hau etorriko zela antzematen nuen. Baina ez nuen ezelako hitzaldirik edo prestatu. Eta zirrara giro hartan, are traketsago eta zozoago azaltzeko ikarak hartu nau:

–Milla esker, adiskideok... Milla esker! Eta parka ni honen motz geratzia... Hamazazpi urte t’erdiz itxaron dot momentu hau; eta orain eztakit zer esan... Baia aipamen berezi bat ein biot barruan geldittu direzan lagunen gomutan. Azkanian agurtzeko be aukera barik Valcornejan itxi nebazan Edorta Fernández eta Eulojio Unibaso gartzelakideak...

Txalo zaparrada galanta entzun da.

Eta berehala: “Presoak etxera! Presoak etxera!” oihuak azkartu dira...

–Eta orain –moztu du Anderrek– zerbait yateko eta edateko aukeria dogu; baita Anttonegaz danok lasai berba itteko be. On egin deizuela!

Hamaika eta erdietan Ixaskun hurbildu zait.

–Etzerantza yuatiaz zer, Antton? Larregi edaten ari haz, ene ustez.

Baietz erantzun diot.

Eta Landaluze zubia eta pendiz borobila pasata, etxepan ginen gauerdirako.

–Pozik, Antton?

–Bai eta ez.

–Zer?

–Ondoko egunokaz erantzungo deunat... Oin ibilalditxu bat eingo yonat hondartza ganetik. Eta berehala egongo non etzen.

–Gurokan letxe. Gero arte.

Eta Mateo Zugastiko 33ko sotoan arreba utzita, Ondarrondotik abiatu naiz bakarrik.

Orroa burrunbatsua itsasotik. Eta hozkirri.

Terrala zebilen, eta olatuak kontraka harrotzen.

Hegoaldetik airea garden.

Bizkaiko itsasargiak oro (Matxitzakorainokoak bakarrik, egia esan, Mendebalderantz), ilaran, ñirñirka ari begiratu ditut.

Luzaz begiratu...

Oso luzaz.

VI

Nire harridura!

Bardakoa kolpe latza izan zait azken funtsean.

Poztu ere egin nintzela aitortu behar. Norberaren sufrikarioak eta atsekabeak bestek aintzat hartu eta esker-turik ikustea bizkorgarria delako. Ez dut ukatzen.

Gazteek ozenki kantatu zuten:

*gazte bat lurrean aurkitu dugu
lore gorritz beterik kolkoa,
burdinen artetik ihesi dator
euskal gaztediaren oihua...*

Eta benetako zirrara ematen zidaten azkeneko hitzak:

*bidean anaia erortzen bazaik,
lepoan hartu ta segi aurrera!*

Gutaz norbaitek ganoraz mintzatzen asmatu zuela iruditzen zitzaidan.

Ez baikinena gu txatxukerietan ibiltzeko Erakundearen sartu. Bizia emateko prest hartu genuen bide latz hura. Nori dakioko goxo hogeitaka urterekin, edozein egunetan, gorpu agertzea?

Baina jipoi galanta ere jasan nuen batera.

Eta inor ez bide zen konturatu. Ezta konturatuko ere, nire ahotik!

Harra barruan daramat, eta barrurik ezkutuenean eramango.

Anderren hitzen atzean, gure aitak errepikatu ohi zuen atsotitz garratza gogoratu baitzitzaidan niri: *Izana, izen gaiztoa*.

Garbikiago mintzatu balitz, honelako zerbait esango zukeen Anderrek bertan, gutxi gorabehera:

—Antton: yoanak yoan. Hireak inyok. Edota, hiri be heure aldixa itzuri yak. Alferrik dok ez-ikusiarrena egitia. Hartuik erretira! Eta zabal bidia gazteei. Politikariaren ordua yatorrek. Hiri be bai!

Euskal politikaren alorra niri horren nabarmenki eskaintzea, batez ere, adarra jotzea iruditu zitzaidan. Politikaren mundu okaztagarri horretan murgiltzeko prest egon naitekeela bururatzea bera ere... Nik gudari izan nahi dut. Ez berba-merkataria. Gure herriak gudariak behar ditu; eta ez sasi-politikeria antzua.

Herriko Tabernako giro hartan, eta kale-borrokalariaren bi argazkiak propio erakutsi ondoren, besterik adierazten zuen Anderren hitzaldiak. Zalantzarako xirrikiturik gabe.

Eta nik bihotz minean sentitu nuen zartakoa.

Biologiak ezarritako mugek ez baitute gaindibiderik.

Euskal kulturaren alorraren aipamena (xumeegia) ez nuen, egia esan, gaizki hartu.

Ni nolazpait kultur gizona izan naiteke, agian. Gerokoan. Nazio-arazoa, bere sustraian, nazio-kultur arazoa dela sinetsi dut beti.

Neure “hirurteko menditsuan” ere... gure herriaren kultur izana nuen helburu; eta ardatzean euskara bera. Hori beti.

Baina *izana, izen gaiztoa*.

Gau guztia esnai, ideia horien hausnarketa mingarrian etengabe eman ondoren, goizean, “arמוש”koan, lanera bere dendara joan baino lehenago, Ixaskunen galdera xingle honek jaurtiki nau mundura:

–Gero arte, Antton. Banayoak biarrera. Eta hik, ezer pentsau al dok goizeko ordu honeitarako? Seguru bai-etz!... zer edo nor ikusi biok gaur?

Zart egin dit barneak. Beharbada Anderren esanetan blaiturik nengoelako. Eta asaldatu egin nau:

–Bai, bai –zauskada diximulatu nahiz–. Valcornejan erabagittako “plana”ri eutsiko yeutsonat.

–Hortaz?

“Esan egin beharko diot”, neure artean.

–Bada gaur... *Elexoste Ikastegia* bisitatzea tokatzen yatan.

–Et, et, et!... Ondo. Baia yo’adi yakiñaren ganian, Antton. Dexente aldauta yagok ha, Ziarsolo yauna oin dala bost urte hil zan ezkeroztik.

–Bai. Baia nik lau urte emon nayonazan han: 1975-1979. Akordatzen yan? Eta bertara gura yonat.

Kepa Ziarsolo zen 1975ean Ikastegiko nagusia; eta estimu handitan ninduen. Eta arazorik gabe zabaldu zizkidan Elexoste-eneko atea. Nahiz nire titulazio ofiziala eskasa izan; eta, neure 25 urteetan, irakaskuntzarako eskarmenturik batere gabea izan.

Allikenetik mugitu gabe *Geografia-Historia lizentzia* bat lortu nuen UNEDen bitartez. Eta hori zen dena.

Gurasoek bero-bero eskertu zioten Ziarsolo labartzarri nire lehenengo lan hau eskaini izana.

Eta nik neuk ere doktoregoa ahalik eta azkarrenik bururatzea agindu nion 1978an.

Baina handik urtebetera “hegaz” desagertu nintzaizen denei: bai familiakoei, bai Elexoste Ikastegiari, eta baita labartzar guztiei ere.

“Quelle horreur! Alors, Antoine, notre cher neveu espagnol... il a pris le maquis! C’est incroyable! Et puis, quelle honte pour notre famille!”, errepikatzen omen zuen Luhusoko osaba Guyk ikaraturik.

“Isil ditzagun zozoak, kondaira honetan bederen”.

Hogeita bi urte joan dira doktorego-agintza hura egin nuenez geroztik, gezurra baderitzot ere. Orain aukera izango ote?

Ximiko bat nabaritu dut.

Dorre kaleko 13ra joan naiz. Aspaldian bezala...

Sotoan plaka zuri bat: *Academia Elejoste – Matemáticas, Informática, Inglés – Pisos 1-2.*

Gorantza leunean kale hertsiaeren bukaeran, zuhaitz ederrak ezker eta eskuin; eta Ondarrondo pasealekuaz harantz, itsaso urdina.

Eskailera igo dut (nire garaian baino hobeki argitua); eta Ikastegiko bulegora iritsi.

Harrera gelako paretaren erdi-erdian, sekulako fototzar bat, koloretan: Londongo “Tower Bridge” ezaguna, goiko bi zubi-erdiak zabalik; eta atearen ondokoan beste argazki bat, txikixeagoa: “Bill Gates. Microsoft”, gaizki irakurri ez badut.

–Egun on! –nik.

–Buenos días –emakume gazte atsegin batek arrapostu.

–Antton Ihartzegarai nauzu. Etxe honetan irakasle izana.

–¿Cómo?

–Euskaraz ez dakizu ala?

–En erderas, por favor. No le entiendo... Soy de Bibao.

“Hori don erantzuna, neska! –neure artean–. Hogei urtez dantzan, eta Labartzan bertan hau topatzeko!”

–Perdone, señor. Me llamo Begoña Garrido Oleta –irribarrez–. ¿En qué puedo servirle?

“Academia”ko sekretariak galtza estu berdeak janzten ditu; bluxa berde-beltza, ez askoz laxoagoa; eta takoi luzeko bota beltz altuak. Aurpegiz itsusi iruditu zait (“hala ere, barkagarri” ihardetsiko lidake “ar” egarti bategi). Eta, ez dakit nik zertan, zabar edo trauskil.

–Yo trabajé aquí durante más de tres años –azaldu diot–. Explicaba *Geografía e Historia del País Vasco* ahí arriba, en el aula 4 del piso segundo; que da a la Dorre Kalea. Supongo que sigue existiendo.

Gero eta harrituago begiraten zidan bilbotarrak. Eta niri gero eta zailago gertatzen zitzaidan bortizki ez lehertzea.

–Todo eso, ¿cuándo? Yo vine aquí con el Sr. Bárcena en 1995...

–Y yo le hablo de mi trabajo aquí hace 20-25 años –neure haserrea ezin areago ezkutaturik–. Urte larregi, bai. Badakit! –hitz hauek euskaraz.

Eta berriro ere, handik pixka batera, pittin bat barreturik:

–Quiero ver el aula 4, en que trabajaba. No me voy a llevar nada. Quiero sólo asomarme al balcón desde el que veía, hacia la izquierda, los dos parques y el mar; y hacia la derecha el Mercado Viejo y la estación. Tengo una ilusión, que tú nunca comprenderás, por ver las estanterías donde dejaba mis libros y mis apuntes.

Isilunea.

Emakume ahots bat bakarrik, goitik itzurtzen, eta ingelesez ari.

–Aski da! –garrasika–. Banoia gora, eta kitto!

–Yo lo siento, señor. Pero ahora no va a ser posible. Justamente están en clase de inglés en esa aula 4... El patrón, Sr. Vicente García Bárcena, está hoy casualmente en Bilbao. Oigame, señor: sea razonable... ¡Yo no estoy autorizada a interrumpir la clase!...

Ez dut besterik entzun.

–Nahikoa dogu!

Izen bat atean: *Miss Clevendon. Third Level.*

Atea zabaldu dut zakarki.

–Good morning, Sir! What’s the matter?

–Hau nire irakats gela izan zen hiru urtez. Eta ikusi egin nahi dut. Eta ikusi egingo dut! Berehala joango naiz, eta zuek baketan utziko.

Neure mahaiaren atzealdean zintzilikaturik neukan Euskal Herriaren mapa ederraren arrastorik ez.

–Non da Euskal Herriaren mapa? Mapa hura nirea zen, ez zuena. Eta eraman egin nahi nuke.

–Sorry! What do you mean?

Ikasle guztiak barre algaraz.

Leihora hurbildu naiz:

–Ezkerretan, Arteta eta Dorre –azaldu diet–. Eta eskuin aldean Labartzako tren geltokia.

–Creo que ha dicho algo de La Berza –silka ikasle batek beste bati eztenka nahian.

Entzun egin dut, hala ere.

Eta barne eraso batek erabat gainditurik, guztiz ozenki nik:

–La berza, hire amarena!!

–Please, sir!

Miss Clevendon, alferrik, gelan sosegua berrezarri nahiz:

–Don’t disturb us any more!

–Banoa, bai!... Have a nice day!

Eskailetatik jaitsi, eta idazkaritzatik pasatzean, niri begira izuak hartuta aurkitu dut Begoña anderetxoa.

Gorrotoz begiratu dit. Baina ez du txintik atera.

Nik ere ez. Higuinez mukuru, isiltzea zuhurrena.

Sototik irteteen, bikote bat topatu dut, elkar agurketa leun isilean. Adina kontuan hartuta, Academiako jendea ez zela pentsatu behar.

–Hasta luego, cielo –esan dio eztiki gizasemeak, musu busti bat ematen ziolarik.

Emakumea ez zait (barka honen zakarki mintzaztea) batere “zerutiarra” iruditu.

Eta inoiz baino izugarriago agertu zait kristauen artean aipatu ohi den “infernu eternala”ren kontua.

VII

–Kotxia biarko'on bixar?

–Bixar... Barixakua, agorraren 22... Ez, ez... Hartuik lasai biar b'ok... Nora yun bihaz ba?

–Hortik ziar.

Nire mozketa ikusita Ixaskunek ulertu du, eta ez du beste galderarik egin.

Biharamunean, goizeko seietan irten, eta Arcachon aldera abiatu naiz, etxeko Opel gorrixka ilunean. Le Moulleau auzora preseskiago; hiri zaharraren ("La Ville d'été" delakoa) eta Pyla erdi-basatiaren aurrean.

Hirurehun kilometro nituen zain, goizerako; eta Bizkai ekialdea, Gipuzkoa, Lapurdi, Landa osoak, tarrapataka gurutzatu ditut.

Labouheyren bakarrik, pinudi erraldoiaren erditsuan, depositua gasolinaz betetzerakoan, kafetxo bat hartu dut.

Ezkuturik gordeenean hemezortzi urtez isildutako gertakariak bultzatzen ninduen hara joatera.

Zer gerta ere, sekula gure arteko hura aipatuko ez nuela agindu nion berari. Eta orain ere ez dut hitza jango.

Erabiliko ditudan lauzpabost izenak berak, hortaz, faltsuak dira. Eta niri dagokidanez behintzat, hilobira joango dira gertakari haiek nirekin batera.

* * *

1981eko negua zen (hemeretzi urte gaur!), eta egun hotza.

Ordurako ni “dantzan” nenbilen aspalditxo Bidasoaz bi aldeetan, arriskutik arriskura; eta behin bereziki heriotzatik mirariz ihes egina.

Eta errefuxiatuen aldeko bilera bitxi batean, Baionan, hemen “Jeannette” deituko dudan emakumea ezagutu nuen.

Oso aukera laburra izan zen hura ezer funtsezkorik solastatzeko. Elkarrizketako tarte txiki batean, bizkaitarra naizela jakin zuen berak nire ahotik; eta nik, berriz, bera, “Jeannette” alegia, euskal errefuxiatuen alaba zela ikasi nuen beraren ahotik. Eta bereizita bizi zela bere bi seme-alaba gazteekin Bordele erdian.

–J’ai toute ma sympathie pour vous autres –aitortu zidan–. En fait, je suis une des vôtres –azpimarratu zuen–. Mais... *baña estakit euskaras*. Mes parents ne me l’ont pas appris. C’était difficile, je le reconnais, de conserver notre langue à Bordeaux. Mais cela a été très dommage pour moi; et m’a marquée profondément.

Ni baino urtebete gazteago zela kalkulatu nuen. Eta, hortaz, ezagutu nuenean, 30 urte zituela.

Minutu batzuk izan ziren bakarrik. Esana dut. Hamar bat edo gehienez. Eta, halaz ere, begirada hura iltzatuta gelditu zen nigan. Eta berrikusteko itxaropenik gabe agurtu nuen.

Ni neure bidaia ilun eta egiteko arriskutsuetan murgildurik, ahaztu ere egin nintzen apur bat.

Hori uste nuen bederen.

Hots, handik hilabete batzuetara, 1982ko irailaren amaiera aldean, Baionako Orbe kale labur eta jendetsuan topatu nuen arrastiri batean.

Eta, ez bat eta ez bi, ezertxo ere ahoskatzeko betarik gabe, biok batak bestearengana jo, eta ezpainetan amaitu ezinezko musu bat eman genion elkarri.

Zerbait esan nahi nuela erreparatu zuen berak, eta ez nekiela zein hitz hautatu.

—Ne dis rien —entzun nuen. Eta bere eskuineko hatz bizkorra jarri zuen nire ahoaren aurrean.

Denbora alferrik galdu genuela biok sinetsirik, antza, Errobi ibai eskuineko jatetxe batean sartu ginen.

Afari arrunta egin genuen. Jakiak bost axola zitzaizkigun nabarmenki: “steak-frites” bana; eta jogurta ere bana, “naturala”. Eta ardo gorrizko botila konturatu orduko hustu genuen.

Berritsu geunden biok, oso. Pozkariotan. Eta bi ordu luzez elkarren berri trukatu genuen xeheki.

Neure kotxea (Peugeot zahar bat egun hartan, Frantziar matrikulatua), Errobi ibaiatz bestaldean aparkaturik utzia nuen, Euskal Erakustokiaren parean.

Eta harantz joan ginen bila.

Enpresako arauak hautsiz, argiroegi mintzatu nintzaion azkeneko hiru urte hartan isilpean neraman bizi-modu ezkutuz.

“Sois tranquille –agindu zidan Jeannettek– quoi qu’il m’arrive, je n’en dirai rien”.

Jeannettek, artean, bere tragediaren kondaira hitsa azaldu zidan, xehe-xeheki. 1977an Georges izeneko Libournetar batekin elkartua, bi ume izan zituen beragandik. Neska bat, aurrenik, 1978an, hemen nik Yvette birbataiatua; eta 1980an Xavier mutila.

Negu hartantxe, mutila ia-ia jaio berria zelarik, beste emakume bat Georges-en bizian tartekatu omen zela-ta, honek etxetik aldegin zuen.

Hasperenka hasi zen, eta bihotza erdiratu egin zitzaidan. Eta lekua diskretu samarra zenez, musuka errabiatuan hasi ginen.

–Arrête! Arrêtons, plutôt! –eten zuen brauki–. Soyons adultes!

Izotzak bete zuen bat-batean auto-barru afoinutsu kiskalgarria.

Eta handik egun batzuetara elkar ikustea proposatu zidan. Baionatik at. Eta baldintza zorrotz honekin: zer gerta ere, gure artekoa gure arteko egongo zela hil arte.

–Zin degizut –erantzun nion.

Irailaren 25erako, larunbatez, Arcachon-go tren-geltokian elkartzekotan gelditu ginen. Eta gero handik biok, bera nik neure kotxean hartuta, Moulleau-ko *Les Buissonnets* hotelera joango ginela, asteburua elkarrekin eskualde hartan lasaitasunean emateko.

Ondoko astelehenean “Gudari Eguna” herrietan ospatuko zela banekien.

Baina ez nion aipatu ere egin. Aukerak ez dira errepikatzen.

Geltokiaren aurreko aldapan dauden kafetegi-jatetxe haietako batean eseri nintzen, zain; eta “tilleul” bat eskatu nuen.

Zertarako hitzordua baino ordu eta erdi lehenagotik zain egote hura? Ez dakit.

Azkenean, seiak laurden gutxitan, hantxe agertu zitzaidan Jeannette. Irribarrez, galtza beltzetan eta ile-ton-torra gora.

Musu labur batez agurtu genuen elkar:

–Ma mère prendra soin des enfants, Antton. On est libre!

Neure kotxea hartu, eta, Arcachon zeharkatuz, Le Moulleau aldera jo dugu.

Nire paper faltsuek ez bide dute ostatzaina mendre-nik ere harritu. Torcuato Pesquera Malón – Nacido en Fregenal de la Sierra, 54 años – Profesión: representante comercial – Bilbao, calle Hurtado de Amézaga...

–Espagnol?

–Oui. C’est ça –nik.

“Hil arte gauza bera!”, neure artean.

Jeannette-ri ez dio paperik eskatu. “Le mâle suffit” ... pentsatu dut.

Bertan afalduko genuela adierazi diot.

–Voici la clé de votre chambre: 304, au troisième étage. Vous pouvez y monter dès maintenant.

–Merci bien. Mais je crois qu’on va faire un petit tour avant le coucher du soleil.

–Dépêchez vous, en ce cas. Et, de toute façon, l’hôtel reste ouvert jusqu’à minuit. À tout à l’heure!

“Jetée du Moulleau” nasaraino hurbildu gara, oinez.

Giroa malenkoniatsu zegoen, arrunt. Antxeta burubeltzak zebiltzan hona eta hara.

–Je ne sais pas à Paris. Mais ici, en Gironde, nous les appelons “sternes”.

–Zalapartari daude; eta horrek eguraldiaren txar-tzea iragartzen duela pentsatzen dugu Bizkaian.

Haize hozkirri balek freskatzen zituzten gure aurpegiak.

–Emaidazu eskua, Jeannette.

Oso hotza zeukala erreparatu dut.

Arrastiria heldu, eta auzo osoa udazkeneko kutsuan murgilduta jadanik. Musika jotzeko oholtza eta estalpea, hutsik. Denda goiztarrak, hetsita.

–Hemen badakik –azaldu dit Jeannettek frantsesez–, irailaren 1ean bertan, udatea “finie”. Haurrak eskolara behar, eta hauexek agintzen.

Egia zuen Jeannettek.

–Et puis –erantsi zuen– on est déjà à 25! Le soir il fait froid. Et il n’y a plus personne dans les plages!

Egia zuen. Ikasia nuen hori Hendaian, Donibanen eta Miarritzen.

Afaltzera sartu gara.

Jangela xarmenta zen, bai; eta ez oso zabala.

Mahai luze pare bat aurkitu dugu erdian, seinu egurrezko kadirarekin. Eta lauzpabost mahai karratu, launarekin.

Sabai zurian zurezko habe beltzak ageri; eta burdinazko hiru pantaila, lanparak uztai borobiletik zintzilik.

Horman, berriz, bi margo, bi bodegoi: pitxer bat ezkerrekoan; eta fruta-mordoxka bat eskuinekoan; erdi ilunean ozta-ozta ikusgarri.

Bakarrik afaldu dugu ia-ia, beranduago sartu diren hiru aleman taldeak salbu.

Kafea hartzeko, aldameneko aretotxora pasatzea proposatu digu “*maître*”ak.

Hemen ere sabaia zuri, eta zurezko habe paraleloak ageri. Mahai borobil bat, bi hautsontzi gorri, eta sutondo itzalita.

Gauza bera telebista, beharrik mutu. Eta bi tresillo eroso, leun, arre kolorekoak.

Sutondoaren bi aldeetan, leiho bana; eta gainean fusil zahar bat eta lorontzi pare bat, lore artifizial hitsez beteak.

Hotela txukuna da, bai –iruzkindu dugu–. Egurra bide du nagusi; eta egurra bero gertatzen beti.

Musika oihartzun hari etenkor bat heltzen zen gugana.

–Joango al gara gora? –galdetu diot; betiere halako barne ximiko baten harrak artegatzen ninduelarik.

–Nahi duanean, bai –erantzun dit Jeannettek naturaltasunez.

Eskatu bezala, ohe zabal bakarra topatu dugu.

Leihotik Arcachon-go golko barearen aldera begira egon gara minutu pare batez.

Haize balek halako arnasa erritmoa eransten zioten isilari, eta aurreko zuhaitzen hostotzan zurrumurru etenkorra eragiten.

Argi ilarek eta tarte ilunek muga gogoangarria ezartzen zioten golkoari. Ezkerretatik hasita, Cap Ferret genukan aurre-aurrean; eta gero, segidan, Le Canon, Piquey, Arès... Andernos zabala, batez ere, nagusi, behinola famatu izana, argiz eta luzeraz.

Biok gaueko arropa jantzirik oheratu gara.

Neure pijama nolakoa ote zen, benetan, ez dakit bat ere. Jeannettek, berriz, garbi dakusat oraindik, azpigona urdina zeraman, labur samarra.

Argia itzaldu, eta orduan erantzi dugu elkar ohe barruan irriz eta algaraz. Leihotikako argitasun izpiek ilunpe beltza ukatzen zuten, eta gelako kirten metalikoak dirdirarazten.

Errepikatu egiten ziren atsegin olatuak; eta maitasunezko aitorrak intziri zirrargarrien artean gesaltzen.

Plazer hutsez oratutako xamurtasunaren gailurrak das-tatu ditugu.

Aldameneko kaxkoaren gainean dagoen “Notre Dame des Passes” eliza xarman-teko erlojua entzun dugu: bostak!

–Antton laztana! –entzun dut–. Est-ce que je prononce bien ce mot que tu m’a appris cette nuit?

–La prononciation parfaite. Et le ton... sincère.

–Ne me taquine pas!

Eta barre egin dugu.

–Akitua nauk, épuisée. Baina zoriontsu ere bai, heureuse comme je n’ai jamais été. Essayons de dormir.

Neure besoetan hartu dut orduan, oso estu.

–Tu me fais mal! J’étouffe!

–Barka!

Eta laxatu egin dut.

Eta orduan, inoiz ahantziko ez ditudan hitzak entzun ditut:

–Nire biziera guztian egon den gertakaririk garrantzitsuena, zu izan zara. Ez dut sekula gau luze labur hau ahaztuko... Alabaina, inork ez du hau inoiz jakin behar. Bi ume ditut, eta dibortzio epaiketa baten zain nago. Otoi, Antton! Zurea naiz osoki eta betiko, eta hil arte izango. Ziur dakit... Halako batez munduaz osotara etsi baldin baduzu, tziauri nigana; eta hitz bakar hau igoriezadazu: “Moulléau”. Eta zugana joango naiz, edonora; eta naizen guztia jarriko dut zure esku. Je le jure. Comment on dit ça en basque?

–Zin dagit.

–Zin dagit, beraz.

Goizean, iratzartzean, besarkadak eta fereka leunak errepikatzen hasi dira. Baina Jeannettek ez du aurrera joan nahi izan.

–Ez, Antton. Ez dezagun miraria honda. Ne banalisons pas la merveille.

Eta altxa egin da, eta dutxara joan.

Ez dut jokabidea ulertu. Baina isildu egin naiz.

–Emakumeek guk gizasemeok baino aise urrutirago ikusten baitute –neure artean.

Moulleau-ko kaleak eta Arcachon-go golko barea begiratu ditut. Inor ez paseiari. Igande goizak, beti malenkoniatsu.

Muino borobilaren gaineko elizatxo xarmanteko kanpandorreak mezatara deitu ditu fededunak. Andere xahar batzuk inguratu dira poliki-poliki.

Les Buissonnets-enean bertan gosaldu ondoren, Py-la-ko duna famatura hurbildu gara; eta egurrezko pasabidetik gaineraino igo ondoren, luzaroan egon gara hondarraren gainean eserita, dunei eta itsasoari begira.

Gero hondar-muinopeko jatetxe batean bazkaldu dugu, hondarrez eta pinuz inguratutik, eta ostrak eta guzti.

–Il faut arroser cette visite, n'est-ce pas? –galdetu dit.

–Noski!

Eta, xanpainaz zerrepeltzen hasiak, nik uste, topa egin dugu, geure besoak harrigarriro kiribilduz.

“Izana izen gaiztoa” esaldi garratza bururatu zait.

–Ez oono, otoi! –neure artean.

Baina hasia zen nigan tristura hozitzen.

Arratsaldea laburregi: “larrazkenari бүрүз, egünak llabürtzen” hitzak entzun nizkion behin Amañí Gaxuxari.

Nire beribil kaxkarrean abiatu gara beherantz, Bis-carrosse-rako errepidea atzean utziz.

–Hemendik ibiliak dira noizbait gure arbasoak. Ez dago zalantzarik –esan diot.

Zerbait hautsi da.

Eta isilune iraunkor itsusia gailendu da gure artean.

–Niri besterik iradokitzen zidak arrats iheskor honen... –Jeannettek beti frantsesez–. Zoriona ezagutu dudala hirekin, eta ez dudala berriz dastatuko... Ez zekiat zergatik den. Beldur ikaragarria sartu zaidak hezurretaraino... Un presentiment, quelque chose d’horrible!

–Ez aipa, beraz! Orain, Le Moulleau-tik pasatzean, geldiunetxo bat egin zezakenagu Les Buissonnets-eneko kafetegian, golkora begira.

–Ez zekiat...

–Zer, beraz? Bai ala ez?

Zalantzan pittin batez egon ondoren:

–Ez. Eraman nazak trenera... Va-t-en vite, Antton!
Je t’en prie!

Eta geltokira sartutakoan, ez du burua jiratu.

“Agurtu ere ez... Ez dut ulertzen...”

Hustu egin da Arcachon. Nirekiko behintzat, osotara.

Hilerri mutu bihurtu da zehazki.

Ilunabarra gainean. Azkena ote? Zergatik, ordea?

Gogorra izan da agurra. Gogorregia. Besterik merezi nuen...

Eta Euskal Herrirako bidea hartu dut, ilunabarra abiaturik, eta Baionaraino iristeko indarrik aski izango ote nuen kezkatan.

Hamazazpi urtez iraun zuen neure presondegi-periplo oinazetsuan, ez nuen sekula ezertxo ere jakin Jeannettez.

Zehazkiago mintzatzekotan, hamabost urte izan ziren hutsak alde horretatik.

Hain zuzen ere, orain dela bi urte eskas, Valcornejako gartzelan nengoelarik, gure eskuetara iritsi baitzen euskal prentsa bilduma bat. Eta hartan, izaturik, berri hau irakurri bainuen:

Minbizi orokortu baten ondorioz, Alazne Olabarrieta Garzia borrokakidea hil da Bordelen. 1936ko gerlakoan Frantziara aldatutako euskal errefuxiatuen alaba, bere laguntza hutsezina eskaini die 20 urtez Baionako eta Bordeleko Amnistia-Batzordeei. Bi seme-alaba utzi ditu: Igone, 20 urtekoa; eta Eneko, 18koa. Alaznek nahi bezala, bere hautsen haizaketa datorren ostiralean burutuko da Le Moulleau-ko "jetée" delakoan, laku-ertzean, Arcachon-go golko famatuan.

Zausk egin zidan barrenak:

–Bera da!!

Baina ez nuen ezertxo ere esan. Eta ondoko asteetan frogatuz joan zenez, Ixaskunek berak ere ez zuen ezer sumatu.

Botaka ibili nintzen luzaz. Goizero gertatzen zitzaidan, jaikitzerakoan. Eskuin aldean, gibelean esaten zidatenez, oinaze zorrotza jartzen zitzaidan; eta behazun hori-horia botatzen nuen goragale bortitzetan.

Edorta eta Eulojio gartzelakideak kezkatu egin ziren, jateko gogoia erabat galdu nuelako.

–Jangartsu habil. Zer dok? Norbait ikusi beharko huke, Antton –proposatzen zidaten.

–Lasai. Pasako da.

–Eska ezak bertoko osagileak errezibitzea.

–Nahiago hil putakume horri mesede bat eskatu baino. Pentsatu ere ez!

Sukarra ote neukan kezkatzen ninduen. Sukarraldi batean, erdi lozorroan, Jeannette-ren benetako izena edo “Moulleau” hitza itzuriko ote zitzaizkidan.

Tristura itzelak ito ninduen luzaroen. Isildu behar hertsu hark leherketa punturaino eramaten ninduen batzuetan:

–Ez dut sekula berrikusiko... Ez dut berriz ikusiko... Baina, orenen gaintik, ez dut zipitzik esango. Hitz hitz!... Eta... joanak joan!

* * *

Gaur berton, 2000ko agor hondar honetan, honen-
beste urteren ondoren Le Moulleau honetara, bakarrik,
jota, oroitzapen atal histuak biltzekotan etorrira, Bor-
deleraino hurbiltzea bururatu zait...

Banuke, nik uste, bere bi umeekin bizi zen etxe har-
taraino iristeko modua. Ongi gogoan daukat helbide
hura, Quinconces-tik ez urrun.

Yvette alaba ikusi nahi nuke oso bereziki. Badituz-
ke emakume gazte honek amaren eitea eta keinuak...
Amets egingo nuke lipar batez... Biharamun goiza as-
ki nuke, ordutxo batzuk...

–Txoratu haz ala? –errepikatu diot lazki neure bu-
ruari.

Eta leizearen ertzean ibiltzeko ametsak oro moztu.

Eta Labartzara, Labartza-Barrira, ahalik eta goizenik,
eta betirako, itzultzea erabaki dut.

Egun-argiz etxera iristea jadanik ezinezkoa bazen ere,
gutxienez Landetako errepide zuzen amaigabeek soraio-
tu baino lehenago litzatekeela zuhurrena.

Labouheyren geratu naiz, lehenik; eta kafe bikoitza
hartu. Castets-en gero, gasolina hartzeko aitzakian. St-
Geours-de-Maremne... Baiona... Etxen!

Hots, Angelurako bidean barrena nindoalarik,
“Contrôle”. Gendarmek geldiarazi naute.

“Torcuatoren garaietan baino aise errazago joango
duk hau”, neure artean.

–Vos papiers, monsieur!... Ceux de la voiture aus-
si...

–Les voilà! –nik.

–Votre vieille Opel est presque vétuste... Elle roule encore?

–On la fait rouler. J’aimerais bien une “Mercedes”, mais je suis pauvre.

–Votre nom est donc... Iharrezougai...

Bigarren gendarmeak nire paperak hartu ditu eskue-tan, eta hobekixeago ahoskatzen hasi:

–“Iarcegay”, à peu près... Excusez-nous. Vos noms basques sont carrément imprononçables...

–Ihartzegarai –nik, lehortxo.

–Où allez vous?

–Vers Bilbao –nik.

–Ah, oui! Je vois! Labarthe, provinsia de Biscaye...

–C’est ça –nik. Ez zen unerik aiposena Labartza ez dela La Barthe argitzeko.

Isilune luzetxo bat ondoren. Eta azkenean:

–C’est bon. Vous pouvez continuer.

Eta kanta ezagunari ekin diot ozenki kotxearen barruan:

*zeren... zeren...
libertatea
zoinen eder den!*

VIII

Oso-oso gau txarra pasa nuen; lokamutsez gainezka oratua. Eta, benetan, Le Moulleau-ko gertakariak inoiz gainditzeko gauza izango ez nintzela pentsatzeko modukoak ziren.

Biharamunean, irailaren 23an, eta lau egun aurretik efemeridea eta ospaketak iragarritz, Txiki eta Otaegiren XXV. urtemuga kari, artikulu hunkigarri bat zekarren gure prentsak, foto apal batez hornitua:

Fernando Barrio Olano
Gudaria. XVIII. urtemuga.
1982ko Irailaren 27an
Okupazioko indarrek hila

–To, Antton; irakur egik –esan zidan Ixaskunek dendarakoan, eguneko bi egunkariak ematen zizkidalarik–. Ziur nayagok interesgarri izango yakazala.

Zauskada bortitza eman dit barrenak.

*Donostiako San Martin kaleko 51n –irakurri dut–
Perla-tik ez batere urrun, seigarren solairuan gertatutako
tirokaldi batean, espainiar poliziak, ohe baten atzean ba-
bestu eta ordenu-indarrak xixpoletaz mehatxatzen zituen
terrorista hil du...*

Nik Barrio hura ezagutu ez arren, gutarra baitzen,
gurea, gureetakoa.

“Ni izan nintekeen”... Zakur errabiatua bailitzan,
akabatua.

Goragalea sentitu nuen: neure buruaz eta giza pa-
tuaz.

Gau guztian barreneko lokamuts gaindiezinean,
Jeannette ikusten bainuen, eta Le Moulleauko zinak
berrentzuten... Eta ez besterik. Hots...

–Mila esker... Gero arte.

Aztoratuta, iparra galduta, neure langelan sartu naiz.

Eta apal haietan, euskal toponimiari buruzko arti-
kulu batzuk hautatu ditut, notak kontuz hartuz

Eta ordu pare batez gogoz lan eginda, beste hama-
bost toki-izen kokatu ditut pareta nagusiko mapatza-
rrean.

Honetaraz gero, Ixaskunek egingo zizkidan galderek
beldurtzen ninduten.

Nola ezkutatuko gaueko tema eta goizeko iragarpe-
na, elkarren parean, giza patuaren karikatura lotsagabea
direnik?

IX

–Zelan atzo? –Ixaskunek arrastirian afalaurrean.

–Hortik. Hortik ziar.

–Hortik, bai. Noski. Baia goixeko seietan urten heban etxetik, eta ozta-ozta gabeko hamabixetan itzultzeko... Lar. Eztok?

–Kontrola ala?

–Ez, ez. Baia hemezortzi ordutan kilometro mordoa egin zittekek. Bordelera yuan zittekek, edota Zaragozara, edo Soriarra, edo Covadongara...

–Et, et, et!... Hasieran ondo, amaieran oker... Zehatz erantzungo'eunat: 662 egin neutsan. Markagaillua zeroan jarri, bai, urtekeran; eta horrelaxe yakin yonat juxtu.

–Ta? Ondo? Nora yun haz? Eztok ezebe kondau biar?

–Ondo –nik lehortxo.

“Afari ixkintxoa izango dugu gaurkoan...”

Handik minutu batzuetara, nire eskaera artez etorri da:

–Bixar, domeka... Azkanengo aldiz (nik espero) mesede bat eskatu biar deunat, Ixaskun.

–Mesede bat? Azalpenik bapez, ta ganera kotxia barriro biar. Ezta halan?

–Bai... Opela biar neuken barriro.

–Barriro be “hortik” yuateko?

–“Hortik” ez. Gaurkoan doitasunez eta zehatz erantzungo deunat. Bixar, 24a, agorreko azkenengo domekia dala-ta, San Juan-Txikiko erromerixa famatua ospatuko'on Zelatun-en, Ernixo onduan.

Antzik ere ematen ez Ixaskunek.

–Irailaren azkenengoa izate'on yendetsuena. Joxemiel izeneko giputx jator bategaz izan nindunan ni bertan oin dala hogeitaka urte; eta barriro be hara yuan gura neuken. Oso oroitzapen ona yeukanat... Festa berezia don. Hi be etorri, gura badon... Denporia, bestalde, eskas honetatik ontzera ei yatorren...

–Itxi atxakixak albo batera, eta hartuik kotxia. Ni enon bapere mendizale, badakianez; eta hamentxe lotuko nok.

–Bada, eskerrik asko benetan.

Eta musu bat ematera hurbildu natzaio.

–Zek hartu hau, ordia? Hi betik “kardo” galanta izanda, eta oin... ohiko purrustadak eta zakarrerixak aiztu, eta... musu eske?

–Zer gur'on bada? “Kardook” berok bayeukanagu geure bihotzondo gurixa...

Irribarre egin dugu biok. Eta muxu labur bat eman diot masailean.

–Gero arte, amaxu!

Kostaldetik joan naiz. Ondarroa, Mutriku, Itziar, Zarautz, Aia; eta hemendik Asteasurako errepidea hartu, eta Andazarrateraino. Hemen eskuinera egin, eta Iturriozko Benta Zaharrera iritsi naiz.

“Hogeita hamar urte joanak. Zer bilakatu ote da Joxemiel hura?”

Kotxea aparkatzeko “lanak” izan ditudala ez dut esango. Baina hor nonbait.

Hura jendetza!

Aspaldidanik dokumentatzen den Benta eskerga horrek, badu planta!

Bi solairu gehi ganbara eta ukuilua. Egurrezko zuta-beak eta gapirioak ageri, etxeak badu halako “baztandar” kutsua, nolabait erretikula-sare molde hori zer den nik hemen azaltzeko. Dozena bat leiho etxaurrean; baita hauetako baten azpian eskualdearen erliebe-mapa bitxia ere.

Baserri dotorea benetan.

Baina nik (“guk” hobe, erromeson oste gaitzak, alegia) Zelatuna behar.

Gora joango baginen, hala ere, jaitsi egin behar lipar batez (“abiadura hartzeko ote?”); abiapuntua den San Juan baseliza beheraxeago dagoelako. San Juan esan dut. Gogoan har. San Juan, suteak, Eguzki berriaren festa nabarmen.

Batimendu hau ere ez zait batere arrunta iruditu. Ez tamainaz eta ez diseinuaz. Kasta badu.

Atari ojibala erdian, Iturriozko latsaren gainetik erakitako harrizko mailadi hirukun baten eskailera-buruan; eta bi leiho hertsu luzexka goian.

Ermitari harlanduak batera eransten dizkion gotortasuna eta xarma darizkiolarik.

Ezkerretan arku txapala dago, handik ur hotza dation iturburuaren begirale xume.

Teilatuaren gainean, azkenik, osotara herdoildutako burdinazko arku batetik zintzilik, ezkila zahar bat ikusi dut; behinola beilariei dei egiteko prest egona.

Kolore gorri, zuri eta berdezko xingola dozena bat erosi dut bertan, baita kandela luxe bat ere; eta aldapan gora abiatu naiz. Jendez lepo inguraturik; eta giroa hozkirri, ibiltzeko ezin aproposagoa.

Sagain-Zelaitik aurrera, bidea erpinde egin da. Eta Zelatuna bertaratu ahala, gero eta ozenago iristen zitzizkigun erromesoi, Ernio eta Gazumeren arteko zelaitik, garrasiak, soinu hotsak eta txistu aireak.

Teilaz eta harri mokorrez egindako borda xahar luze bat aurkitu dugu, txapala; baita beste hiru benta modernoago ere.

Anisezko erroskila zuriak han eta hemen salgai, bertan irazekitzeko kandelak; eta taloa, txingarra, gazta zaharra; eta ardoa eta sagardoa, ausarki. Eta kea, eta oliotan frijitutako txorizoaren usaina.

Eguerdi iria zen.

Ehunka lagun, gizaseme zein emakume, milaka esatea hobe, eserita zeuden jadanik belazean, multzoka; eta porroi bakanak eta zahato ugariak lehia bizian altxatzen zituzten.

“Zer da hau, gero?”

Ernioko tontorreraino igo behar nuenez, jate kontuak arratsalderako utzi ditut. Eta Benta luzeko “kafe beroa” hartu dut, derrigorrezko (omen) “pattar ttantarekin”.

Aurrean, tarteka mehatxu iduri, Ernioko arrokadia genekusan.

Aldapan gorakoan, ezkerretan, eraiki duten aterpe kaxkarrera iritsi naiz, dexente akiturik.

“Hamazazpi urte lau murrutzarren artean eman izana ageri da orain. Ez naiz gauza aldaparik igotzeko... Hau marka! Berrogeita hamar urterekin, eta aguretuta!”.

Goraino itritsitakoan, lehenengo gurutzarekin egin dut topo, hare-harriz oratutako lodiarekin.

Honen aldamenean, burdinazko uztai biribil “miraritsua”. Erromesak ilaran zain.

Erritua errespetatuz, beilari guztiek bezala egin dut nik ere.

Hasteko, koloretako neure xingolak zintzilikatu ditut; kristau modura mintzatzeraz, ukipenez “bedeinkaturik” gerta zitezten.

Eta gero neure gorputz osoa uztai biribiletik pasa dut. Alegia, uztai hura burutik sartuz, aldaketan beherra segi, eta hanketatik atera arte. Horra hor Ernion burutu beharreko “balentria” bitxia!

Eta, badaezpada ere, neure bi besoak eta neure bi hankak, banan-banan, pasarazi ditut.

“Hezueriaz, humoreaz, eta juntura-eritasun guztietatik sendatua hago jadanik, Antton”, esan diot hitzik gabe neure buruari.

Ni neu hura guztia sinesteko uzkur nengoen. Bai Jo-xemielekin estreinakoz igo nintzen hartan; eta are uzkurrago gaur.

Baina ikusi ditudan aurpegi batzuek, ez zuten zalantzarako ateka zabalik uzten. Berek *sinetsi* egiten zuten; Lurde-ko erromesek Bernadette Soubirous-en hartzuloaren aurrean belaunikaturik sinesten duten maila eta modu bertsuetan.

Gure aitona-amonen garaian –hantxe entzun dudanez–, ekainaren 23ko gauean, mendi tontorretan sutzarrak piztu ondoren, jende asko mainatzen omen zen Iturriozko uretan.

Eta goraxeago abiatu naiz, gailurreko gurutze nagusiraino heltzekotan.

Han burdinazko gurutze pilo bat aurkitu dut, hogei, berrogei, nik dakita zenbat diren. Material desberdinez gauzatuak. Eta batzuek, zortzikun, metalikoak, bazuten Nafarroako kateen eitea. Edo ikurrinarena, nahia-go baduzue.

Gurutze gehiegi, nolana ere. Gurutzeen kopuruaz “zerbait” estali edo desbideratu nahi izan balitz bezala.

Eta susmo honek pentsakor utzi nau.

San Juan-Txikiko erromeria jendetsu hau, baserrietan horren sakon eta zabal sustraitua, uda amaieran ospatua, preseski negua heldu denean, eta ekinozioak ilunaren garaipenaren gertutasuna iragartzen duelarik...

Gailurretako ermitak ez dira inguru hartan eskas.

Arestian Iturriozkoa aipatu dugu. Baina Gazumez bestaldean, eta Errezilgo lurraldetik irten gabe, Bedamako auzo urrunean, Erdoiztako ermita zuri borobila ere badago. Berau San Isidroren gurtzan erabilia.

Gipuzkoako “mendi mistikoa” Ernio, fama denez. Eta horrelako zerbait sinestekotan harrapatu dut neure burua.

Gailurretan bizi baitziren Mari eta gainerako euskal jainkosak. Eta gurtza zaharrak erauzi ezinean, gain horiek “kristautzea” pentsatu bide zuten behinola gure agintariek.

Zelatungo erromesek ez dakite hau guztia. Noski.

Baina, beti bezala, “gure asaben ildotik” jarraituz, kolpatzen gaituzten eritasunetatik libratzekotan... uda amaitutakoan Erniora behar horrek besterik iradokitzen du; niri behintzat bai.

Gaur ere, antzina bezala, gipuzkoarrak trumilka igotzen dira Zelatuna. Eta igandez igotzen, hain zuzen.

Eta han dantza ulergaitzak egiten dituzte ilunabarrera arte.

Gogoetatsu begiratu ditut bazter berde zabalak eta baserri zuriak. Ia-ia Valcorneja-tikako hegazkinetik, lainoa nagusitu ez zeno, ikusi nituen bezalaxe.

Borden zelaira itzultzean, txingarrezko otarte luze horietako bat erosi dut. Eta belazean eserita zegoen gazte talde baten ondoan eseri naiz.

–Hartuko al duzu txurrutada bat gure zahato honetatik? Bikaina dago. Frexko. Ardo politta duzu.

–Tira ba! Bai horixe! Eta milla esker.

Txistua eta danbolina ez ziren isiltzen; eta azkenean neronek ere, aspaldiko partez, eta horrelakorik lortzeko gauza izango ez nintzela uste nuelarik, dantzatu egin dut luzaz, gazte (eta ez horren gazte) taldekoekin.

Eta kidesan harrigarriak anaiturik, marrantatu arte kantatu dut berekin.

Hasieran “Salamanca ninjoalarik, bidian nuen pen-tsatu”, eta horrelakoak.

Baina gero berotu egin gara; eta marrantatu arte kantatu dugu elkarrekin beste aire ezagun hau, erritmoa makilez eta botiletan joaz:

*Aupa gizona, jaiki mutil,
atzar emazte ta neskatil,
borrokarako dei egiñaz
irrintzi bat dabil:
Euskal Herriya diyagu zai,
presoak eta hillak ere bai,
abertzale izan ezkeru gaur
gauden denok anai.*

Gazume atzetik zerua gorritzen hasten zen, eta Ze-latundik Iturriozko Bentara abiatu naiz.

Desberdin sentitzen nuen neure burua. Mainu ez-kutu bat hartu izan banu bezala edo.

Eta, pitin bat aztoratuta, baina arbasoekin nolabait elkaturik egon nintzela sinetsita, Labartza Barrirako bi-dea hartu dut.

X

“Barruan” prestatutako zerrenda beti neure pausoen gidari, handik bi egunera, iraileko azkeneko asteartea zenez (*Martitzen Munarrixe* labartzarron artean) hileroko azoka tokatzen zen Labartzan.

Ez nuen nik aspaldi hartan azokarik ikusi.

“Dantzan” eta “Torcuato”z mozorroturik ibili nintzen hiruzpalau urteetan, ez nengoen ni merkatu eta azokatarako. Beraz, baliteke 1970az geroztik edo ez azaldu izana.

Hots, banuen gogoia, gartzelaldi luzean barrena azkartua, neure herriko geltokiaren inguruetakora berriz azaltzeko.

Bai herenegun Zelatungo erromeriara bultzatu ninduen, eta bai gaur Labartzako merkatura bertararazten ninduen bulkoa, jatorri berekoak dira funtsean.

Orain gardenkiago ikusi uste dudanez, nolabait, kutsatu gabeko euskal jendaldearekin egin nahi nuen topo.

Badakit “kutsatu” hitza ez dela seguru aski guztiz egokia.

Agian erdaldundu gabeko euskal gizartearekin mintatu ahal izatea zen nire eragile ezkutua. Ez naiz aitortzeaz lotsatzen.

Jose Maria Arguedas ez zen ketxuatar aberkideez baxterez lotsatu.

Valcornejako Enrique sudurgorria eta antzeko piztia higuingarriak hamazazpi urtez jasan ondoren, gure herria oraindik neure buruan bizirik egoteaz gain, plazan, Seiabideko azokan, kalean, bizirik zirauela egiaztatu behar nuen.

Areago Elexoste Ikastegiko talka ezin adierazgarriago hartan gertatutakoa iltzaturik neramala kontuan hartuta.

“Gure kontuak” okerrago bide daude, egia aitortuko badugu, han “barruan” uste genuen baino.

Labartzako Azoka, hau banekien, goiz irekitzen zen; eta eguerdirako-edo, baserritarrek salgaien bilketa hasten zuten. Beraz, seietan jaiki, eta egunsentia ozta-ozta hozitzen hasten zelarik, geltokiaren aldera jo nuen.

Ateri zegoen. Eta goiztiri gorri-gorria mamitzen ari zen Labargane eta Jentil-solua aldetik

Kaioak eta antxetak, normalean baino karrakagileago, Azoka gaineraino, are Hegoalderago ere, azaldu ziren aldra handitan.

“Goiz gorri, arrats euri” esaera ezaguna gogoratu zitzaidan.

Baina biharamunean eguraldia eskastuko bazen ere, berdin zitzaidan, Moulleau-ko bisitarakoan eguraldi traxabarik izan ez nuenez.

Eta Herriko Tabernako ekitaldira joateko asmorik ez nuenez (bigarren aldiz astebetean “larregi” izango zela-koan), etxetik ez irtetekotan nengoen. Zerbait irakurri, gehienez Ondarrondo pasealekura jaitsi, eta kito.

Gure Gudarien Eguneko ospaketara ez azaltzea mingarri zitzaidan. Saldukeria ere bai.

Ander Iturriagarengatik sentitzen nuen; eta, beharbada areago, beronekin batera joan den asteko harrerakoan ongi etorria eskaini zidaten Hilaixo dantzaria, Juxto, Joxemai eta gainerako gazte suharrengatik.

Baina, zer diot? Eta pareta baten kontra fusilaturik hil ziren Txiki eta Otaegi martiriek ez ote zuten merezi urtero beren sakrifizio latza gogoratzea??

Ikaragarria zen nire hautua.

Azalpen sakon bat eman behar nion Anderri. Jakina. Eta bide bakarra egia aitortzea zela erabaki nuen.

Aitorpen edo dena delako hau bi ataletan aurkeztuko nion.

Bata, bolada batez, hilabete pare batez edo, “distantzia”, urruntasuna, hartu *behar* nuela, hartu nahi nuela. Neronen burua bere lekuan birkokatzeko denbora apur bat behar nuen, eta nitaz kanpoko egoera xuxenago neurtzeko ere bai.

Eta bestea, presarik gabe, berarekin sakonki mintzatu nahi nuela adierazi nahi nion, enpresaren eta borrokaren eboluzioaz. Baina, berau zentzuz egin ahal izateko, hain zuzen, aste batzuk hartu ondoren nahiago nukela burutu.

Eta jaiki baino lehenago, gelako isilean, itsas orroa azkartzen ari, hausnartutako ideia hauek etengabe nerabilzkielarik, jantzi, eta Seiabide 3rantz abiatu nintzen.

Geltokira iritsi baino askoz lehenagotik, merkatutik hedatzen zen zalaparta entzun zitekeen. Animalien marruak, marrakak eta arrantzak zetozkidan nahasian; baita inguruetan barreiatzen zuten usain berezi hura ere, lasto bustiak, bekorotzak eta zaldi-gernuak batera osatua.

Seiabide 1eko Bentazarreko ekialdean, nolabait izkina egiten zuenean (beharbada horregatik ez nintzen gaur arte konturatu), harrian zulatutako ildoan irakurgarri, euskal hitz hauek ikusi ditut: *zeyan echea, urrezko echea*.

Baliteke nik haurtzaroan amama Ixoneri “zeia” berba entzuna izatea. Baina inoiz entzun baldin banion ere, ez nintzen jabetu. Gaur bai. Gure arbasoek, izkribu horretan argi azaltzen zenez, ez zuten “merkatu” berba idatzi, eta “azoka” berba bera ere ez. *Zeia* zaharra, hain zuzen.

Bat-batean, lehengoan Zelatunen bezalaxe, oso aspaldiko zerbaitekiko “lotura” lortu nuela iruditu zitzaizdan:

–Seiabide... Zeiabide. Errioxan ere, egun hauetan ikasi (eta mapan markatu) dudanez, *Zeiazarra* esaten zioten gaur Sajazarra bihurtu denari.

Bihar ez, arai. Baina noizbait kontu hauek aipatu beharko dizkiet Arranoko lagunei. Seguru asko ez dakite. Axola ote?

Salgaiak (“jeneruak” herrikoiago) haritzondoaren atzeko barruki luzean jarrita zeuden, bi ilaratan. Eta nik mutur batetik bestera kurritu nahi nituen biak.

Gazta saltzaile mordo bat topatu dut aurrenik. Eta ni begira lipar labur batez gelditu orduko, galdera etorri zait:

–Puxkat gurozu? Tori, tori hau! Onna eurtongo gaztaie!...

Ezezkoa eman nahi nik, ordea, erosketak oro Ixaskunen eskuetan uztea bidezkoago zelakoan.

–Bai. Egixa dozu. Bikaina! Baia...

–Baia, zer?

Aurrera jarraitu dut. Ondoan *Izal-ko gazta* dastarazi didate; eta aurrerago Baigorritik etorritako bat.

Ogi saltzaile mordo bat aurkitu dut segidan: ogi beltzezko opil borobilak, flमित्‌xeak, tremesak, euspeko sorginak, eta “uruna” zakutan... Nik dakita?

Eta babarrunak, dilistak, babak. Eta buztarriak, espilak, sardeak, pentsu-zakuak.

Eta tresnak, aizkorak, atxurrak, segak, igitaiak; eta kateak, tamaina guztietako katenbegiz osatuak; eta gaikoak, eta...

Baina nik, gaur, Mateo Zugasti 33an, zertarako behar ditut? Ez ditut tresna horiek behar. Eta handik honako ilaran zeuden abereak begiratu nahiago nituen.

Oiloak topatu ditut, horretara, builaka; erruleak, eta berauen arrautza freskoak, zumezko saskitan ikusgarri. Askotan, gupidarik gabe, hanketatik hirukotan eta laukotan elkarri lotuta, botata zehazkiago.

Indioilar galantak ere ikusi ditut, eta ahateak (ahatekume gaxteak karioletan preso, eta beste batzuk errukirik gabe hanketatik elkarri estekaturik).

Eta ilarako mutur batean, txakurkume beltz mor-
doxka bat topatu dut.

–Gaztiak, ee? –galdetu dut.

–Bai. Ointxe bete daurie beren hillebete t’erdixa.
Hauxe dozu ama.

–Artzain aleman dotorea, bai –nik.

Begira gelditu natzaio. Bera konturatu, eta zaunka
gaiztoan hasi zait.

–Bat hartuko’ozu? Besotan, bai... Tori hau... bai...
holan... hartixu lasai! Artzain alemanak ez baino “belgi-
karrak” dozuz.

–Bai, bai. Ikuste’ot. Hanka hori lodi honeik, eta
gain baltz hau... Edarrak, bai.

Altzoan neukala, erotu bezala egin da txakurku-
mea; eta, nire aurpegiraino igota, miazkatzen hasi zait.

–Eru hori!... Baia... baia... kontuz, hi! –errepika-
tzen nion nik.

Alferrik, ordea. Hura poza!

–Merke emongo’utsut: bost mille pezta.

–Ezin. Pixu baten bizi naz. Eta eroan ezkerro, ez be-
ra eta ez ni pozik. Benetan sentitze’ot.

Allikene etorri zait gogora, indarrez.

Eta Baltza gizarajoa bereziki, beti etxaurrean katea-
tuta.

“Honelakoxea zen hura ere ni umea nintzenean”.

Penaz bihurtu diot txakurra.

Eta aurrera jarraitu dut.

Kanpo alde hartan, errepide azpiko tunelaren inguruan, azienda zegoen salgai: zekorrak, ardiak, ahariak, txahalak, antxumeak, zaldi pare bat, asto umil bat:

“Gure Astokoren anaia dirudi honek”.

Bekorotzaren eta gernuaren kiratsa, hazkor.

Allikene ere, nigan gailen.

Behi batek begiratu dit. Emazteki begirada leunaz so: “Aspaldidanik ikusi eztako lagunak”.

Joan egin behar.

Arranoko aurrealdean, ikurrina zabal-zabalik.

Besteak beste, niri ere deika, banekien.

Atean karteltxo bat sumatu dut. Baina ez naiz irakurtzera hurbildu:

–Ez, eta ez –neure artean–. “Distantzia” hartu behar dut.

Eta “Inmo-Viz” auzoko lau bloketzarrak ezkerretan lagata (paraje horri ez diot nik “Zelaia” deituko), San Telmo hondartza eta itsas aldera jo dut Dorre kaletik.

13aren ondotik pasaeran, *Academia Elejoste*-ren plaka topatu dut.

–Shit!! –atera zait oso barnetik.

Hasia zen jadanik zerua goibeltzen, eta giro osoa iluntzen.

Ostera be, egia izan du atsotitzak.

Gaurkoan “arrats euri”.

XI

Esan eta egin.

Irteeraren ondoko jorana eta urduritasuna pasata, neure bizimoduari beste patxada bat ematera deliberatu nintzen.

Bestelako hitzez, benetako bizimodu *berriari* ekitera.

Bisitatu beharrekoen zerrenda neukan beti zain. Baina handik aurrera polikixeago nahi nuen. Eta aspaldiko erdi ahanzturan zeutzanak, are mantsoago.

–Ostera be biarko dok Opela hurrengo txango misteriotsuak burutzeko? –galdetu zidan Ixaskunek.

–Ez, ez.

Atzerakako neure bidaia-egitamu ezkutuan, beste helbururen batzuk banituen. Baina hauen gertalekua, adin txikiari zegokionez, urrunenik Atxetan zegoen; edota bestela, eta maizenik, Labartzan bertan ibiliko nintzen. Onilean bezala, jiraka bai, baina gero eta isur-mutturretik bertago.

Bidezkoa zen, beraz, Ixaskunen beribilaren beharra ahitutzat ematea. Labur: gaztaroan, eta areago nerabezaroan, nik ez neukan kotxerik; Allikenen aitak “fotin-

go” bat izan bazuen ere, ez nuen nik inoiz gidatu. Eta Ixaskunek ere ez.

Trenari atxikitako oroileku nagusi batzuk bazeuden, nire kondaira hau irakurtzen duenak dagoeneko egiazta-tu duenez. Baina, oro har, nire nerabezaroan, eta areago nire haurtzaroan, Labartza bera izan zen nire bizigunea. Onerako eta txarrerako.

Eta, oso gogoz, baina barruan halako ximiko batekin, urteetan hainbeste aldiz egondako Sagarminaga Kulturunera azaltzea pentsatu nuen.

Hemeretzi urte baziren jadanik hara azaldu gaberik.

Bertako Zuzendaria lehengo bera dela esan zidan Ixaskunek: Endika Ozamiz markinarra.

Arrebarekin egindako “garkulu”en arabera, 58 bat urte ditu gaur.

–Kulturunea oso mejoratuta yagok. Ikusiko’ok. Atxetan etxuek holangorik eze’be. Harro egon gaittezek la-bartzarrok. Arratsaldeetan egoten dok zabalik.

Elexoste-ko plastaren ondoren, baneukan nik hala-ko harra edo...

Plaza Barrira hurbildu naiz horretara bazkalondoan (urriaren 4an, nik uste). Eta, Udaletxeaz bestaldera, bal-koian eskegitako ikurrinak agurtu nau.

Irakurgelara igo naiz, lehenengo solairura.

Bi letrero sarrerakoan: *Ez erre* bata; *Isilik* besteak.

Zurezko bantzua berriturik, ene ustez; eta eskailera gaineko lanpara, hau ziur, berria eta dotorea.

–Egun on!

- Baita zuri ere! –neska gazte batek.
- Ozamiz jauna ikusi nahi nuke.
- Hor da, bai. Noren partez esango diot?
- Ihartzegarai. Antton Ihartzegarai.
- Itxaron apur batez, mesedez.

Informatikaren eragina agertu zait nabarmenena. Pantailak, inprimagailuak, ohiko teklatu urdinxka luzeak. Faxe ere bai beste mahaitxo batean...

“Nire *dantzaldia* baino lehenago hemen ez zegoen ezer horrelakorik”.

–Kaixo Antton! –agurtu nau Ozamizek bero-bero, ozenki, nire katramilen katea etenez—. Zelan zagoz?... Ene! Zenbat urte!

–Hemeretzi bat, nik uste.

Bera zen, bai. Baina dexente burusoildua; eta gilborra galanki hazia. Burua borobildu egin zaiola esango nuke.

Ahalik eta laburkienik kontatu dizkiot Labartzatik “desagertu” ondoko neure kontuak.

Interes handiaz aditu du dena. Begiradan eta denean gure artean “zerbait” elkarrengana bazebilela iruditu zait. Nolabait, nire esanak heldu egiten zitzaizkiola.

Hemendik aurrera zer asmotan ote nengoen galdetu dit. Eta gero, oso kontuz halere, espero edo beldur nintzen galdera bota dit:

–Zertan lotu zen doktoregoa burutzeko zure xede hura?...Orain bakea badozu... Eta dokumentaziñoa be bai, ugari, Internet-ez lor daikegunaz gain, Bizkaiko

Geografiari buruzko ikerketa interesgarri bat burutze-ko...

Haria erabat galduta daukadala azaldu diot. Ikaste-ko gogoia (are beharra ere) badauzkadala; baina...

–Belu da, nik uste –esan diot.

–Zenbat urte dozu orain?

–Berrogeta hamar.

–Berrogeta hamasei nik –erantzun dit–. Ezta beran-tegi... Ezetz, benetan! Lagunduko'tsut nik. Gasteizko Geografia-Historia Fakultatean be, lagun onak dauko-daz. Pentsa'izu lasai. Zerbait eingo dogu.

Zerua zabaltzen ari zitzaidala iruditu zait. Baina, ba-tera, halako txorabio batek harrapatzen ninduela.

–Bakarne Pagalde agurtu dozu? Usansoloztarra da.

–Bai. Sarrerakoan egin dot.

–Berak pe lagunduko'tsu.

Eta, bere hitzei jaramon berezia eman nahiz edo, ho-nela mintzatu zaio neskari:

–Antton Ihartzegarai “Allikene” dozu zeure begien aurrean. Aspaldidanik gure laguna. Kulturetxe hau go-rago jasotzen lagunduko gaitu.

–Urte askotan, jauna –Bakarnek niri begira.

Neskatila meharra, txikia; baina atsegina eta bizia iruditu zait. Hogeia bat urtekoa, itxuraz. Baina heldua-goia seguru aski.

–Orain gure kulturunetxua erakutsiko deusut. Ezta larregi aldatu. Libururik gehienak beheko solairuan itxi doguz. Eta orain gagozan honetan irakur-gelia emon

dogu, baita hemerotekia be. Ikuste'ozunez, irakur-mahai bakotxak bere argixa dauko.

Prentsa askorik jasotzen ez dutela azaldu dit. Egunkari "gitxitxu" bere hitzez.

Baina nik segittuan ikusi ditut, gutxienez, *Gara* ("eta lela *Egin*", zehaztu duenez), *Egunkaria*, *El Correo*, *Le Journal du Pays Basque*, *Deia*, *Diario de Navarra*, *El País*, *Le Monde*.

Eta, geroxeago egiaztatu dudanez, euskal astekari eta hilabetekari mordo bat; erakusgailuan hautagarri. Eta kanpoko erdal aldizkari ospetsu batzuk: *Le Monde Diplomatique* eta *The Guardian Weekly*, adibidez.

–Eztao bapere txarto –esan diot.

–Ahal doguna egitten dogu. Jaurlaritzak, Diputaziñoak eta Labartzako Udalak laguntza eskaintzen deuskue...

–Askikoa?

–Itxi daigun hori hurrengorako... Euskal aldizkari askok, berentzako zabalkunde gisa harturik, ezteuskue ezer bere kobratzen.

Materialari begira geratu gara biok isilik. Mahaietan bi neskatila eta mutil bat eserita, orrialde handitako karpeta eta makina bat boligrafoz inguraturik.

–Goixan billera aretoa dago. Goazen!

Sartu gara.

–Margo horretako yaun hori ezagutzen dozu? –galdetu dit Endikak, gelako pareta nagusian zintzilikaturik agertzen den pertsonaia eskuaz seinalatuz.

–Baietz uste’ot. Txarto ezpanago, Fidel Sagarminaga foruzale bizkaitarra da.

–Oso ondo! Bera da, bai!

–Eztot merezimendu handirik. Orain dala hogeit urte be, hemen nunbait egoan margo hori. Horregaittik asmau dot.

–Halan-da bere, ondo! Eta beraren liburu nagusiak hamen dagoz. Behean itxi doguzan apaletan dozu, esate baterako, Bizkaiko bere Historia ezaguna, zortzi liburukitan. Gure bilbotarra jakintsua zan oso.

–Zer ordutan zabaltzen dozue?

–Egunero ordu batean hasi, eta gaueko zortziak arte. Zapatuetan, aldiz, (“larunbatetan” hoba, ezta?) goizean bakarrik. Noiz hasiko zara etorten?

–Bixar... eguena (“osteguna”, parka)... bixar bertan hasiko.

–Ederto. Gura dozunerako, non nagoan badakizu. Bakarneri galdegin, bestela, eta gura dozunaz eta gura dozunean jardungo gara.

–Milla esker.

Hau guztia datu garrantzitsua iruditu zait neure bizimodu *barrixa* antolatzeko:

“Goizetan, libro; arratsaldeetan, berriz, Kulturunera, irakurtzera eta ikastera”, neure artean.

–Gazte yendea etorten da. Batez be azterketa aurreko egunetan. Azterketa ostekoetan... hutsa egoten da hau!

–Noski!

–Beste gauza bat. Urteteko badagoala beste ate bat Kandido Saseta kalera.

–Ez nintzen gogoratzen.

Eskailera hori askoz apalagoa da, plazatik sartutakoan aurkitzen dena baino.

–Hortixek urtengo dot.

Kalera irten, eta itsas haize bolada fresko batek agurtu nau ezkerretatik. Beste kaleburuan, eskuinetik, azokagunea eta trenbidea sumatzen ziren.

“Banoa kresala hatsartzera”.

Eta hondartza gaineko Pasealekutik hurbildu naiz etxerantz.

Berriro ere, Uruburu-eneko zuhaztian barrena heldu, Debussy-ren “Clair de Lune”ren arpegio magikoak entzun ditut.

Itsasoa azkar zegoen, orrotsu.

Ilunabarra mamitzen hasten zelarik, geratu egin naiz apur batez.

“Ez dut errepikatuko –neure artean–, baina ezinak tristerik uzten nau”.

Etxera eta gero, galdetu egin diot Ixaskuni pianoaren kontuaz.

–Bistaz ezagutzen yuat, bai. Maitena Uruburu dok pianistia, hogeta bost bat urtekua. Oso ondo yoten yok. Eurton amaituko ei yok karrera Bilboko irakasle bategaz.

–Maixugo horren laurdena be hartuko neunken nik...

–Neu’pe bai, majo! Holan yotia gatxa dok. Horretarako, bai, Antton. Horretarako belu dok. Etsi egik!

XII

“J’ai visité le pays de ma jeunesse”, esan zuen poetak.
Eta nik ere bisita horixe egin nahi nuen.

Jakin banekien-eta noiz eta non jaio nintzen neure gaztarora.

Eta orain, hain zuzen, gartzelaldiak iradokitako bidaia kontra-kronologiko bitxi honetan ibiltari, hara nahi nuen bihurtu: “Maintenant c’est moi qui veut visiter le pays de sa jeunesse”.

Aspaldiko gertakaria zen: 1967ko martxokoa. Atxetan mamitua, lehen auzo herrian; eta ez Labartzan bertan.

Hamazazpi urteko mutila nintzen, “pipiolo” bat, nerabezarotik irten berria. Eder samarra; geroenean, eta berandu, igarri nuenez.

Udaberri hartan dena zitzaidan irribarretsu eta kantari.

Gauza bakar bat “ments”, Altzaiko Amañí Gaxuxak esaten zuen bezala.

Begirada bat hobe.

Ohera joan, eta begiratu hura falta. San Telmo hondartzara hurbildu eta, itsaso urdina ikusi beharrean, begirada nabar txinpartatsu bera urrunean, atzean, oster-tzean.

Eta lotarakoan, loak hartu ezinean hobe, izen bat maindirepean behin eta berriz ahapeka ahoskatua: Tene.

Tene Pertika, niretzako zoritxarrez, Atxetan bizi zen; eta ez Labartzan. Batetik bestera, badakit, sei kilometro besterik ez dago.

Allikeneko etxaurretik Ubago erreka gaineko zubi-txoaxa pasa, Atxetako errepeidea hartu, eta, eskuinera eginenez, hogei bat minutu txirrinduz. Edota, oinez, ordu eta laurdena edo.

Herria inguratu ondoren, Mendebalderantz, Bildosola Parkea. Ametz, lizar, pago eta artez betea. Eta beltzargen urmaela behean.

Parkea blai eta istiltsu zegoen aste haietan. Nahiz, horregatixek, usain ederretan murgildua.

Ez zen kontraste makala, hain zuzen, Atxetako Kontserbategiaren ondotik pasatzean aditzen zen kirats okaztagarria, eta, handik hiruzpalau minutura, hedaturik eta nagusiturik aditzen zen parke urrin sorgingarria.

Baina 1967 hartan, negu ustel eta umela izan genuen; eta eurite aspergarriak bospasei astez iraun zuenez, lohia genuen edonon: bai gure Allikenen, eta bai non-nahi.

Banekien nik, Tenek berak esana, goiko zelaitxo bobileko aulkietako batean eseri ohi zela; eta han nobe-

lak irakurri ohi zituela. “Luzeagoak, eta hoba”, berak zioenez. Nobelak edo zernahi, gainera.

Aurreko udan (1966koan) ezagutua nuen, ia-ia ume-moko purtzilla nintzelarik.

Trenez etorri ohi zen San Telmo hondartzan bainatzera bere lagun batekin. Batak eta besteak, nik bezalatsu, hamasei bat urte zituzten orduan.

Beren poltsekin eseri ohi ziren hondar lehorrean, beti leku bertsuan; erantzi, buru-txano zuriak jarri eta, eskuaz uraren temperatura neurtu ondoren, odol hotzeko animaliak bailiran, murgil egiten zuten batere trikatu gabe.

Gero koloretako xukaderak hondar gainean zabaldu, etzan, eta eguzkitan belzten egoten ziren.

Tenek beti izaten zuen libururen bat eskutan; lagunak, aldiz, Sorne izenekoak (baina deitura ahaztu egin zait) *La Gaceta del Norte* egunkaria irakurtzen zuen.

Bigarrenak (Sornek, alegia) amorrua ematen zidan.

Alde batetik, Tene nolabait kontrolatzen zuelakotan; eta nirekiko barradera egiten.

Eta, bestetik, *La Gaceta* irakurtzen zuelako. “Ezinbestean” gure aitak azaltzen zuenez, Allikenen guk *El Correo* irakurtzen genuen, “nor hil dan yakiteko”.

Baina *La Gaceta*-n, fama zenez, gerra bukatu ondoren, eta bera osotara aguretuta zegoenean ere, Bilboko Café Arenal delakoan (Café Pachoren ondoan, eta Arriaga Teatro famatuarekiko aurrez aurre), López Becerra *Desperdicios* pozoitsuak prestatzen zituen bere eguneroko kronika anti-euskaldunak.

Eta “horrenik esertxu be ez gure etzian”, errepikatzuen Johaneshartzegarai gure aitak.

Tenek ez zuen sekula *Gaceta* bere eskuetan hartzen. Oker ez banengoen.

Emakumeekin herabekerietan ibiltzea kaltegarria omen delakoan, neronek ere neure xukadera urdin luzea hartu, eta beraien ondoan esertzen hasi nintzen. Beren artean oso hitz gutxi egiten zuten; baina euskaraz ari ziren. Inguru hartako bizkaieraz preseskiago.

Lehenengo egunetan irriño batzuk egin zituzten biek niri begira. Baina gero jiratu, eta bestaldera begiratzen zuten.

–Kaixo! Zelan zabize? –galdetu nien halako batez.

Isilune bitxi bat sortu zen gure artean.

–Zer? Eztozue ezer be erantzun behar ala?

Bigarrenak, Sorne zeritzonak:

–Ez. Mutuak gara bixok.

Eta barre algara egin zuen. Baita segidan Tenek ere; eta neronek azkenik.

Jaiki dira, gomazko txanoak belarrien gainetik lotu, eta “bigarrenak” eman du azalpena:

–Uretara goiaz.

–Beraz, etzarie guztiz mutu... Gaitz erdi!

Eta hasperen itxura egin nuen.

Itsasotik itzultzean, txanoak kendu, beren gorputz kielikagarriak xukaderaz lehortu, eta etzan egin dira. Gaurkoan gora begira, bai, baina hondarraren gainean, eta xukaderak gona gisa aurretik izterren gainetik jarrita.

Pixkanaka, eta ondoko egunetan gure elkarrizketa mamitsuago bilakatzen zelarik, haien berri jakin dut.

Haien izen-deiturak, hasteko. Pertika zen Tene. Eta zenbait aldiz begiratu iheskor bat eskaini zidan, baita hitz bat edo beste ahoskatu ere. Eureka!

Telefonoen zenbakiak, aldiz, inola ere ez.

–Eztogu guk telefonorik. Ez Tenek ez nik.

–Ezta egixa.

–Egixa da, bai. Telefonorik eztogu.

–Eta non bizi zarie?

–Atxetan.

–Bai. Hori badakit. Baia non, zein kaletan?

–Ezin doguz dato horreik emon –beti Sorne mintzo–. Gurasoak eztabe gura guk ezezaguneri esatia.

Eta barre algaraz hasi dira biak.

–Gurasoak debekatzen, eta zuok amen esaten?

Egünak joan, egünak jin, udatea pasa, eta ezjakinean gelditu nintzen.

Hura marka!

Artean, dena dela, lauzpabost hilabete joan ziren.

Eta ahaztu ez, ez horixe!

Baina Teneren irudia, ahotsa, hoztu, histu, ezabatu egin ziren dexente.

Topatzeko bide bakarra neukan, esperantza mehearen arren: Bildosola Parkera ni agertzea. Han irakurtzen egoten zela itzuri zitzaion behin Teneri, bai?, eta aukera xume horri heldu beharko.

Bestenaz, zer egingo? Udara arte zain?

Halako batez, martxo hasieran, egun epel argitsua atera zen. Eta nik txirrindua Allikenen hartu, eta Atxetara jo nuen.

Itsasoa bare zegoen.

“Eguraldiak behintzat ezeri ez dio zorrik”, pentsatu nuen.

Bildosola Parkea ederra zegoen; eta istilak eta lokartzuneak nik uste baino hobekixeago zeuden. Lehorrago, alegia. Goiko zelaitxo borobilean batez ere.

Zuhaitzik gehienak, hori bai, biluzik oraindik, historik gabe (ez denak, kasu). Eta asko eta asko kimatzen hasiak.

Bat-batean, zausk egin dit barrenak:

“Bera da!! Tene!!”...

Bihotz taupadak, takikardia betean, izutzeko moduan arintzen zitzaizkidala erreparatu dut.

Galtza argiak zeramatzan; eta gainetik neguko txamarra marroi bat. Buruan, azkenik, zapi gorri-urdin-zuri bat.

Eseri egin da, eta eskutan zeraman liburua zabaldu du.

Txirrindua gidoinaren erditik heldu, eta alboratu egin natzaio.

–Kaixo, Tene! Nigaz akordetan?

Nire taupadak berak entzuten ez ote zituen galdetu diot neure buruari. Hura ondoeza!

–Atxeta aldera zu? –Tenek.

Eta gorritu egin da erabat; nik nahi, eta berak nahi ez zukeen heinean. Buruko zapia aurpegira eraman du diximuluaz; baina alferrik.

–Zure ondoan yartea axola yatzu? –nik galde.

Ondoren isilune bukagaitza.

–Ez, ez. San Telmo hondartzan be, alkarren onduan yarten giñean, ezta?

–Hoba!

Hitza esan orduko damututa ni.

Zer irakurtzen ari zen galdetu diot.

–Askotan erdarazko nobelak irakurtzen dodaz. Gaur ez. Tori, tori. Eta zeuk ikusi zer den.

Juan San Martin eibartarraren *Eztenkadak* liburua zen.

–Oso barragarrixa da. Eta ganera, gu bizkaitarrontzat, errazagoa.

–Zeuk erosi dozu liburua?

–Ez, ez. Aittak eroan dau etzera. Eta nik... ostu egin deusat!

–Ostu?

–Ostu, bai. Nik eztaukot dirurik.

Eta barrez hasi da algaraka.

Eta nire ilunpe karroindatua lurmentzen hasten zela iruditu zait.

–Eztenak iñori sartzeko ziri billa edo?

–Eztakit.

–Ta... zure laguna, non da?

–Gaur Bilbora yoan da, amagaz.

–Suertia izan dot!

“Txarto esana –segituan, neure kolkorako–. Ez nu-
keen hori horren nabarmenki aitortu behar. Orain...
izorradi! Damua garaiz, mutiko!...”

–Suertia, zergaittik? –Tenek galde.

Isilik gelditu naiz. Zer erantzungo?

–Hargaittik! –jaurti dut azkenean.

Eta oraingoan biok egin dugu barre, ozenki.

–Paseotxoren bat eingo al dogu parketik?

Hura kezka nirea! Baina hura irmotasuna kanpo-
tik!

–Tira ba, goazen.

Parkeko urmaelean hiru beltzarga zuri, polliki ige-
ri, eta ahate arrunt mordoxka bat. Txolarre eta usapal
ez gutxi inguruetan, peskizan, zer “jausiko”.

Azkeneko mimosa horien urrina sarkor. Ur ertzean
lehendabiziko zitori zuri seikunak loretan. Eta kamelia
gorriak, multzo handitan, hosto artetik geroaren iragarle
ausart.

Horretan ginela, isilune bat sortu da.

Baina parkearen ertzeke etxeetako batetik, irrati bat
entzun da; ahul soinu mailaren aldetik, baina barrenkor
bere mezuan eta melodian.

Beatles-en kanta ospetsuenetakoa zen:

*yesterday
all my troubles seemed so far away
now it looks as though they're here to stay
oh, I believe in yesterday...*

Hasia nintzen ingelesez neure kasa ikasten, baina oso nekez ulertzen nituen hitzok.

Melodia, ordea, oso nuen gogoko.

–Musikea entzuten?

–Bai. Zelan ez. Oso ederra da.

Eta berriro mutu biok.

–Udabarrixa ganean dogu.

–Geur behintzet halan dirudi.

Eta geure pasierari segida eman diogu.

Ezer esan gabe eskutik heldu diot. Hotza oso harena; nirea epel antxean.

Eta orduantxe sortu da gure artean isilaldi bitxi eta iraunkorra.

–Tene –nik.

–Zer?

–Eze'bez.

Ez nekien esatekoa nola borobildu.

–Zer esan gura zeunstan?

–*Yesterday* hori hemendik aurrera adittuko dodanean, ba, zutaz oroituko nazala... Betirako *Yesterday* niretzat Tene izango dela.

Txistua irentsi beharra sentitu dut azkar.

–Hara... Barrero ikusi gura zintuzket.

Kikiltzen ninduen isilunea ez da luzatu.

–Zer deritxozu datorren eguenean? Goiko zelaixan bertan.

–Borobillean?

–Bai. Goizeko hameketan edo, geur lez.

–Ederto!... Eta denporia eskasten bada?

–Geroak esango –berak–. Baia giroa kontra yarten bayaku, señale txarra. Eta ixtea onena.

–Itxi, zer?

Tenek barre egin du gogotik.

Ostegunean, nolana ere, eguraldi bikainez zabaldu zen eguna. Goiz gorriaz. Eta itsas orro azkarrekin.

Baina arratsa nolakoa izango ote zen berdin zitzaidan.

Txirrindua hartu, eta hamaikak laurden gutxirako Bildosola Parkeko talai borobilean nengoen. Oso urduri. Areago bezperan erositako “erregalia” poltsikoan neramalako.

Labartzan denok elkar ezagutzen dugula-ta, Atxetako “Trip” dendara joan nintzen. Hango anderea oso atsegina zen, eta ez ninduen ezagutzen.

Neure egoera azaldu nion. Eta berehala proposatu zizkidan dendako pitxi eta trapu batzuk: fantasiatzko eraztunak, ukaraikoak, belarritakoak (motx eta luxe), poltsak...

–Galestiegi ez –argitu nion–. Hamazazpi urte dodaz.

–Ez’pa! Konturatzen nok, bai.

Aukeraketa hura luzatzea ez zitzaidan gustatzen, eta iduneko bat hautatu nuen: urrezko katenbegi koxkorrez osatua.

–Hogeta hameka atal yozak –argitu zidan andereak–. Badakik 31 kopuruak kartetan be zorte ona ei dakarrela...

–Gustauko yako neskiari?

–Bai horixe! Gustauko etxakok pa?

Hamaikak eta hogeian, jadanik ni kezkatzen hasia nintzela, hantxe agertu da Tene.

–Etxatzu aitzu...

–Zeuri bere ez! –berak.

Parkeko itzulia egingo genuela erabaki genuen. Behera jaitsi, eta urmaeleko ertzeko aulki luzeetako batean eseri ginen.

Beltxarga zuriak polliki igeri, lekuko isil. Ume batzuek, korrika jostari, baretasun giroa urratu dute. Baina berehala abiatu dira goi aldera.

–Onartuko deustazu? –galdetu diot.

–Onartu... zer?

–Hau. Ederragoa gura neunke; baia...

Fardeltxoa nekez zabaldu zuen.

–Zek emon deutsu, Antton?

–Eztakizu zek?

Gorritu egin zen berriro, lehengoan bezalaxe.

–Ipini eizu lepotik zintzilik. Zelan doatzun ikusi gutrot.

Zutitu, eta ipini egin du.

–Zelan nago?

–Hillebete luze honeitan neure ametsetan bezain lilluragarri.

Bere besoak nire lepoaren atzetik pasa ditu, eta ezpainak ezpainen kontra egon gara luzaz. Aurpegia oso bero zeukan, sukarrak hartua bailegoan; eta Teneren usain pertsonala aditu nuen lehenengo aldiz.

Beragan zerbait aldatua zela esan zidan; eta ez zuela lehenago inoiz horrelako musurik eman ez hartu. Eta berak ere usuago ikusi nahi nindukeela.

Nik ere ez nuen horrelako musurik ezagutu.

Baina ez nion aitortu nahi izan.

Parke ateraino lagundu diot. Eta despedidakoan, bazkaritarako une hartan jendea franko hona eta hara zebilela axola ez zitzaigularik, berriro besarkatu eta musu luzakor horietako bat eman diogu elkarri.

–Eta, txirindua? –galdetu dit irribarre gaixtoz.

–Egixa! Alazankua! Goixan itxi dot.

Biok egin dugu barre.

Egoera hura berria zen.

Zazpi hilabetez irten ginen elkarrekin.

Ez ginen behin ere oheratu. Garai ultramontano haietan, eta gure urteetan... otu ere ez horrelako likiskeriarik! Edota, otutakoan, goitik behera jausten zen langa, tenk!

Urriaren hasieran, euria erruz ari zuen egun hozkiri batean, negarrez etorri zitzaidan Labartzara. Eta enparantzako arkupeetan elkartu ginen.

–Bart jakin neban, Antton. Bagoiaz Atxetatik kanpora bizitzera!

–Nora, ordea?... Noiz arte?... Ezta posible!...

–Jaca-ra goiaz. Betirako, itxura danez. Candanchú-ko elur eta eski enpresa batean, lanpostu zoragarrixa eskaini ei deutsoe aitteri. Eta baiezkoa emon dau.

Ez nekien nik ordura artean, benetan, tristura zer den. Udazken eta negu ezin txarragoak pasa nituen. Baina ez nuen txintik atera.

Eskutitz pare bat jaso nuen nik, eta hark nigandik dozena bat.

Allikenen bi pertsona bakarrik konturatu ziren nire kinkaldi gaiztoaz: ama bata, eta Ixaskun arreba bestea. Baltza zakur leiala ere bai, ene ustez: luzakorrago begiratzen zidan.

Amak ez zuen Tene ezagutzen.

Ixaskunek bai, pixkanaka konturatu nintzenez:

–Neskatilla hori politte dok. Baia kaxkariña be bai. Ikusiko'ok.

Gero hilabeteak joan ziren, eta urteak. Urte asko...

Halako batez, orain dela hogeit hamar urte, neure *hegaldia* hasi baino lehenago, eta ez dakit nola edo noren bitartez, Teneren berri izan nuen. Huescako merkatari aberats batekin ezkondu zela. Bera baino hamabost urte zaharragoa zela senarra; eta hiru seme-alaba izan zituztela.

Gero ezertxo ere ez.

Geroago, irakurleak badakienez, “desagertu” egin nintzen Labartzatik eta Allikenetik; eta Jeannette bordelesa ezagutu nuen.

Oihenarte zaharrarengandik ikasi nuenez: amodio kontuetan, *gaitza gaitzagoak derahatza*. Eta atsotitz horren egia garratza egiaztatu ahal izan nuen, sufrikario-tan mukuru.

Jeannettek ostendu egin zuen Tene erabat.

Valcornejan erabakita, Atxetako parkera bihurtu nahi nuen; bihurtu behar nuen, hobe.

Eta etorri egin naiz.
Urmaela hor dago, beltxarga zuriak ere bai.
Esku hotza neurean hartu nion bidetxidorra ber-
dintsu. Ilunago beharbada.
Beatles-en “Yesterday” ez zuten jo egun hartan.
Ni neu, zaharrago.
Zaharregi.
Tene hitza ahoskatu dut.
Barne zirrarak batere ez dut sentitu.
Tristura apur bat, bai.
Zorra kitaturik topatu dut neure burua, halaz ere.
“Ongi egin dut etorrita –neure kolkorako–. Poesia-
ri eta lilurari, datorrenaz ongi jabeturik, bai bihotzaren
erditik”.

XIII

Gauzak nik aurreikusi bezalatsu joan ziren ondoko asteetan.

Ixaskun goiz eta arratsalde joaten zen lanera. “Odxela” izeneko moda-denda txiki bat zeukan Artekale-ko muturrean, Kandido Saseta kalearekiko izkinan bertan. Salmentarako “leku ona”, omen; eta “politxo” saltzen omen zuen.

Ni, arratsaldero, hutsik egin gabe, Sagarminaga Kulturunera joaten nintzen. Eta han irakurri eta irakurri egoten nintzen hetsi arte. Ozamizek laguntza aparta eskaintzen zidan; eta irakurri beharrekoen itsaso beldurgarrian gidatu egiten ninduen.

Ez bereziki neure doktorego tesia aurrera eramatera deliberatua nintzelako. Hori ez. Bazekien, neronek azalduta, mementoko behintzat, ez nuela uste hura akademikoki burutzea merezi zuenik.

Baina jakin egin nahi nuen. Ikasi. Gure herriaren kondaira ezagutu beharra sentitzen nuen batez ere.

“Goitik behera engainatu gaituzte –pentsatzen nuen—. Behin eta berriz. Zoritzarreko herri iñoxoa gara”.

Arturo Campi3n-en *Navarra en su vida hist3rica* irakurri nuen horretara; baita Anacleto Ortueta-ren *Navarra y la unidad pol3tica vasca* eta *Sancho el Mayor Rey de los vascos* liburuak. Hirurok gertatu zitzaizkidan interesgarri oso.

Hauen ondoren, *Historia de Euskal Herria* liburu hirukuna gomendatu zidan Ozamizek; Jose Luis Orella, Xos3 Est3vez, eta Jose Mari Lorenzo Espinosak hurrenez hurren idatzitakoak.

Azkeneko honek, seguru asko gure garaiaz mintzo delako, erruz hunkitu ninduen; eta Bilbora joango nintzen lehenengo osteran neuretzako ale bat propio erostea erabaki nuen.

Ni barruan nengoenean *estreinatutako* Ertzaintzaz Lorenzok idatzi dituenak neure egiten ditut oso-osoki. Hori bai porrota gurea! Aurrerantzean *etxekoak* izango baikenituen gaurko gudarien borreroak.

Urriaren 22an, igandea, eguraldi bikainez zabaldu zen eguna.

Eta hondartzazale askok, udari osotara agur esan beharraz ezin etsirik, Labartzara jo zuen zalaparta bizian.

Ni neu ere etxetik jaitsi, eta Labargane aldera abiatu nintzen pasieran.

Hego haizea zebilen, eta itsasoa bizi samar. Eta olatuei, zaldi zuri ilara oldarkor, apar gandorra eransten zitzaien.

Labartzako aldapaburuan, *Surf-Eskola* txabola itsusiaren ondoan, *San Telmo Hondartza* hitzen azpian, iz-

kribu bana jarrita zegoen zutoin batean. Euskaraz irakur zitekeen alde batekoa, eta erdaraz bestekoa.

Letra larritan hau: KONTUZ!

Eta ondoren, txikiagotan, lau lerrotan:

Uretan sartzea ala ez, norberaren kontu.

*Irailaren amaieraz geroztik, zaindaririk gabeko hondartza
Komunak, dutxak, aldagelak eta gabarroia bakarrik,
Urriaren 31ra arte erabilgarri.*

Arratsaldean, gertakariak inork aldez aurretik sumatuko ez zuen ildotik mamitu ziren.

Ni neu, alferkeriak jota, ohearen gainean etzanda nengoen *dolce far niente* famatuan.

Eta helikoptero baten zarata burrunbatsuak harritu ninduen aurrenik. Behin eta berriz pasatzen bide zen Labartzaren gain-gainetik.

Eta azkenean, bostak aldean, jakin-minaren harrak eztenkaturik, jaitsi egin nintzen Ondarrondora.

Jendetza gaitza itsas aldera begira.

Zer gertatu ote zen galdetu nuen.

–Parece que hay un chaval desaparecido –erdaldun batek.

–¿Desde qué hora? –galdetu dut.

–Dicen que había ido a nado al gabarrón, antes del mediodía, y que no ha vuelto. Pero que los dos amigos que fueron con él están ya de vuelta desde las dos.

Kutsu txarra zuen gertakariak.

Itsasoko Gurutze Gorriaren kanoa gorri-beltz zaratsua aurreko aldetik agertzean, azkartu egin da begiraleon artean itxarrotearen dramatismoa. Berori ere, jiraketa zakarrak eginez, behin eta berriz urruntzen zen Labarpeko harralderaino; eta, behin eta berriz ere, gabarroia inguratuz, Labartza-Barri eta Atxetaurreraino bihurtzen.

Normalean, jendeak azaltzen zuenez, itsasoak Ekialderantz bultzatzen ditu Labartzan askatutako txanelak, hondoratutako ontziak, kortxo-soka atalak, egur puskak, dena.

Eta, beraz, mutilaren gorpua, inon egotekotan, Labarpeko haitzen artean.

Ilunabarra lasterka heldu, ordea; eta mutilaren arrastorik ez.

Bat-batean gizon heldu bat murgildu da San Telmo hondartza ertzetik; eta udan barrena erdian ainguratu-ta egon den gabarroirantz abiatu.

Handik hamar bat minutura kirol ontzira igotzen eta tranpolina alferrik miatzen ikusi dugu denok.

–Mutilaren aita da –esan du norbaitek.

Gurutze Gorrikoak hurbildu zaizkio. Gizonak ez zuen salbamendu gabarrara jaitsi nahi. Etsi egin du azkenean; eta kanoa gorri-beltz zaratsuan eraman dute Atxetako kaira.

Ilunabarra gainean, gorri-gorria. “Arrats gorriak dakarke eguraldi” esakuna bururatu zait.

Eta, segituan, neure buruaz lotsatu naiz:

“Hau eskarnioa... gauden honetan eta burutazio funsgabe hori azaltzea ere...”

Ixaskun aurkitu dut Ondarrondo pasealekuan.

–Hamalau urteko nerabea ei dok. Ietarra. Domekea gaur, hango lagun bigaz etorria. Lander ei zeretxok; baia apellidua etxakixat. Beragaz egozan lagun bixak gauza bera yinotsek: gabarroitik eztala etorri.

Biharamunean, egunsentiarekin (egunsenti zoragarria!), Gurutze Gorriaren ontzi gorri-beltza iritsi da berriro Atxetatik.

Baina oraingoan gabarroira jo du zuzenean.

Bi urpekari agertu, eta gabarroia miatzen hasi dira. Astelehena izanik, bezperako jendetzarik ez. Lanordu hartan libro ginen mordoxka bat inguratu gara.

Halako batez, gabarroiaren azpitik zalantzarik gabe, gorpu bat atera dute. Kanoa gorri-beltzean kargatu dute, eta Atxetako kaira eraman.

Berehala, baita irrati bidez ere, lau haizeetara hedatu dute berria:

Istripu deitoragarria atzo, urriaren 22an, Labartzan, eguerdi irian.

Eako Lander Uriagereka Miota nerabea, 14 urte, ito egin zen gabarroiaren azpian trabaturik. Gorpua erabat puztuta agertu da, eta ubelduraz betea.

Alde batetik bestera ontziaren azpitik igarotzekotan murgil eginda, estekatu egin da mutilaren bainu-galtza gilako burdina-kakoska batean; eta, hartatik ezin jareginik, hil egin da bertan

Eako Udalak dolu-eguna ezarri du herrian urriaren 25ean.

Asteazkenean Ixaskunen Opela hartu, eta biok Ie-ra joatekotan prestatu gara. Ixaskun-en lagun bik, Arrosak eta Arantzak ere hara nahi zutela, eta azkenean laurok elkarrekin abiatu gara.

Jendetza gaitza. Ea herrixka osoa, nik uste. Atxetako eta Labartzako asko ere bai. Baina baita Ibarrangelu, Bedarona, Natxitu, Kortezubi eta Lekeitioko ez gutxi.

Tristura itzela bazterretan; eta San Juan elizako karpandorre karratutik hedatzen zen lanturu metaliko errepikakorra, ezin jasana.

Mezatakoan, ez dakit nondik heldurik, eta eliza barruko isilpe trinkoa urratzen zuelarik, kantu bat entzun dugu denok:

*Ixil-ixilik dago
kaia barrenian,
ontzi txuri polit bat
uraren gañian.
Goixeko ordu bixetan
esnatutzen gara,
arrantzaliak beti
yoateko urrutira...
Zergaittik, zergaittik, zergaittik
zergaittik negar egin?
Zeruan izarra dago
itsaso aldetik.*

Ehortzetak “auredixa” izan zuen. Apaizaren aurretiko anderea, zamauaren eta kandelen hilobiraino erama-

le. Eta otzarana. Eta beretterra, bere gurutzearekin, erretoaren ondoan... Beste mende bateko ikuskaria zen hura.

Kanposanturako segizioa hunkigarria: oste jendetsuan ez zen hitzik batere entzuten.

Ea Labartzatik urrun egon ez arren, ez nintzen bertan inoiz izan.

Labartzaren oso antzekoa iruditu zait herritxoa. Hein batean behintzat.

Hark ere bi auzune ditu; eta Ea zaharra Argin erre-karen eskuin aldean dago, Labartza zaharra Ubagoren eskuinean dagoen bezala.

Itsasotik urrutirago da Ea, Labartza baino. Hori bai. Eta San Telmo hondartzaren gainean dagoen Ondarrondo pasealekuaren antzekorik ez dago Ean.

Eta arku txapal bakarreko zubia, Gareskoaren antzekoa, Ubago gaineko gure zubiño berriantxa baino aise ederragoa da.

Labartzan ez dugu, azkenik, Ubago erre-karen ertzean halako beira-galeria dotorerik. Gure etxeen errenkada, Lauaxeta kaia osatzen dutenena, errekatik askoz atzerago dago.

Nolanahi ere, Ea itoketa latz horren lekuko hitsa izan da besterik ezer baino lehenago. Eta horrelakotzat egongo nigan hil arte.

Biharamunean, eguerdi irian, Ondarrondo pasealekura joan naiz.

Itsasoa baretua zegoen, erabat; eta San Telmo hondartzan ez zegoen inor.

Gabarroia bai. Huts-hutsik, geldi-geldirik, inolako kulunkarik gabe.

“Astebete barru Atxetara eroango haute”, neure kolkorako.

Eta handik pittin batera:

“... berantegi eroango hi ere”.

Itsasoa soraio agertu zait, eder, irain bat bere baretasunean.

Hotz ere bai; eta berekoi, arduragabe, gizabako, gupidagabea.

Gibelean oinaze bizia jartzen ari zitzaidala erreparatu dut. Berriro ere Valcornejako gartzelan jasan nuen oinaze zorrotz berbera zen. Eta, goragale mingotsen artean, behazun hori hura arra-jaurti behar nuela.

Zoratu uste nuen: Jeannette... Le Moulleau... Lander Uriagereka ezezaguna orain... denak nahasian, elkargainka.

Etxera itzuli naiz.

–Bazkalduko dogu? –galdetu dit Ixaskunek.

–Ez... Ezin nei... ogera yoango non; zetara ezpada-
kit pe...

–Gurokan lez.

Ohearen gainean etzan naiz.

Ezin askaturik hilbehar latzaz tematu naiz.

Eta ordura arte erreparatua ez nuen erlojuaren *tak-tok, tak-tok, tak-tok* geldoa entzun dut. Nekagaitz... azkengaitz... tema-gai...

Allikenetik etorria zen erloju altu dotorea, berean ari.

Zur argitan bildua, pintura bitxiz apaindua, pendulu luze bat zeukan eragile; eta erritmo geldo hura sortzen zuen. Goialdeko obo biribil zurian, F. Berthoud izenaren inguruan, hamabi zenbaki erromatarrek erakusten zituen.

Ordubeteak eta erdiak jotzerakoan, oso melodia zeremoniatsua entzunarazten zuen: *mi-do-re-sol... sol-re-mi-do*.

Allikenen, haurtzaroko garai urrunetan, ordubeteak eta erdiak jotzen zituen. Denak.

Baina ondoko urteetan lehenengo aldiz “isilarazi” genuen.

–Zaharregi nuzue –esan zigun halako batez aitatxi Erramunek– gauetako isilpean taupada eta melodi anpurus horiek lasai entzuteko. Othoi!

Eta isildu egin genuen.

1968an hil zen gizarajoa, gure baserrian. Ordurako alargun, eta 86 urte zituelarik.

Mateo Zugastiko etxean ez zuen ordurik batere jotzen. Hauxe da egia.

Penduluaren mekanika bakarrik: *tak-tok, tak-tok*.

Baina jangelan kokaturik ere, ozenkiegi entzuten zen etxe osoan.

Eta ni ez nintzen honetaz gaur arte jabetu. Eta Ixaskuni bost axola zitzaion, ageri zenez.

Lo txarrekoa omen zen aitatxi; eta isiltasun betea behar omen zuen loak hartzeko.

Orain arte ni beste ezpal batekoa nintzela esan nukeen.

Hemendik aurrera, berriz, zer? Ezetz.

Erramun Ihartzegarairen biloba “propioa” naizela.

XIV

San Martin eguna iritsi zen horretara.

Txarri-hiltearen ospaketa egun berezia izaten zen gure Allikenen.

Labartza herrian bertan ez zen gauza handirik sentitzen. Baina baserrietan kurrinka etsi lazgarriak entzuten ziren etengabe bezperan, are lehenagotik ere.

Banekien nik, nola ez, Azaroaren 11n Labartzaren gainean, Selakua ermitan, Izarteko lataburuan, meza eman ohi zela goizean; eta gero, arratsaldean eta ilundu arte, trikitia jo ohi zutela, eta danbolina eta dantza egoten zirela.

Paraje hura ongi ezagutzen nuen zenbait arrazoi zirela-eta.

Hamabost urteak bete arte ni ibilitako *Colegio de Santa Mariaren* gainean bertan dago, Labartzaren Ekialdetik. Hantxe egon nintzen ni “gatibu” sei urtez Maristen eskuetan. Ikastetxe zabala zen, garrantzitsua, eta bertako eta inguruko herrietako ikaslez oratzen zen.

1963, 1964 eta 1965eko kurtsoetan batez ere (azkeneko hiruretan, beraz), bost laguneko “koadrilla” hertsi

bat antolatu genuen: Kepa, okinaren semea; Imanol “txirringularia”, Peru Goianekoa, Paulo Ihartzegarai atxetarra, lehengusu propioa; eta ni neu bostok. Seigarrenik ez.

Ikaskide ginen, bai; baina barrabaskerikide ere bai.

Eta udaberrian, eskolak arratsaldeko seietan amaitutakoan, eta eguraldi ona agertzen zenean, eskolako ariketak txintxo-txintxo etxera egitera joan beharrean, Jentiloloko kaxkora igotzen ginen abentura bila.

Izarte-rainoko lata beltz beldurgarriaren gainalde harritsuan (110 metro behera, gaur dakidanez; eta gu, erokok, osoki ertzean ari!...), sugandilak harrapatzen genituen, eta musker hori-berde batzuk (gutxitan, zoritxarrez), are ziraun luzeren bat ere (metro batekoa behin!).

Oso txunditzen gintuen narrasti hauen hauskortasunak. Itxura zenez, sugandilak prest zeuden, ihesera koan, buztanaren hiru laurdenak bixi-bixi galtzeko; eta ziraunak, ikarak zurrun jarririk, puskatu egiten ziren gure esku “bekatarietan”.

Beste askotan, maiatz-ekainean, bostok betiere (seigarrenik ez, eta ez dut berriro errepikatuko) Selakua ermitaren ondoko belardira igotzen ginen, arrapalada batean, nor aurrena, eta arnasestuka, kilkerrak harrapatzerara. Eta gero, bi kortxo txatal, batetik, eta dozena bat iskilinba bestetik, kaiolatxo borobilak eraiki. Eta hantxe sartzen genituen, gartzelatxo haien gupidagabeaz oroitu gabe.

Eta irailean, masusta bila igotzen ginen, eskuak zeharo more eta arramazkaz zikindu arte.

Gaur deblauki aitor dezadan, Labaka baserriaren ondoko sagar esnabolak hartzera joaten ginen sarri, eta piku berdeak dozenaka lapurtzera ez gutxitan. Ondorioak, komunera behar gorriak salatzen zituen.

Oroitzapen horiek gau akuilu, San Martin eguna zabaldu –larunbata–, goizean goiz jaiki, eta Selakuara.

Meza zortzietan hasi da. Baserritar eta arrantzale jendea franko inguruko herri eta herrixketatik: Bedarona, Ea, Ipazter, Natxitua, Lekeitio, Mendexa...

Ermitatxoa gainezka. Sermoia entzun nahi nukeen. Ezin, ordea: entzule asko kanpo aldean kalakan, barrura ezin sarturik.

“Alferrik hemen gelditzea. Bazkalondoan bihurtuko naiz”, neure artean.

Eta herrira jaitsi naiz, Labakaeneko bi zakurrak errabiaraziz; eta segidan Labarganeko Farola eskuinean utzi, eta atzetik, Dorreoste kaleka meharretik, Plaza Barrira. Eta etxera.

Gabarroia Atxetara hamar egun lehenagotik eramanik ere, Lander gizajoaren zauria minberegi zegoen nigan; eta ez nuen San Telmo hondartza berrikusi nahi; eta Labarpeko harraldea eta surflarien txabola ere ez.

Dendak itxita, laurak aldean abiatu naiz gorantz. Lainotzen hasia zen zerua; eta arrastiria berehalako girotzen.

Berriro ere Labaka baserri dotorearen aurretik pasatzean, bertan lotuta bizi diren bi artzain aleman beltzek egin didate harrera, goizeko pasieran baino zaun-

ka zalapartatsuagoan. Isiltzeko agindu diet goxoki, baina zaunkaldiari eutsi diote amorruez.

“Begitan hartu nauzue. Allikeneko gure Baltzak bezalaxe jokatzeko duzue... Behin eta berriz inguratzen dena, susmagarri. Gauza ezaguna da: postariak ospe txarra dute baserrietan eta xalet isolatueta. Txalo zuei!”, neure kolporako.

Mendebaldera begiratu dut orduan.

Labaka nahiko goian dagoenez (90 bat metroko heinean bai, Labarganeko Farola baino goraxeago), oso argiro ikusi ahal izan dut Labartza herria bere osotasunean.

Maristen Ikastetxea mendipean bertan, bere frontoia eta guzti, nirea izana; eta ezker alderago, trenaren geltokia eta Azoka zaharra.

Haraxeago (hura nazkagarrikeria!) “InmoViz” en lau bloketzar kankailuak nabarmenki gailentzen dira (Allikeneren lurraldean!).

Erdialdean, Plaza Barriko errektangulua, naximentu batean bezala paratua.

Eta eskuinetan, Dorrea jauregia, Arteta parkea, Ondarrondoko zazpi xaletak ilaran; San Telmo hondartza; eta Ubago errekez bestaldean, Labartza Barria, nire bizilekua.

Kale zuzen luzeak, dena txukun. Politta ene herria!

Oraindik atzerago Atxeta ikus zitekeen; eta, beronean, batimendu mordoxka bat gailen: Gorozika Kontserbategikoak.

Oraino haratago, itsasertzean, Ogoñoiko labar iluna Elantxoben; eta azkenean Matxixako lurmuturra.

Bermeo ere bai, noski, hantxe da; baina ez zen ordu hartan ongi ikusten.

Oso ideia egokia iruditu zait, hain zuzen, ermitaren ondoan, norabide-mahai borobil hori jarri izana. Handik inguru guztian ikus daitekeena dago marrazturik; baita zer non den garbi idatzita ere.

Tren txistukada zorrotza zabaldu da horretan.

“Valcorneja!”.

Ordu hartantsu, nola ez erreparatuko?, zenbat aldiz horrelako garrasia ilunabarrerakoan entzuna?

Mila eta bostehun bat aldiz, bai. Aisa.

Otoi! Ez zaputz miraria...

Goiago abiatu naiz; San Martinen ermita gain-gainean baitago. Sagarminagako Aretoan dagoen mapan ikasi dudanez, 123 metrotan zehazki.

Jendea bazegoen oraindik ermita inguruetan, erromeria hasi zain.

Baina goizeko jendetza gaitz hura ez. Mezatara etorritako asko, etxera bidea hartuta eguerdia baino lehenago.

Alde batetik hobe. Toursko San Martinen basiliza bisitatzekotan joan bainaiz, baita geroago trikuharria ere.

Noizez geroztik ez ikusiak?

Kalkulu batzuk egin behar izan ditut. 1976 behar bada? 1977 ote? 23 edo 24 urte bai, beraz. Azkeneko aldiz hori.

Zeren-eta “barrabaskerietan”, arestian azaldu dudanez, makina bat aldiz izan bainintzen nerabezaroan mui-no eta belaze haietan; baita lehenago ere!

Sarrera gaineko atalarrian, hiru letra: ildotan eta pintura beltzez idatziak: IHS.

Teilatua, birteilatu berria, bi aldetara; eta gailurrean burdinazko gurutze bat gailen.

Barrura sartzerakoan, hango ilunpean, itxitura usain bitxiak eta goizeko osteak erantsitako kiratsak eraginik, zirrara batek inarrosi nau.

Tamainaz kokorra da ermita (nik *erminttia* entzundut gaurkoan jai eta aste). Zuria, tarteka harri mokor batzuk murruan agertzen direlarik, kare zuriz inguratuturik, erabat Oñati ingurukoak bezalakoak. Zazpi bat metro zabal eta hamabost bat luze.

Sarrera Ekialdetik egiten da, metro pare bat teilatutak berak eta alboetako bi hareharrizko zutarriek babes-tua dagoelarik.

Aldarea Mendebaldeko horma itxiaren kontra dago. Honen gainean, margoturik, Kristo bat gurutzean. “Ez duk hau batere aldatu”.

Ezker aldean (eta Hegoaldera begiratzen ari garelarik, hortaz), beti bezala, bi leiho txiki. Eta eskuin aldean, itsua den paretaren kontra, zurezko aitorleku apal bat. Hau ere, gaizki ez banago, betidanikoa.

Aurrealdeko bi kantoietan, berriz, hareharrizko puska galantak.

Zorua gorri, adreiluzkoa agian, higatua, dextente hondatua; eta gaurkoan hondakinez eta puska ezainez zikindua.

Ekialderantz begiratu dut irtetea. Gipuzkoa aldeko kostalde gutzia ageri zen, baita Lapurdikoa Miarritzerai-

no ere, honen farol-dorre zuri luzea ongi xamar bereiz zitekeela.

Eskualde hau Labartzatik ikusterik ez dagoelako, nik uste, halako zauskada azkarrago batek dardaratu nau barru-barruan.

Bat-batean, uve eskerga bat agertu da zeruan.

–Begira, begira! –entzun dut neure ondoan–. Uso pasia, uso pasia!

Hegoaldera zihoan txori aldra bat.

Ez zait niri iruditu usoak zirenik. Txorien karrakak entzun zitezkeen garbiki.

–Lertsunak dituk –zuzendu nahi izan du beste batek.

–Lertsunak ez. Zikoñak dozak –beste batek.

–Burioak, amiamokoak, ez dakit zer besterik.

Nik ezer gutxi dakit txori kontuetan. Baina nire us-tez txori talde hura antzara-aldra bat zen, besterik gabe.

Baina, tira, isil nadin ezjakin hau.

Polliki-polliki urrundu dira zeru goibelean geltoki-aren aldetik.

Eta ni mutu gelditu naiz. Zurtuta.

Pentsakor.

Bitartean, hasia zen trikitia. Eta dantzari gazte batzuk jauzika ere bai.

“Segi egin beharko diat nik neurera”.

Eta, talaian bertan ehun bat metro Ekialderantz egi-nez, Jentilolua izeneko trikuharri ospetsurantz abiatu naiz. Turismo gidetan ere agertzen da. Hiru harri es-

kerga talaiaren gainean; eta beste txikiago multzo bat inguruan.

Hura bai guri harrigarri gertatzen umetan.

Allikeneko guztiekin joaten nintzen, guraso eta aitona-amonekin (garai hartan lauetatik hiru bizirik, aittitta Iker salbu), baita Atxetako osaba Karmelo, izeko Primi, eta Paulo eta Gaxuxa lehengusuekin ere. Meza ermitan entzun ondoren, Jentilsoloko belazean eseri, eta bertan bazkaldu ohi genuen.

Horretan nengoela, hegazkin bat agertu da, aski goian; baina hegal-muturreko argi ñirñirkariak pizturik, eta nabarmenki Loiu aldera jaisten ari.

Erlojua begiratu dut: lau eta erdiak.

“Alicante-Bilbo bidaia duk. Ziur!... Nirea... Bi hilabete geroztik... Bi hilabete jadanik, libre!”.

Hasperen bat itzuri zait. Baina irribarre bat ere bai.

Eta belarrean etzan naiz.

Baita loak hartu ere.

Esnatzerakoan hasiak ziren itsasargiak beren seinaleak lau haizeetara bidaltzen.

Labartzakoa zehazki ezagutzen nuen: argi izpi bat bederatzi segundo oro; Matxitxakokoa baino geldoxeago.

Baina nik Ekialdera begiratu nahi nuen.

Argi ilara bat, Le Moulleau-tik begiratzuz Ares eta Andernos-en artean ezagutzen nuenaren antzekoa. Ipur-targi saldo bat elkarren segidan iduri.

Nik hiru itsasargi ezagutzen nituen: Igeldokoa, izpi bat, eta gero bi hutsarte labur; Iger muturrekoa, Hondarribian, bi izpi labur, eta gero oso luzaz itzalia; eta azkena (edo azkenurrena: ez nago ziur) Miarritzekoa, bi izpi segidan, eta hutsune luzakorra ondoren.

Selakuako talaian ez zegoen jadanik inor.

Ez zen oso berandu (zazpiak eta bost ene erlojuan); baina iluna zegoen erabat. Eta terrala hasia.

Labaka eta Austiñene baserrien ondotik doan bide-tik jaitsi naiz.

Azoka Zaharraren inguruko tabernetan jende berankor asko, etxerako asmoak oraindik hozitu gabeak.

Buzkantza apur bat eskatu dut Pellorenean. Ene aldamenekoak, giputxia ene ustez, *mondejua* eskatu du. Eta txiriboginak buzkantza zerbitzatu dio... Orain badakit beste berba bat gipuzkeraz!

Napar ardo gorria edan dugu ausarki.

Bixaramon galanta zetorkigun. *Kristoren ajia*, alegia.

Baina *domeka* izango zenez, zer axola?

XV

Biharamunean, igandea.

Gauean burua astun; eta gonbitolarria dela-eta, bi aldiz altxatu naiz. Eta alferrik botatzen saiatu.

“Pelloreneco buzkantza egoskaitz hura errudun... Ez nuen hiru aldiz hartu behar. Eta are gutxiago baxoerdi sail luze hura... Baina... damua garaiz”.

Goizeko zortziak aldean, oraindik ere eguna argitua ez zelarik, Ixaskunek esnatu nau:

–Ba al dakik atzokoa?

–Atzoko, zer? Bart berandu etxeratu nindunan. Seguru asko konturatu haz.

–Ez’pa. Enok konturatu. Bada, atzo istripua egon zuan Loiun.

–Istripua Loiun?

–Horixe. Alicante-tik zetorren hegazkiñak, pistatik urten yok.

–Alicantetik zetorrena?... Gu etorri ginen bera, hortaz?

–Bera, bai.

Dardarika bortitz batek astindu nau.

–Ezton posible!... Hegazkin aldraren pase lilluragarrixa... eta gero Jentilsolotik ikusi nayonan hegazkiña Bilborako pasaeran...

–Bai, bai; hori ezteuat ukatzen. Baie gero... Etxakiek oraindik zergaittik, baie urten egin yok pistatik, eta aideportuko azken belar metroetaraino eztok geldittu... Salbamendurako berebillak antxintxiketan hurbildu dozak bertara, eta elur karboniko edo dalakua ingurueta botata. Eta hegazkiñetik belarrera kokaturiko plastikozko txirrista batetik jaitsi yittuek ehun bat bidaiariak, banana-bana, garrasi eta tankateko artean.

–Zer diñon, ordia?

Hasperen bat itzuri zaio Ixaskuni bere barne zirrarari aurre ezin eginik; eta bost bat segundoz eten du bere kondaira.

Ni neu ere izuak hartuta.

–Yentiak urten, eta entsegida eztanda bat aittu ei dok Loiun. Motore bat lehertu dok ustekabian.

–Hillik edo? –nik galde.

–Zauritu bat, bakarrik: pillotu nagusixa. Urteten azkanengoa itxuria, eta erredurak izan yozak.

Valcornejan eta besteetan egon nintzen urteetan, ez nuen inoiz dardara mota hura sekula sentitu.

Ihes egin nahia, bai. Ihes egin beharra, murru gaitz eta beltz haiek gaintu beharra, hamaika aldiz. Enrique musugorri mozkortiari betirako agur esateko irrika jabaldu ezina, bai.

Zapaldurik, zafraturik, ukaturik, eguneroko oinperaketa doilorra, bai.

Baina egunero horretan beti ni neu nintzen, gotor, tinko.

Mendeku egarria nigan galgarik gabe hazten ari zela erreparatu, egunero sentitu dut hamazazpi urtez. Arratsero batez ere.

Baina infernu hartatik jareginez geroztikako bi hilabete hauetan, besterik. Bestelakorik sentitu dut zehatzago mintzatzekotan.

Orain neure burua aurkitzen dut erkin, zaugarri, hauskor.

Nerabezaroan Selakuan harrapatzen genituen ziraun haiek, ikarak hartuta, gure eskuetan hauskor gertatzen zitzaizkigunean bezalaxe.

XVI

Valcornejan, Puerton eta abarretan egon nintzenean, ez nuen inondik ere antzeman, irteterakoan, egunero gertakariak noraino desbideratuko ninduten hamazazpi urtez hausnartu eta finkatutako beila edo kontra-bidaiaren ildotik.

Behin eta berriz ametsaldiak kitto, eta errealitate idorra gailen.

Sagarminaga Kulturunean bertan ere, gauza bertsua.

Ia egunero, ia sistematikoki, burutzen ari nintzen irakurketak bazuen maiz bere ezinbestezko desbideraketa tasa.

Eta XIX. eta XX. mendeetako sarraskietan eta zoritxar-katean ni ikasle eta jasale paraturik, *barruan* prestatutako atzekoz aurrerako ibilkizun kontra-kronologiko zentzudun eta subjetoetatik zeharo hantantzen nindutela sentitzen nuen.

“Barruan” egon nintzen bitartean, ezintasun objektiboari *asmamena* gaintitzen zitzaion; eta ni alegiazko neurre ildotik nindoan lerro-lerro.

Hori dela-eta, Goia baserrira bihurtzeko asmoa (asmo zindoa, ez pentsa), dexente atzeratu zitzaidan.

2000ko abenduaren 17an, Eguberri bezperaz ia-ia, harrigarritzko eguraldi ederrez esnatu ginen. Eta zalan-tzarako zirrikituak oro hetsiz, 1962ko udaberrian gertatutakoa arrabizitzera joan nintzen.

“Kontu zaharrak, Antton! Kasu!”, ni neure buruari mintzo.

Arratsalde bikaina izan genuen Labartzan, oso epela.

Banekien arratsalde hura suntsikorra eta laburra izango zela. Urteko egunik laburrenak aste horretakoak izaten baitira.

Goia baserria zutik dago. Atxeta eta Labartzaren artean, muino batean; kanposantutik Mendebalderantz hartuz, eta gure Allikenetik ozta-ozta kilometro batera.

Guk Ihartzegaraitarrok eta Goianeko Landatarrek, harreman estua genuen belaunez belaun.

Izan, ez ziren berak gure lehen-auzoak; eta odol-ahaidetasunik ere ez zegoen gure artean. Baina senitar-tekoak bagina bezala bizi ginen elkarren arta maitakorrean.

Hautzaroan Ixaskun eta biok oso maiz joaten ginen Goiara jostatzerara; eta, era berean, gure adinkide (eta adiskide min) ziren Bego, Peru eta Markel Landatarrak gurera etortzen.

Halako batez, nik 12 urte nuelarik, Goiaenean gertatu nintzen Peru eta Markelekin. Eta baserrian zeukaten katu beltz gaxte batekin jostatzea bururatu zitzaigun.

Baserriaren atzealdean, lehenengo solairuan, bazegoen leiho zabal bat (“osteko bentania” esaten geniona). Ez zen oso gora: lau edo bost metro lurreraino.

Leihoa bera, laukuna bere itxuraz, lau beira karratuz osatua zelako, atze samarrean gelditzen zen paretaren arabera. Leihotik ertzeraino 60 bat zentimetro. “Hiru arrabete zabal” esango zukeen aitak. Eta babesleku gisako zerbait sortzen zen bi alboetako hormez eta leihoaz sortua.

Katutxoa hartu dugu, leiho aurreko tarte horretan jarri, eta leihoa barrutik hetsi.

Guk hirurok, artean, barneko aldetik kilikatzaile, ikartzeko keinuak eta imintzioak egiten genizkion katuari. Honek salto egiten zuen, eta ez gutxitan guri begira kristaletara hurbiltzen.

Orduan guk mehatxu keinadak hanpatzen genituen barrutik, eta garrasi ozenak jaurtitzen; eta barre egiten genuen gogotik.

Bat-batean, katuaren arrastorik ez leiho aurreko tarteetan.

–Jausi egin dok katua! Eneee!

Tarrapataka jaitsi gara, eta baserriaren atzealdera joan.

–Hilla dok! –bota du Peruk–. Ene, ene, ene!!

Odolik ez zen ageri. Baina katua ez zen batere mugitzen; eta begiak batere norarik eta distirarik gabe zeuzkan.

Katua ez zen oraindik hoztu.

–Goazen barrura –agindu du Markelek, ni baino urte pare bat helduagoa–. Burdiñazko sukalde baltzaren burdina oso bero egoten dok erdi aldeko uztai borobilletan. Baie eskuma aldeko ertzeko honeitan, epel bakarririk. Eta bizkortu egingo yuagu.

Ikutu egin dugu badaezpada; eta bello zegoela egiaz-tatu, eta ez batere kiskalgarri.

–Ipiñi daigun hamen! Azkar!

Eta ahal bezain leunki etzan dugu xafla epelean.

Negar zotinka hirurok.

–Ez hil, katutxu! Ez hil! Guk ezkenetsun miñik emon gura!

Ordu erdi bat eman dugu horretara, zain etsian.

–Zer gurozue, ba? –galdetu digu Landa jaunak–. Lausa gogor honen kontra jausi da, kolpe zatarra buruan hartu, eta hil egin da.

–Baie katuak ez ei dabe miñik hartzen jaustian –erantzun diogu guk–. Beti lau hanken ganian jausten ei direz katuak.

–Ez beti. Ahor aprobia.

Gainditu ezinezko tristurak bete nau. Hirurok bete gaitu, hobe.

–Oin badakizue zer egin bi'dan: katua kirasten hasi baiño ariñago, hor nonbait, errepidez bestaldian edo, arroken ganian, zulo sakon bat prestatu, bai?; eta han lurperatu. Atxurrak eta gaiñerakuak hortxe daukazuez, iputeixan. Biarrera, beraz!

Zaku handi batean sartu dugu katua; eta, tresnak harturik, beherantz abiatu gara.

Isil-isilik. Gutako inork ez zuen txintik ateratzen.

Bi lekutan alferrik saiatu ondoren, azkenean, hirugarrenean, lurra bigun samarra zuen toki bat topatu dugu.

Gogotik lan egin behar izan dugu ordubetez.

–Gurutze bat jarriko deusagu? –galdetu du Peruk.

–Bardin yostak –erantzun diot nik zakar–. Hil egin dok. Hori yatak ardura.

Haga luzexka bat aurkitu dugu inguruetan; eta, makila txiki bat zeharka erantsiz, soka batez lotu; eta tinkatu egin dugu.

“Gurutze eskasa; baina tira...”

Itsas orroa heltzen zen azkar guganaino.

Kopetilun, zeharo jota, Goia aldera abiatu gara hirurok; nik anartean inoiz dastatua ez nuen oinaze lazarri batek zaurturik.

Orduan izan nuen alderaketa egiteko parada.

Allikeneko bi amona zaharrak hil zirenean, ni umea nintzelarik (Amañi Gaxuxa eta amama Ixone, alegia), ez nuen nik urrundik ere halako tristurarik sentitu. Zergatik disimulatuko nuke gaur? Oraino ere minago dut egun hartako gertakiaz bi amona gaixoen desagerketaz baino.

Allikenera bihurtzerakoan, berehala antzeman didate zerbait gertatu zitzaidala.

Gurasoei eta aitatxi Erramuni egia aitortzen ez naiz ausartu.

Ixaskuni, bai. Gertakaria kontatu diot xeheki.

–Ezeik holan hartu, motel –esan dit–. Zoritzarreko gertaera izan dok, hori bai. Baie eztozue intentziño txarez yokatu. Apurka-apurka ahaiztu egingo yak.

–Etxonat ahaiztu gura, hain zuzen be! Katutxo gizajoa!

Eta negarrari eman diot luzaz, oso luzaz. Afaldu ere ez dut egin.

Gero ohean sartu naiz.

–Gu hil ondoren –pentsatu dut– arima hilezkorra dugulako, beste munduan biziko gara betiko. Baina katuek ez dute arimarik... Goianeko katutxo beltza, hortaz, ez dut sekula berrikusiko. Katutxoa, kitto!

Patu desberdintasun hori bidegabekeria hutsa iruditu zait.

Eta zotinka hasi naiz berriro; eta etxekoek ezer entzun ez zezaten, zapi busti batean kosk egiten nuen estu-estu, ahoa era horretan mututuz.

Hots, guztiz ahituta nengoelarik, eta loak hartzeko zorian, tximista batek gurutzatu du nire barrunbea:

–Katuek ez dute arima hilezkorrik. Eta... guk... bai ala?

Hamabi urte besterik ez nuelarik, erantzun garratza sumatu dut. Baina koldarregi eta gaztegi izan naiz pau-soa egiteko.

Gaur, 38 urte geroago, Goia baserrira gerturatu naiz. Sartu ez, ordea. Zertarako?

Aste hauetan jakin dudanez, Landatar bi zaharrak hil egin dira. Eta Peru eta Markel, Bilbora bizitzera joan ziren aspaldi.

Bego, berriz, Goianean bizi da. Seme-alaba bi dituela esan dit Ixaskunek; eta senarra ezagutzen duela. Erdalduna dela, bai; “baina oso pertsona prestua” dela segurtatu dit.

“Gure arteko erdaldunak beti izaten dira prestuak eta finak”.

Eta ez dut ezagutzeko gogorik batere sentitu.

Atxetako errepidearen aldetik begiraturik, baserriak atzetik zeukan leiho tartedun hura aldatuta dagoela eman dit.

Errepideaz harateko belazean, zut jarritako gurutzearen arrastorik ez dago. Noski!

Baina nik ez dut gurutzearen beharrik izan bertara artez joateko. Zehatz asmatu dut hezurak non dautzan.

Eta bertan belaunikatu naiz.

Ez dut otoitzik egin.

Zertarako? Nori?

Baina isilik egon naiz hamar minutuz, hogei minutuz, luzaroan. Belaun koskorak minberaturik jaiki behar izan dudan arte.

Eta itsasotikako orroak pentsakor utzi nau.

XVII

Allikeneko garaiez oroitu, eta betirako joan direnen hutsunea gero eta nabarmenagoa izaki, gero eta disimulagaitzago.

Eguberria aurten biok buruz buru ospatzea (ospatu?) erabaki dugu arrebak eta biok.

–Ospatu halanda be –esan dit Ixaskunek–, hogei urtez etxetik at ibili ondoren etxera etortiak “ospaketa” merezi dauelako.

Atxetako Allika-tarrengana joatea ere bururatu zitzaigun, egia esan. Baina gure ama orain dela hamar hila labete bakarrik hila delarik, uzkur geunden. Eta ez mugitzea erabaki dugu.

Ander Iturriagak, aldiz, Arrano tabernakoak, gure bakardadea sumatu bide zuen: eta preso senide honekin eta harekin elkartzea proposatu zigun.

“Gabon-gaba ez da bakarrik ospatu behar”, zioen bere notatxoan.

Ezetz erantzun genion hala ere. Baina zinez proposamena eskertuz.

Oso epela zegoen eguraldia, harritzeko modukoa. Nahiz, egia esan, gure herrian Eguberri inguruan horrelako epelaldiak maiz samar gertatu.

Labartzako neska-mutil talde batzuk igo ziren goizean gure etxeraino kantari:

*hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera*

Bazkalondoan kalera jaitsi naiz.

“Hamazazpi urte... hogeita lau urte zehazkiago... honelakorik ezinean joan zaizkit”.

Kalez kale ibiltari multzo mordoxka topatu dut, baserritarrez jantzirik eta askotan trikitia lagun.

Herriko Tabernako kideek antolatutakoa izan da jendetsuena eta biziena. Hauek bazeramatzaten aurretik txistulariak, atabalariak, eta guzti.

Eta haga punttetan ezarritako fotoetan bederen, lagundu egin dituzte kantariak bertako lau presoek: Jon Zelaiak, Antselmo Elorduik, Tomax Eubak eta Malen Solagaistuak.

Afari xumea egin dugu geure etxean. Ama oroi, ama gogoan, ama aurrean; ama jangelako pareta nagusiko argazki bikainean, bera buru, eta 50 bat urte zue-larik.

Baina “ama” hitza aipatzeko herabe. Hildakoak ez dira oturuntzetan aipatzen. Ezta gure afari ezin xumeago hartan ere.

Gure ama 84 urterekin hil zen, aurtengo otsailean. Guztiz xahartuta; nahiz buruz bukaeraraino erne egon.

Benetako galbarioa izan zitzaizkion nire gartzelako azkeneko urteak: Valcorneja de Cepedillan emandakoa, alegia.

Aurreko bostak (Puerto Ilkoak eta Jaengoak) ez horren bortitzak, alde batetik. Urrunegi nengoela-eta, hiru aldiz baizik ez zen hegazkinez etorri.

–Ni bestiak letxe –errepikatzen zuen, autobusez etorritzen zelarik.

Baina Valcornejako garaian, “bertago” (731 kilometro, mapan neurtuak), eta “senideen” multzotik at ibiltzea batere gustatzen ez zitzaiolako, txarto.

Laurogeitaka urteko emakume batek ezin jasan zitezakeen bidaia haiek.

Eta autobus batzuetan literak erantsi zituztenean ere ez. Zakarregi adin horretako pertsona batentzat.

Joana eta etorria elkarren segidan itzultzeko eran antolatzen ziren: larunbat goizean ordu erdiko bisitaldian egin (gu “txapeoan” ez baginen, gainera...), eta igandean, bigarren gau txar bat pasa ondoren, etxera.

26 ordu, komunik gabe batzuetan, infernua.

Eta 80, 81, 82, 83 urteetan, erantzun ezinezko erronka.

Berak, ordea, bere Antontxu ikusi nahi zuen kosta ahala kostarik.

–Emakume gogorra gure ama –bota nuen.

Erantzunik ez Ixaskunengandik.

Allikeneko erloju zeremoniatsuaren *tak-tok* geldoa entzun zen.

Eta hamaiketarako ohean ginen biok.

Leioha zabalik, multzo baten hitzak iritsi ziren nigaino.

*Hanixen gisa phartitü nintzan etsaian güdükatzera,
gogua bero, bihotza laxü, eta kasik alagera,
ezpainakian orano ordian zer zen amaren beharra,
hari phentsa eta biga bostetan, aiher zitzaizün nigarra.*

Eta leioha hetsi nuen.

XVIII

Labartzaz bestaldean, Izarteko lata beldurgarriaren erditsuan, mugitu ezinean gertatu nintzen arrastiri batez itsasora begira. Musker hori-berde eder baten atzetik tematuta, konturatu orduko izu betean.

Berrogei bat metro gora, gaineko zelai eta labartzabururaino; eta beste berrogei behera, zut, itsasertzeko arroketaraino.

Neure hartan muskerraz ahaztu nintzen.

Bizkarraren kontra neukan arbel eiteko horma berdaxka luzea. Eta aurrealdean, berriz, itsaso zabala.

Neure oinak belar izpi bakanen gainean pausatzeko koskak, ozta-ozta ni zutik egoteko aukera ziztrina eskaintzen zidanak, arra pare bat zabal baino ez zuen.

Arnasari ahal bezala eutsiz, eta atsedenaldi laburrak noiztenka baliatuz, jiratu egin nuen soina, eta eskuinteko besoa zabaldu. Esku ahurraz har-lata ukitu nuen. Hotz zegoen oso; eta, izoztuko ez bazitzaidan, askatu egin behar izan nuen segituan.

Eta oreka ezegonkorrean berriro, besoak inora heldu gabe gelditu nintzen.

Mehatxu nabarmen gisa, itsas orro gaitza zetorkidan latapetik.

Ez nuen deusik ulertzen.

Erokeria hutsa zitzaidan koska arriskugarri hartaraino jaitsi izana.

Umetandik genekien sugandilen eta muskerren bila Labarganera igotzen ginenean, guztiz kontuz ibili behar zela Labarburun eta Izarte gaineko ertzean.

Goi hartatik amilduz gero, arroketaraino erortzeaz beste aukerarik ez zegoen.

Hortaz, zerk eraginik haraino lerraturik?

Izarteko labar zutaren erditsuko koska hartan ni oinutsik paraturik, bitan banatzen zitzaidan mundua: aurrealdean, itsasoa neukan; eta atzealdean, harri berdaxkazko horma hotz ikaragarria.

Arrastiria mamitzen hasi zen; eta Labarganeko Farola piztuta, bere argi balak hedatzen hasi zen gainaldetik eta Kantauriraino.

Ez gora, ez behera ni. Ezin deusik.

Zer egingo?

Antxeta zuri-urдин mordo bat pasa da nire aurretik, karrakari; eta latapeko harkaitzetara jiraka jaitsi.

–Antxeta bihur ahal banendi! –neure artean.

Aurrealdeko itsasargiak pizten hasiak ziren, banan-banan, eta Capbretoneraino: Igeldo, Iger, Miarritze... Besteren bat ere bai, ñirñirkari, bertago eta eskuin alderago.

Hotzikarek hartu naute bortizki.

Zer egingo? Zer? Zer egin ote nezake neure hartan?
Noiz arte eutsi ahal izango?

“Alajainkoa! –neure artean ari–. Lata berdin beldur-
garri honetan, zulorik ez, heldulekurik ez, tarterik edo
arraildurarik bat ere ez!”.

Orduan orro berri bat sortu da itsaso urrunetik.

Eta olatu eskerga bat lehertzen hasia ikusi dut aurre-
aldean, tsunami erraldoi bat, ihortziri etengabetan itoa.
Itsasikara bat Labarganera zabalera osoan heldu.

Arestian ikusia nuen itsasargien ilara suntsitu egin da
olatu erraldoiaren atzean.

Jaisten saiatzea erokeria izango zelakoan, goraka abia-
tu naiz. Alegia, eskuineko hanka jaso dut eta horman
pausatu. Igotzekotan.

Eskuetan hotz mingarria sentitu, eta oinetako beha-
tzetan, aldiz, azkura.

Burua jiratu, eta itsasaldea berrikusi dut.

Sekula antzemango ez nuen “maelström” ipartar hu-
ra bertago zen, eta altuago, eta erraldoiago.

–Eneee!... Eneee!!... Eneee!!! –bota dut hiru aldiz,
gero eta ozenkiago.

–Zer dok, ordia? –esnatu nau Ixaskunek bere gela-
tik korrika nigana etorrita.

–Lokamutsa izan don! Lokamuts ikaragarrixa!

Taupadak azkarregi, kezkarregi neure bular asalda-
tuan.

–Garrasi galanta bota dok “ene”ka. Motel!

–Parka!

–Ez ezer esan! Okerrago izate’ei dok. Bixar hoba. Zerbait bero edo hartu gura dok? Oiñtze prestatuko deuat.

–Tira, ba. Milla esker!

Ordua begiratu dut: ordu bata ia-ia.

“Ordu bata oraindik?”...

–Tila bat egingo deuat –esan du Ixaskunek.

Kendu gabe zegoen eguneko orria erauzi dut: urtar-
rrilaren 18koa, eta irribarrez irakurri: *Bihar Danborra-
da Donostian eta Azpeitian...*

Allikenetikako erloju dotoreak orduantxe jo du: Or-
du bata.

“Valcornejaz geroztik lau hilabete joanak –neure
kolkorako– eta orain... gau hau nola bukatuko dudan
kezkatan... Ez duk, izan, oso balantze baikorra”.

XIX

Lokamutsaren bortitzak kezkatu rik geratu nintzen. Ahulduta bezala.

Eta irakurketak berak, erdizka bederen, alde batera uztea erabaki nuen.

–Lehen baino bakanago ikuste haugu Kulturunetik, nik uste –jaurti zidan Endika Ozamizek halako batez.

Ezin nik uka:

–Bai. Halan da. Xuxen erreparatu dozu nire aldaketa. Baie larregi sofritze’ot yoan dan mendeko gertakariak; eta irakurketak mantsotzea erabagi dot.

–Holan bada, ondo eiña. Laga’ik bolara batez. Gero helduko deusak gogozago. Liburuak hamen yagozak, eta hemen egongo be.

Handik zenbait egunetara, berriz:

–Etorlean, zuri abisatzeko esan deust nagusixak.

Bakarne niri harrera gelan mintzo.

–Zugaz berba egin gura dauela.

Sartu naiz.

Beti bezala Ozamiz alde guztietatik liburuz eta papez inguratua, eta antipar kaxkarrak ozta-ozta sudurra-
ren puntan jarrita:

–Geur bayuat hiretako barri on bat, Antton. Aitta Fermin Orue ezagutu heuan?

–Ez. Eztakit nor dan.

–Euskaltzale jakintsu bat. Orain dala zazpi hillebete Omabarren-en hil zuan bere 91 urtietan. Leku berian 36 urtez erretore egon ondoren.

–Ez, ez. Eze'be eztakit.

–Bada, urtietan barrena liburutegi interesgarrixa bildu yuan; eta, hiltian, guri, Sagarminaga Kulturetxeari emon, eta hamen yagozak liburuok. Etorritako liburu batzuk bayeukaguz hamen, eta bikoxturik geure altxorrean alferrik lukek. Eta hik heuk heure esku ixango dittuk. Eta aldizkarietan, areago: bayeukaguz gehixenak; eta hiretako. Ganera, apurka-apurka etze honetan leku urrian ibiliko gaittuk.

–Ta? –nik.

–Ba... horreik be hiri eskaintzea erabagi yuat. Hau edo ha etxakaz interesgarri gertatuko, bayakixat; eta aittatzea be etxok merezi: *Revista de Espiritualidad*, ale mordoia, adibidez. Edota *Iglesia Viva*, *Hispania Sacra*, *Los Ríos*...

–Ez. Horreik...

–Horreik hamen. Bego. Karlos Santamariak zuzendu zituen “Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián” haietatik ateratako *Documentos* sail osoa yagok, 1948-1954 urteetakoia. Baitte Mounier-en

Esprit mordoska be, garai berekoak. Gura dozak horreik?

Berriz ezetz esan behar nion. Gogortxo zitzaidan.

–Egixa bota, lasai. Ez?

–Ez.

–Euskal Herriari buruzko liburuak eta aldizkariak, aldiz, interesgarri izan zittezek. Auspoa sorta osoa yagok, adibidez, hasera-haseratik. Berrehun bat ale. Sagarminagak bayeukok sorta osoa. Hortaz...

Ez nekien zein hitz erabili eskaintza hura eskertzeko.

–Eusko Ikaskuntzako sorta be bayagok, 1983tik aurrerakoa (ale zaharrak ez). Baitte *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*-koen saila, 1945etik aurrerakoa. Sagarminagan bayagok. Beraz, libre...

–Gura! –nik

–*Arantzazu* hillebetekariaz, zer? Eztok beti oso interesgarrixa...

–Zergaittik ez? –nik–. Gura!

–*Fontes* saileko parte bat be, hemen dok: 1969an hasi, eta 1999ra arte. 83 ale. Tamaina handikoak.

–Badakit, bai. Bikain!

–*Egan* sorta? Osoa ez. Baie ale asko bai. Badakik zer dan...

–Gitxi gorabehera bai. Aspaldikoa. Literatura... Enaz iñoiz zalea izan. Baia... tira.

–Letu egin biar gero!...

–Bai, bai. Saiatuko naz.

Zerrenda horretan antzematzen zen garbiki, nire us-tez, On Ferminen adina.

–Hamen daukok “gaurkoago” zerbait: *Herria 2000* aldizkariaren bilduma, ia osoa. “Teología de la Liberación” eta...

–Badaukat, bai, horren barri. Abade jatorrak, behar bezalakoak... Bai, beraz... Gura!

–Bai, bai. Eroan. Sagarminagak bayuk hori be, osua. Ez dakit zenbat aldiz esan dudan “gura” hitza... Lotsa apur bat ere banuen. Baina ez nuen aukera galdu nahi.

Harrituta nengoen. On Fermin hark kezka filosofiko zabalak zituen... Estoikoekiko jaiera zuen, itxura zenez: Krisipo, Zenon, Epikteto, Marko Aurelio enperadore filosofoaren *Pentsamenduak*... Omabarren txikian halako kultura zabaleko apaiz bat... ahazturik!

–Ta... zelan eroango dozak etxera? –Ozamizek galde.

–Arazorik ez. Nire arrebiak Opel bat badau, bai?; eta bi edo hiru txandatan, bukatua.

Isilune bitxi bat sortu zen gure artean; eta, bere hitzak ongi neurtuz bezala:

–Baldintza bat jarriko deuat, Antton, honen guztien truke. Bizkaiko geografiari buruzko doktorego tesia amaitzea. Zehazkiago egingo deuat proposamena: zergatik ez Bizkaiko toponimia sakonki ikertu?

–Harrapatu egin nozu! Ezin nei ezetz erantzun!

–Hortaz, egiña! –berak.

Txorabioa bezalako zerbait sentitu nuen. Poza ere bai, noski. Baina... ez ote zen berantegi izango? Hama-

zazpi urtez ezintasunean bizi ondoren, orain nola-hala “plazara” jauzi egitea proposatzen zidan Ozamizek.

Eta, mementoko, Ixaskuni proposamen honen berririk ez ematea erabaki nuen.

Apalak bagenituen Mateo Zugastiko etxean; artean huts-hutsik ia.

Ene arrebak ez du irakurtzen. Orain arte ez nintzen jabetu.

Zamaketa eta zamagabeketa izan zen lantsuena.

Bidaia, bost minutukoa agian. Zenbat behar da bada 500 bat metro egiteko? Ez baitago gehiagorik etxetik Labartzako Kulturuneraino.

Egun hartan oso berandu oheratu nintzen; eta gerria minduta.

Baina, lortutako “ihiziaz” loriaturik, primeran egin nuen lo.

Eta F. Berthouden ordulariaren dei errepikakorren arrastorik ez nuen nabaritu.

Froga handiagorik?

XX

Liburu eta aldizkari taxuketan eman nuen ia aste osoa.

Ixaskunek ni presondegitik irten orduko pareta osotan luzeran prestatutako apaletan, tarte huts galantak zeuden (batzuetan alderik alde hutsik); eta Ozamizек opaldutako mordoa gaitza izanik ere, zerrenda ordenatuan kokatzeko behar adina lekugune antzeman uste nuen.

Hura poza!

Sekula aurreikus ezin nezakeenaz gainetik, jarrera berri bat aurkitu nuen neure buruan. Alegia, aldizkari haiek “menderatu” beharretan... berorien “tamainaz” kezkatu rik nenbilela! Edota sail hau edo hura ilaran jarrita, zenbaterainoko “luzera” hartuko ote luketen... Lotzarria!

Auspoako 200 bat liburukiak, adibidez (1999ra artekoak beti opariari zegokionez), txikiak dira; eta bost bat metrorekin aski.

Fontes aleak, aldiz, altura handikoak, 1,50 bat metro beharko. Gehixeago ote?

Egan mordoa, *RSVAP* boletin pila (1945etik aurrerako gehienak, iruditu zaidanez), *Arantzazu... Herria 2000*koak errazenak.

Lan nekeza zen hura, lan itsusia batez ere, eta, denaz gain, nire gerri makalarentzat desegokia arras.

Baina loriaturik burutzekoa.

–Laguntza gurok, Antton?

–Ez, ez. Hau norperak egiñ bi'yon; eta neuk baka-rik egittia onena.

Bost egun, goiz eta arratsalde, eman nituen apaletako borrokan. Bazkari legetxo bat egin azkar-azkar, eta berriro neure gelara, arratsera arte.

Hots, oherakoan, apal muttur txoko batean, zutik zegoen album dotore galanta erreparatu nuen. Eta aurrealdean erdi-erdian eta liburuaren bizkarrean, urrairezko letratan idatzirik, hitz bakar hau ikus zitekeen bi aldiz: *Fotos*.

–Hara! –neure artean–. Ez nekien-eta Ixaskunek honelako bildumarik prestatu zeukanik ere!

Orrialde beltzez osatua zen.

Eta orri loditxo beltzon arteetan, babeski, paper garden mehe bana.

Eta xeheki begiratzeari ekin diot.

Azalpenik bat ere ez. Foto bat, eta beste bat, eta beste bat; hurrenkera kronologikoan, itxura denez.

Ixaskunek (edo amak lehenagotik, antzeman dudanez) prestatutako bilduma hunkigarria.

Allikeneko garaietako foto mordo bat. Horregatik uste dut foto-bilketa amaren emaitza zela oro har.

Hain zuzen ere, nik orain lo egiten dudan ohearen gainean zintzilikatuta dagoen koadro zabala, album honetan dagoen foto txiki baten zabalkuntza baizik ez dela ikasi dut. Aita eta ama ageri dira bertan, beren onenean, ezkon-berritan. Oinean 1947 data irakur daiteke.

Valcornejatik irtetean Ixaskunek erakutsi zidan fotoa ere, bere markoa eta guzti ekarri zuena, 1956koa alegia, Allikene aurrean egindakoa, liburuan dago, jatorrizko txikian.

Arrazoi askorengatik, oro har behintzat, eta lehenengo parteari dagokionez bereziki, albuma amak berak alargundu ondorengo bederatzi urteetan barrena prestatutako lana dela egingo nuke postura.

Beharbada Iparraldetik aitak Labartzara ekarritako ohiturari jarraituz (nire iritzia besterik ez da hau, jakina) foto pila sailkatu da ene familian “kanpoan” egon naizen urteetan.

Eta nik, liburu-kokapen lantsua amaituta, otsailaren 3 hotz honetan (Kandela Egunaren bezperan!), ustekabeko *Fotos* bildumari esker, eta birrinduta egon arren, galdutako urte urrunen atsegin malenkoniatsua goza dezaket.

Leihoan haize balen eta tartekako kazkabar jasen hotsa entzuten nituen.

Gaueko hiruretan (Ixaskunek berriro soinudun arrabihurturik!) F. Berthoud erloju dotoreak entzunarazi du bere melodia laukuna: mi-do-re-sol... sol-re-mi-do.

Eta ondoren hiru kanpaikada ozenak.

Gero eta laburrago sentitzen nuen arnasa, hauspoa eskastuz joango balitzait bezala; eta eztarria gero eta minberago.

Baina argazkien begiratzeari eutsi nahi nion.

–Hara! Ahaztuta neukan hau!.

Allikeneko balkoi luzean agertzen gara ama eta biok.

Ezkerreko besoaren gainean jarrita nago ni, amak eskuinekoaz altzoan heltzen nauelarik. Irribarrez niri begira (ni neu oso serio fotografoari so nagokiolarik), harro bide dago ni naizen bere haurraz.

Zenbat urte ote nuen nik argazkia egiterakoan? Urtebete? Hemezortzi hilabete? Datarik ez baitakar.

1951 ingurukoa, beraz. Amak 35 zituelarik.

–Berandu jaio ginen mundura gu bi neba-arrebok –neure artean.

Gure ama bere helduaroan nolakoa zen ikus daiteke.

Gure ama ez zen polita. Hauxe da egia. Kasu hone-tan, zinez, arrunt zetxezkion elkarri itxura eta barnea.

Emakume sendoa zen, gogorra; bortitza tarteka, esango luke agian besteren batek. Beraxkerien kontra-koa osoki.

–Erdeñatu itten yuataz itxurazaleak! –errepikatu ohi zigun.

Berbetan sendo. Besoetan, hanketan, lepoan, dene-an zen bezalakoa. Doinuaz eta algara motaz, Bermeoko saregile horietako bat izan zitekeen.

Baina triku zakar haren barruan, emakume otzana eta bihozbera zen bereentzat; eta, beharra gertatzekotan, bere buruaz ahaztu eta dena emateko presta.

Eta orduantxe gogoratu zitzaidan, gau minean, Allikenetik (eta Labartzatik) 1979ko udaberrian “desageritzeko” neure deliberoaren berri ematera joan nintzaionean, zer gerta ote zekidakeen beldurrak hartuta, betazalen dardar bat itzuri zitzaiola...

Isilune laburra sortu zen gure artean.

–Parka, ama. Aberriaren alde borroka egitteko itxi biar zaittuet.

–Yakin bari’pe bayakixat, Antton. Eztok azalpenik emon biarrik bapere.

Eta besarkatu egin ninduen estu-estu:

–Habil tentuz, mutil! Kontuz, laztana!... Gurokani-an, hator lasai Allikene honetara. Hire etzia izan dok hau; eta, zer gerta be, hire etzia ixango’ok beti.

–Badakit, bai.

–Ez sekula yoka billurraren ondorixoz. Hire aittitta Ikerrek pe, ene aitta zanak, etzuan Intxortako erasoaldixan bere buruaz akordatu. Eta larriki zauritu yuen fazistak... Etzan umia halan-da bere: 53 urte yuan ganian, eta nik neuk 21. Ospittalian emon yuan hillebete bi, eta gero... Santoñan altxatu yuen preso... Gudua galdu geuntsan, bai?, eta gero gerokuak etorri dozak.

Hitzik gabe nengoen, mutu erabat.

–Emostak musu, seme!... Eutsi goixari! Zuek zarie gerua eta esperantzia... Neuk emongotsat hire barri aittari. Herrira jaitsi dok gabera arte.

Bantzuari helduta eskailean gora zihoalarik, balkoian gelditu da, niri begira.

–Agur, ama! –esan nion ahots hari mehe etenkor batez.

–Agur, laztana! –doinu sendoagoaz berak, itxuraz bederen.

Azoka Zaharraren aldera urruntzen ari nintzelarik, zaunka luze harrigarri bat bota du Baltzak. Zerbaitez konturatu da. Ziur nago.

Tarteka gelditu egiten nintzen ni, eta Allikene aldeira begiratzen. Eskutan hartua zeukan zapi zuri bat eragiten zuen amak orduan.

Poltsikoan neraman mokanes zuria atera nuen nik ere, neure aldetik agurrari erantzuteko.

Seiabideko gaztainondora iristean, burua jiratu nuen. Allikeneko balkoian ez zegoen jadanik inor.

Fotoen begiraketara itzuli naiz...

Amak irribarrez begiratzen zidan foto hartan Allikeneko balkoi luzean.

Erloju zeremoniatsuak ordu jotzeari eutsi dio: mi-do-re-sol... sol-re-mi-do. Eta segidan... lau kanpaikada entzun ditut!

“Laurak!”...

Hura gaua!

Eztarria minduta, begiak bero, *Fotos* liburua berriro bere txokoan jarri, eta ohean etzan naiz.

Loak hartzeko batere esperantzarik gabe.

XXI

2001 honetako Santa Ageda bezpera, domekan tokatu zen.

Eta aski goizetik hasi ziren ume-multzo zalapartariak iparraize hotza nolazpait goxatzen eta Labartzako kale-etxebizitzetara iristen.

Baina talderik ikusgarrienak arrastirian irteten dira; eta baserriz baserri, makuluak, trikitia eta kriseilua lagun ibiltzen.

Arranoak ere berea atera du. Eta, aitor dut, ez naiz beroriekin joan. Gogorik ez.

Gure Allikenera ere etortzen ziren, batzuetan euri jansa zakarren artean. Gizajoak!

Baserri barruan errezebitzen genituen; eta ardoa eta txistor frijitua denon artean jaten.

Gaztaroan, oraindik ere aitatxi Erramun, amama Ixone eta Anjel Gizaburu etxeko morroia zaharrak bizi zirelarik, berauen ohorezko bat-bateko bertsoak eskaintzen zizkieten kantariak. Eta festak bazeukan alaitasun kutsua.

Geroago, berriz, baserrian bost senitarteko bakarrik gelditu ginenean (bi gurasoak, izeko Zuri amaren ahizpa, eta gu biok), jokabidea ez genuen aldatu: ardo beltza eta txistorra banatzen genuen baserriaren barruan.

Baina Amañi Gaxuxak frantsesez esan ohi zuenez: “le cœur n’y était plus”.

Gero “desagertu” egin nintzen ni; eta, beraz, oker ez banago, 1979an ospatu nuen Santa Iageda bezpera azkeneko aldiz Allikenen.

“Hogeita bi urte! –neure artean–. Sinets ezina!”

Hots, neroni ere harritzen naizelarik, gartzelan presatutako *bidaia kontra-kronologikoan*, Santa Agedaren arrastorik ez.

Allikene desagertuta, jakina, talde kantaren bila “InmoViz” bloketzarretara joateak ez luke funtsik.

Goia baserria, ordea, gure lehen auzoa nolazpait, horxe dago zutik; eta harantz behintzat hurbil nintekeen.

Tabu.

Ez nuen nahi izan. Santa Iagedaren oroitzapenak desagertuak bailiran...

Alderantziz, ordea, kanta hark eta bisitaldi haiek nigan diraute tinko:

*Aintzaldu daigun Agate Deuna,
bixar da-ta Deun Agate;
etxe honetan zorixon hutsa
betiko euko al dabe!*

Eta amaitzeko, “Eup!!” ozen bakar bat.

“Joanak joan” errepikatzen nion neure buruari.
Baina faltsuki mintzo nintzaion.

Behin eta berriz *Izana izen gaiztoa* esaera pozoitsu
hura nagusitzen baitzen nitaz, benetan tema astun eta
eritasun iraunkor bihurtu arte.

XXII

Gogorik ez ezertarako, zergatik ez dakidalarik.

Ondarrondotik joan naiz Dorreraino.

San Telmo hondartzan kristaurik ez. Kaio zuri-urdinxka mordo bat itsasertzean, Iparralderantz militarki noratua. Itsasoa harro samar, tarteka kaioak barru alde-
rago bultzatzen.

Eseri egin naiz aulki luzeetako batean, surflarien txabola itsusiaren inguruan.

Baita berehala hoztu ere, hezurretaraino.

–Zozoa haiz, motel –neure artean–. Otsailean hor eserita ez haiz ba izoztuko?

Eta etxerantz abiatu naiz.

Dorre jauregia hasteko, Arteta parkea gero (soildua arras), eta betiko ilaran gero Aranbaltz, Loretxu, Unbe, Maitena, Uruburu-ene zuhairsua (piano arrastorik ez gaurkoan), eta Kantoi, erreka ertzean.

Ubago erreka gaineko zubiñoa gurutzatu dut. Eta panela irakurri: Labartza Barri.

“Neure auzoan” sartu, eta Muskildi jauregiaren arrastorik ez.

Erotu uste nuen.

Aurrerago segi, eta Itsasgane xaleta ere desagertua.

Ikarak hartu nau. Eta atzera egin dut, Ubago gaineko zubiñoa berriro gurutzatuz, Ekialderantz oraingoan.

Jauregien ilara, betikoa, normal aurkitu dut: Kantoi, Uruburu, Maitena, Unbe, Loretxu, Aranbaltz, Arteta parkea...

Batera jo naute beroaldi harrigarri batek eta izerdi hormatu batek. Eta besoak busti zaizkit.

Ez nuen deusik ulertzen.

San Pankrazio kanpandorreko erlojuak jo du: arratsaldeko laurak. Oso ilun jadanik, eta gero eta haizetsuago eta hotzago.

“Etxeratzeko tenorea, gainera”, neure kolkorako.

Eta, itsasoa eta San Telmo hondartza berriro eskuin aldean utzita, Mendebalde aldera abiatu naiz: Arteta, Loretxu, Unbe, Maitena, Uruburu, Kantoi...

Ubago gaineko zubiñoa pasa, eta, berriz... Muskil-di, Itsasgane... desagertuak.

Dardarizo bortitz batek inarrosi nau.

Ubago ertza korritzen duen Lauaxeta kaia hartu dut. Eta, Landaluze zubiaren ondoan, gazte batekin egin dut topo.

–Kaixo, gazte! Etxera lagunduko nok? –galdetu diot.

–¿Cómo dices?

–Euskaraz eztaikik ala? –nik.

–En erderas, por favor. No te entiendo.

Hura goragalea! Baina larriagoa nire hotza, eta aurre egin diot purrustadari.

–¿Me podrías acompañar hasta casa? Vivo en Labar-tza Barri, estoy pasado de frío, y no encuentro mi casa... Nunca me había pasado esto.

–¿Que no encuentras tu casa?

Eta barre algaraz hasi da:

–¡Pobre viejo! Con este cierzo y con tan mala cabeza, no hay que moverse de casa. ¿Entendido?

–Entendido, sí –nik, umil-umil.

–¿Dónde está tu casa?

Arazorik gabe erantzun ahal izan diot:

–Mateo Zugasti, 33. Pasando la regata Ubago.

–Vamos para allá.

Eta eraman egin nau Landaluzetik, pendiz borobila inguratuz.

Ertzak hormaturik zeuden.

–Agur, abuelico!

–Agur, gazte. Milla esker.

Etxera sartzean neure gelara joan naiz artez.

Ixaskun ez zen oraindik Odxela-tik bihurtu.

“Berotu egin behar aurrenik”, pentsatu dut. Eta kafesne beroa hartu dut. Bi katilukada.

Zer egin behar nuen? Alegia, nola jokatu behar nuen gertakari kezkarri honen ondoren?

Ixaskuni berari dena ezkutatzea, zentzugabekeria.

Eta, bihar edo etzi (gaur berton, ezin) gertatutakoa kontatzea erabaki nuen.

Aitak eta amak agurtu egin naute argazkitzarretik. Berbarik gabe.

Baina mintzatzen hasten zitzaizkidala iruditu zait.

Zortziak aldean sartu da Ixaskun etxean. Eta gertakaria nire ahotik ikasi.

–Bitxi dok, bai. Ene ustez Bilboko psikologo baten-gana yoañ biar hintzateke. Oso urduri ikuste’ aut azkarenngo aste honeitan ganera.

Eta hamar bat minutuz isilik egon ondoren, bere proposamena egin dit:

–Norentzat dan esan barik, neronek yakingo yuat neurologo baten barri edo. Hi, lasai.

–Saiatu egin biarko!

Eta harra barruan ari, oheratu egin naiz:

“Ez nabil ni ondo, eta ez gutxiagorik ere. Edozerk hausten nau, edozerk etsipenera eramaten. Ez naiz lehengoa”.

Itsas orroa, galanta.

Eta barne asaldua, latza.

Biharamunean beste gertakari bitxi hau jazo zitzaidan; eta are kezkatuago utzi.

Ondarrondo pasealekutik Labargane aldera nindolarik, aurretik hurbildu zait berrogeita hamarretan zegoen gizaseme bat. “Adinkide bat”, esan nezake.

Zer diot “adinkide”, ordea? Sosia bat hurbildu zaidala esan behar nuke: guttiz nire antzeko gizaseme bat, nire anaia bikia (izan banu). Areago: ispiluan neure burua begiratzen dudanean aurrez aurre ikusten dudana berbera.

Ikaratu egin nau osotara: “bera ni da”... Edota “ni bera naiz”.

Eta nire ondotik pasatzerakoan, doinu irmoz agurtu nau:

–Antonio Diarsegay!

Enrique gartzelazainaren ahotsa zen. Eta deituraren ahoskera okerra ere, berea.

–Presente!! –erantzun dut automata batek egingo lukeen bezala. Valcornejako errekontuetan egiten genuen bezalaxe.

Eta berak Atxeta aldera jarraitu du.

Uste dut. Ez bainuen badaezpada atzealdera begiratu ere nahi.

Hura izua!

Eskuin aldera jo dut aldapa leunean behera. Zorua labain zegoen tarteka. Eta ustekabean irristatu egin naiz; baina ez naiz erori.

San Pankrazio elizara sartu naiz. Zertarako? Zergatik? Ez dakit.

Hutsa eta hotza zegoen. Eta martiri gaztearen irudiari, tragiko gertatu beharrean, barregarri iritzi diot.

Aldareko eskuin aldean, argi xume batek zizekan.

Kanpandorrerako atea zabalik, eskailera hertsu erpinetan gora abiatu naiz arnasestuka.

Militarrez jantzitako soldadu espainol aldra bat sartu da elizara.

Alimaleko piperpotoari eragiten ziotelarik, oihuka hasi dira elizaren barruan. Eta tiro hotsak hasi dira: bost, hamar, ehunka...

“¿Dónde ehtá, Antonio, asesino?”

Harrigarrizko oihartzunak errepikatu dira barrukian:

“Asesino... sesino... sino...”

Geroxeago, Enrique mozkorti krudelaren ahots ozenaz berriz ere, galderak eta mehatxuak ugaldtu dira:

“¿Dónde ehtá? ¡Entrégate, Antonio! ¡Si no lo hase, será peor!”

Kanpandorrean goraino jarraitu dut.

Orduan isilaldi trinkoa gauzatu da.

Nik neure taupadak entzuten nituen une hartan.

Erlojuak ordua jo du nire ondoan ezin ozenkiago, belarrietan oinaze bizia emanaz.

–Bostak! –neure artean.

Eta mehatxu berak errepikatu dira

“Antonio!... Asesino!... ¡No saldráh vivo!... ¡Entrégate!”

Iltzedun bota astunen hotsak kanpandorre barrutik nigana hurbiltzen sumatu ditut.

–Ez!!! –jaurti dut garrasika, eztarria hondatzeko moduan...

–Tira, Antton! –esnatu nau Ixaskunek–. Mesedez! Zeri “ez”?

Eta sukaldera eraman nau.

Dardar nengoen hostoak haizetean bezala.

–Mantzaliña bat prestauko deuat. Eta lasaitu egingo haz.

–Hau ezton posible, Ixaskun. Zer gertatzen yat? Denaz gain hotzak akabatzen nagon.

–Beste katilu bat hartuik bero-bero. Eta jantzi txamarra hau ganetik! Zer zan? –Ixaskunek galde.

–Ez aittatzia onena. Benetan. Ezin nei. Ihes ezin egi-
ñik harrapatu nauben militar espāñolek San Pankrazio-
ren kanpandorrean...

–Eliza barruan hi? Ehaz ba maiz yuaten...

–Egixia halanda be –nik–. Hantxe nengonan, elexa
barruan.

Dardarizoez azkengabe ni astintzen.

–Yota hago nerbixoetatik, Antton. Medikutara yo-
an bihaz ahalik eta azkarrenik.

–Bai, bai. Honetakuan enon jareingo. Hau ezton
posible.

Arreba lotara joan da.

Nik, berriz, bi jertse lodi, txamarra eta txapela jantzi,
eta zerbait irakurtzea bururatu zait. Toponimiari buruz
ahalean, eta Bizkaikoaz izanez gero, hobe (eta ez Ozami-
zengatik bakarrik).

Eta *Fontes* bat hartu dut eskutan. Edozein. 39.a suer-
tatu zait:

Uhaitzibar osoa euskaldun izeneko artikulua iruditu
zait interesgarri. Txomin Peillen zuberotarrak idatzia,
Biarno aldetik euskarak galdutako eskualdeak zituen az-
tergai.

340. orrialdeko mapa, guztiz adierazgarria iruditu
zait: Azpilda, Üzkaiñe, Nabarzi, Xarra, Jestatsu –biar-
nesak omen– euskaraz mintzo ziren XIV. mendean.

Amorrua sentitu dut.

Amorrua bakarrik ez; botaka hasi bainaiz, garairik
okerrenetan bezala.

–Birrindu egin gaituzte goitik eta behetik! Aluak!...
Birrindu egin nauzue ni.

San Pankrazio elizako kanpandorreko lokamutsa-
ren garrasiak eta izuak itzaldtu egin dira nigan.

Sendabidea hortik edo lortuko?

Agian!

Zeren, neure honetan, Iparra galduko dut. Eta bu-
rua eta zentzumena ere bai.

Kontuan hartzeko gauza izango al naiz?

XXIII

Handik zenbait egunetara otsailaren 23a.
Aspaldidanik 23F deitutakoaren XX. urtemuga
zen.

Prentsak ozta-ozta zekarren aipamenik.

Aspaldiko kontu bihurtua.

Seiabideko Arranoraino hurbildu nintzen.

Eskegita zegoen ikurrina, beti egoten den bezala.

Baina besterik ez.

Ez ohar berezirik, ez deusik. Otsailaren 23a egun
“normala” da gaur.

Besterik zegoen nigan... 2001-1981... Hogei urte
igarota ere, oroitzapenak errealitateari gailentzen zitzaiz-
kion...

1981.

Prensa idazpuruek aho batez salatzen zuten otsaila-
ren 13an: “Los asesinos de Ryan han segado la vida del
Director de la Central nuclear de Lemóniz”. Gizarte ina-
rrosketa latzak pil-pilean zeuzkan bazter guztiak Euskal
Herrian eta kanpoan.

Ez zen hura, bestalde, gertakari larri bakarra aste ikaragarri haietan. Egun haietantsu, gaizki ez banago, Joxe Arregiren hilketaren berria hedatu baitzen, torturaren ondorioz burutua.

–Joseba!... Ryan!... Tejero!...
Hogei urte...

Denok goiz hartan irratira eta telebistara adi.

Oraindik badantzut. Tiro hots batzuk Madrileko Parlamentuan: “¡Se sienten, coño!”

Pistola bati helduz eta trikornioa buruan, guardia zibil bat mintzo. Eta berdez jantzitako kide mordo bat, hauek ere armak eskutan, aginduen betearazle Ganberan sakabanaturik.

Golpistaren izena berahala zabaldu da: teniente coronel Tejero, jadanik Euskal Herrian egondakoa.

Suárez / Calvo Soteloren arteko aginte trukea egitekotan diputatuak bertaraturik, “todo el mundo al suelo” oihuak, Parlamentu osoa bahiturik, parlamentariak zi-zeiluen atzean gorderik... Truke baketsu galanta.

Demokraziak ozta zituen bost urte Francoren heriotzaz geroztik. Eta berriro ere, beste *pronunciamiento* bat; mundu guztiko hizkuntzetara bere horretan hedatu den hitzari gaurkotasuna ematekotan.

Juan Carlos erregeak mintzatu behar zuela Tejerok agindu, baina errege-hitzaldirik ez.

Beldurra bazterretan, eta kargudun politikorik gehien-gehienak, diru mordoxka bat enkas sakelara; eta, Garaikoetxea lehendakaria bera bezala, hona edo hara ezkutaleku bila abiatuak.

Hogeita hamar urte nituen nik Tejerazoaren egunean. Baina hamabost hilabete lehenagotik ez nengoen jadanik Allikenen. Eta 23Fan... Barzelonan nengoen!

Diagonal hiribidean Erakundeak zeukan etxebizitzan atzeman ninduten gertakariak. Ezkutuan, hortaz; eta otsailaren 15az geroztik zain.

Ez Tejeradaren zain, noski! Ez bainuen horrelakorik espero. Nahiz, egia esango badut, aurreko asteetako gertakarien ilara ikusirik, Espainia bezalako estatu kolpezale batean, arestian aipatua dudanez, Tejero koronela horren harrigarri ez izan.

Aste eta hilabete haietan gure Erakundeak zeraman eskalada jasanezina zitzaion Madrili. “Suárez no está a la altura de las circunstancias –errepikatzen zen Espainia aldean–. El Estado debe responder sin más dilación, y con la mayor energía”.

Ni neu “Txelu” gaitzizeneko etakidea noiz azalduko nengoen beha.

Egun luzeak izan ziren zortzi haiek, kezka eta gogoetaz mukuru.

Nafarroago Idoibaltzaga herrian ikusi bainuen Txelu azkeneko aldiz, zaurituta; nik, ukitua izan gabe, mendian gora, mirakuluz, ihes egitea lortu nuen egunaz geroztik.

Rodríguez de la Espesura kapitalista harrapatu behar genuen; eta geure kotxeko maleteroan indarka sartu. Gero Erakundeak finkatuko zuen askapen-kopurua.

Eta aldarrikatu ondoren, eta sosa kobratu arte, geuk atxiki behar genuen Iruñe ondoan; etsaiak “zulo” bataiatu duen gordeleku horietako batean.

Espesurarentzako txoko hura, benetan, bere zazpi bat metro koadrokoa, ez zen batere gaizki.

Dena okertu zen, ordea.

Lantegitik irten, eta bere kotxera sartzera zihoalarik, “desbideratu” egin genuen Txeluk ta biok; eta geurera hurbilarazi. Gizon sendoa zen bera; eta ahots onekoa ere bai, berehala frogatu genuenez.

“¡Socorro! ¡Socorro!”, hasi zen garrasika.

Aurre egin zigun; eta maileterora sartu ezin. Atzeko aukira sartzan saiatu, eta hura ere ezin.

“¡Socorroooo!”, ozenki.

Segundoak aurrera joan, eta kinka gero eta arrisku-garriagoa.

Gauzak horretan, lantegitik irten da gizon bat oiherka, gugana hurbilduz, eta eskutan berak ere pistola bat zeukalarik:

–¡Alto ahora mismo, o disparo!

Esan eta egin.

Txeluk, gure aldetik, lauzpabost tiro bota dio, baina gure gainera tiroka zetorkiguna ukitu gabe.

Txelu bai, ordea, zauriturik; ene ondoan erori da odoletan eta itoka antza.

Ezkerreko besoaz ahal bezala Espesurari helduz, tiroka hasi naiz ni ere.

Eskuineko eskuan sentitu dudan beroa, eta inguruan zabaldu den bolbora usaina, nekez ahaztuko ditut. Eta Espesuraren jaregilearen begirada etsia ere ez. Bai jaregilea, bai Txelu neure kidea, neure ondoan neuzkan, orroka, itxuraz biak hiltzen ari. Espesura jauna eta biok, uste dut, osorik.

Uste ustela niri dagokidanez, berehala konturatuko nintzenez.

Neure Browninga eskuan guztiz estu atxikiz, mendian gora abiatu naiz, arnasa azkarturik. Nik neuk ere ito uste nuen.

Gorago eta gorago. Sasitik sasira.

Zakur baten zaunka entzun nuen. Urrunean hasieran, baina gero eta bertago.

“Baserri bat”, neure artean.

Eta horrelaxe izan zen.

–Egun on, Jainkoak! –esan nuen ozenki.

Erantzunik ez. Zakurra bakarrik bere zaunkaldi luzean ari.

–Egun on! –nik berriro.

Berriro beste isilune luze bat.

Andere xahar bat hurbildu zait orduan.

–Bai zuri ere!

Arnasa lasaitzen hasi zait.

–Nor zaittugu? Edota, zer nahi duzu?

–Bi gauza bakarrik. Bata hau: arrastirira arteko orduetan, ni hemen ezkutatu ahal izatea. Ilundutakoan joango naiz. Eta bestea, arte horretan galderarik ez egitea. Ez dut ezertxo ere zuen kontra; beraz, lasai.

Eskuetara begiratu du, eta ikaratu egin da. Zizpoleta neraman. Eta eskuineko galtza, odoletan blai.

Isilunetxo bat utzi dut. Alferrik zen disimulutan ibiltzea:

–ETAkoa naiz.

–Eneee! ETAkoa? Eta zaurituta?

–Bai. Baina lasai. Zauriarena ez da ezer... Bakarrik zaude? Non dira etxeokak?

–Semea herrira jaitsi da larunbatetako azokara. Erraina, berriz, hemen nonbait. Eguraldi eskas honekin, etxean onena; badago-ta etxean zer eginik.

Ukuiluan sartzeko baimena eskatu dut. Eta baietz. Han baketan utzi ninduten. Eta sunda sarkor hartan, Allikenen egon uste nuen.

Ur suil bat ekartzeko, ahalean; eta xukadera bat:

–Zauria axalekoa da –esan diot–. Ongi garbittu, eta kitto.

Galderarik batere egin gabe, bazkari legea ekarri dit etxeokandreak.

–Lasai, mutil! Lasai! Ez dira hona etorriko. Tiro hotsak entzutean, irratia piztu dut. Eta gertatu diren bi zauritutakoak Iruñeko erietxera eramanez badute lanik aski. Bilaka ari direnak, Zubierreka aldean ari bide dira, mendi horretaz bestaldera.

–Zubierreka aldetik?

–Hori entzun dut. Suerteza izan duzu. Baina arrastirian aldegitza eskertuko genizuke. Han ezer ez aurkituta, baliteke honantz etortzea. Goiz iluntzen du garai honetan, eta berandu argitzen.

–Horixe egingo dut. Parajea ondo ezagutzen dut; eta hemen ez didate adarra joko. Neure burua ziur ikusten dut.

Laburra izan da arratsaldea. Zakurraren zaunken arteko ñabardurarik ote zegoen saiatu naiz erne. Ezetz iruditu zait: zaunka mota bera zela beti.

Euri jasa galanta bota du horretan. Eta beste bat handik ordu laurden batera, zakarragoa, eta haize ufadek azkartua; ilunpe betean nengoelarik:

–Hobe horrela –neure artean.

Kanpoan hozten ari, sumatzen nuenez.

–Ukuilu epel hau utzi beharko... Pena da –neure artean–. Zauriaz? Oroitu ere ez ia-ia. Berotasun bizia eskuineko izterrean. Hutsa.

Agur esan, eta abiatu egin naiz.

Ilurdozbeitira iristean, hasperen luzea egin dut.

–Salbu haiz, Antton! –neure artean.

Blai eginda nengoen; baina banekien nora jo. Eta hauxe zen garrantzitsuena.

–Etzekiagu deus berririk zaurittuez. Lantegiko jeren-tia ez emen zegok larri. Bertzia, gurea, larriago. Bala bat emen dik soinean.

Zausk egin dit barrenak.

–Bihar, igandia izaki, eta eguraldi txar honekin, goizik abiatuko gaittuk. Eta Bartzelonan utziko haugu. Badakik non, ezta? Diagonaleko hasierako...

–Bai, bai. Bayakiat non. Beste batian izana nok han.

Egun haietan Ricardo Méndez Cascajal zeriztan niri, nire DNI faltsuan irakur zitekeenez. Bilbon 1946an jaioa, “representante de comercio” (beti “viajante” edota “representante”). Bapo!

Neukan dokumentua, hala ere, oso erdipurdikoa zen. Itsatsitako argazkiaren gaineko zigilu morea, ongixko ze-

goen. Baina inork arretaz bere osoan begiratu z gero, akabo: hura manipulaturta zegoela nabarmen baitzen.

–Bartzelonan ez duk erakutsi beharko, motel. Lasai.

Eta hantxe nengoen 1981eko otsailaren 15ean. Txelu sekula agertuko ez ote zen etsita. Bizirik irten ote zen bederen inkontrutik?

Biharamuneko prentsan ikasi nuen gerentearen ize-na: *Rodolfo Peña, Apoderado de la empresa Espesura Hermanos, 43 años. Herido de bala. Pronóstico reservado.*

Txeluren osasun egoeraz, berriz, xehetasun handirik ez. Zerbait bai, egia esan; eta ez oso kezagarria. Zangoan zeukala zauri bat; eta gartzelako erigelan bertan sendatu omen ziotela. Egiazko deituraz ere, han ikasi nuenez, Fernando Arraiz Solaguren zeritzola. Nafartarra omen.

Nitaz prentsak ez zuen ezer esaten: *El compañero del comando, cuya identidad se desconoce por el momento, logró huir hacia Aragón. Lo que no es difícil de comprender si se tiene en cuenta el carácter escarpado y boscoso de la zona de Idoibalzaga.*

Nik Txeluren benetako izena ez nekien bezala, berak ez zekien nirea. Eta honek salbatuko nau.

Otsailaren 23an irratiek eta telebistek Tejeradaren berria hedatu zuten. Egun gogorra izan zen, luzea, irrati-ra so.

Eta ondoko egunetan prentsako orrialdeak bete ziztuzten.

Rambletara hurbiltzen nintzen goizetan, eta egun-kari guztiak miatzen nituen: Kataluniakoak, Madrilekoak, Euskal Herritik zetozen bakanak.

Idoibaltzagako inkontruaz lerrorik bat ere ez. Are gutxiago mendian gora ihesi aldegindako etarraz... Noski!

Tejerotarrek prestatutako izen lerrokadek harritu ninduten gehienik. Kolpea aurrera atera balitz, ikus zitekeen, berriro 1936ko “garbiketa” zabala zetorren Euskal Herrira.

Denak nahasian, gainera: abertzale ezagunekin batera, batere kolore hori gabeko jendearen izenak topatzen ziren.

Triskantza gaitza.

Hots, lehengoan, Labartzako Herriko Tabernara hurbildu, eta egun “normala”. Ikurrina eskegita, ohar pare bat atean, eta kitto.

Iragana ahantzia.

Hartatik 26 hilabetera gertatu zen nire erorketa. Hilabete istilutsuak eta izualdiz beteak, alajainkoa!

Txeluk hamabi urte gogor eman zituen barruan. Iruñean lehendabizi, zauriak sendabidean jarri arte.

Gero, besteok bezala, inperioan barrena beilari.

Ez dut oraindik ikusi. Ea ondoko asteotan hurbiltzen naizen Iruñera.

Maingu egiten omen du apur bat ezkerreko zangoaz.

XXIV

Anderrekin hitz egin nahi nuen aspaldixkotik.

Eta gure Herrikoan emana zidan hitzordua hilaren azkeneko egunean. Otsailaren 28an, alegia. Argi eta garbi mintzatuko nintzaiola abisatu nion.

–Bai, bai. Noski! Hator arratsaldeko lauetan; eta yentia ezpaita zazpiak arte edo bertara azaltzen, aukera izango yuagu.

Alferrikako aurre berriketarik gabe heldu diot hariari.

–Sutan bizi nok –esan diot–. Zer deritxok orain dala aste batzuk Españako gobernuak Meliton Manzanas Irungo torturatzailleari, “Medalla del mérito a título póstumo” emon izanari?

–Zer gurok esatia?

–Edota Madrillen modan yarri ei dan beste hori: “Es el DNI el que da derechos a los vascos”... Españarrak ei garalako yeukaguz eskubideak! Eta hau ezkerreko oposiziñoko buru dan Rodríguez Zapaterok esan yok...

–Bai. Horren barri be banaukean.

–Okerragorik be bayagok, nik uste. Labartzako erdaldunak gero eta harroago somatzen yuataz. Eta hori lehen, orain dala hogeitun urte, etzuan gertatzen. Yoan dan astian be, hona etorri, eta “tejerada” ren aipamenik ez. Txarto iruditzen yatak.

–Hara! Zer gurok pa? Itxaferuak botatia? Yoanak yoan, Antton.

Anderrek arnasa hartu du sakon.

–Hain zuzen be, horra etorri gura nayuan. Amorra-ziñoeri itxi bihar yakek, eta politika egin. Buruaz, hozt-ian, eta politika irmoa.

–Politika? Eta zer da politikia?

–Oñ ein bi’oguna. Eskarmentua eta kulturua dozu-enok, hire adiñekook bereziki, lan politikoa in bi’ozue.

–Politikiak, politikerixak hoba, etxok gure arazoa konponduko. Ez urrik emon be!

–Zerk, beraz?

–Borrokak. Borroka armatuak. Nik dakidanez, nazio eta inperialismo arazoak, tiroka amaittu yozak ia-ia beti. Eta ni neu barriro be komando batian sartzeko prest nagok.

–Seguru hago?

–Bai.

–Berrogeita hamar urtegaz, komando batian? Fabo- rez, Antton. Ez hago hi trote horreitarako. Itxiok eginkizun hori gazte yenteari. Beharrik, prest dagoan gazterik etxuagu falta... Erakundiak, ganera, dirua biltzeko eta neguritikoak izorratzeko bakarrik erabiliko yozak ar- mak hemendik aurrera.

–Ba, Erakundia, kitto!

Eta RIP letrak markatu nituen mahaiaren gainean.

–Bixotzaz diñok hori, ez buruaz.

–Ez. Ni prest nagok halanda be. Eta enagok bapere burutik yota.

Aurpegia aldatu zaio nabarmenki Anderri; eta oso begirada bitxi eta barri batez begiratu dit.

–Parka, Antton. Baie hi ez hago biar dan osasun maillan komando baten sartzeko. Etxuat besterik esan gura.

–Besterik? Besterik zer? Bota, bota.

–Hi ez hago ondo...

–Zergaittik ez? Zetan ez?

Isilune bat gertatu da.

–Labartza guztiak dakianez, lehengo baten heure etzia ezin topaurik ibili hintzan, ezta?

Dardar batek hartu nau. Lokamutsa zirudiena, herriko esamesa gaixto bihurtua... “Gauza bat etzian esan, laster yakingo plazan”. Egia handia!

–Emostak orduan Browning bat –nik–. Etxuat ekin-tzarik neure kasa egingo. Baie geroari buruz, eta biziko nazan lekuan, bat izatia hoba.

–Biziko hazan lekuan diñok? Nora hoia ba?

–Aurki jakingo’ok.

–Txantxetan habil. Erantzuna garbixa dok: ez.

Trenaren txistukada luze batek eta ondoren zarata burrunbatsuak dardarazi dute gu ginen Herrikoaren barruki zaharra.

–Hire eginkizuna oso inportantia izan zittekek orain, Antton. Eta jadanik esana deuat. Euskal Herrixaren kon-

dairia ondo ezagutze'okanez, lan politiko ideologikoa egin bi'ok. Zerk ekarri gaittuen honetara, eta zerk ez. Eta abar.

–Alegia?

–Gure kondairaz idatzi eta zabaldu izan diren ipuiñ, sasi-kondaira eta burgeskerien ganetik, ikuspuntu zientifiko materialista batetik berraztertu behar yuagu dana, diru interesak billatuz. Eta izkutuan egon dan klase borroka latza azalarazi bi'da; eta Euskal Herrixak behar dauen ezkerra eraikiaz eta herriratuaz yoan.

–Ametsak!

–Zelan ametsak?

–Ametsak, bai. Txarto ez banago, eta Monzonen-gandik ikasi nebanez, hauxe esa'eban behin De Gaulle jeneralak: “pas de nation sans épée”. Alegixa, ezpata bari-ko naziñorik ez. Eta Euskal Herria guk ezpatarik gabe sortuko?

–Zein klasek darabil ezpatia? –Ander bere doinua ozentzen ari.

–Neronek irakurriko deuataz, erdaraz, egun honeitan ezagutu, eta beren-beregi hiri esateko hautatu dodazan pasarte honeik. Macchiavelli famatuarenak dituk, ez eniak: *El estar desarmado, además de causarte otros males, hace que te desprecien... Entre un príncipe armado y otro desarmado, no hay comparación posible; y no es lógico que quien esté armado quiera obedecer al que está desarmado...*

–Eztostak erantzun.

–Hik be ez niri.

Isilune luzea, gero eta astunago gure artean.

–Konturatzen nok, bai. Zuoi “beste iraultza” interesatzen yatsue. Zuen ustez etsaixa eztok España, euskal burgesixia baizik. PNVa gittxi gorabehera. Abertzaletasuna amua dok, garnatia.

–Oker hago, Antton. Pentsakera horretakuak gugandik at yagozak aspaldi. Desfasatuta hago. Benetan.

–Etxoat siñesten, Ander. Harra barruan daroazue.

–Zer diñok, ordia? Ezkerrekua eztana, hain zuzen, eztok abertzalia. Bata bestiagaz yatorrek.

–*Aberrri Askatua, ala hil.* Honek ekarri ninduen ni zuengana. Baie eztozue bere lekuan jarri gura.

–Hortaz, eztok Erakundearen politika-lan argitzaille horretan partaide izan gura?

–Ez. Nik Independentzian siñiste'yuat. Eta horretara daroan borroka armatuan. Ez besterik ezetan.

Jaiki egin da Ander, oso urduri; eta niri begira:

–Hi ez haz jadanik gutarra. Etsaietara pasa haz.

–Ezta ni neu be zuendarra.

Jaiki egin naiz ni ere, ez bera baino lasaiago; eta Arranoko atera hurbildu.

–Damutu egingo haz noizpait, Antton, zatiketa eta ahulketa pausu honetaz.

–Agur, Ander! Agur, betirako!

Itsas aldera jo dut.

Ateri zegoen, eta itsasoa zakar samar. Eta ilunabar hitsa gainean, euri-lanbroa mamitzen hasten zelarik.

Zerbait hautsi da gaur nigan, esan dut neure artean.
Seguru asko zerbait hori pitzatuta zegoen aspaldidanik.
Baina orain da zatikatu.

Gelan sartu naiz.

Eta *Euskera* zahar bat hartu dut apaletatik, edozein:
1980-2 (25).

Ireki eta *Aspektua euskal aditzean* izeneko izkribua
topatu dut; Piarres Lafitte kalonjearena. Aoristo arkaiko-
az, eta abar.

Interesgarri oso.

“Agian gero, lotarakoan, lagundu egingo nau –neu-
re artean–. Eta eldarnioetatik jaregingo”.

Egoera latza nirea, zinez.

Hamazazpi urte galdu ondoren, orain... enborretik
ebakita.

Bakardade osoan.

Eta porrot ustea, nigan hazkor.

XXV

–Eztok erraxa izan, Antton. Apirillerako emon gura eustian hitzordua. Baia, azkenian, hille honen 14an errezebituko hauela esan yok. Eguastenian, aste bi barru beraz.

–Zelan dau izena?

–Ramírez Maldonado. Oso sikologo ona ei dok. Bilboko onena fama danez. Erdalduna, hori bai...

–Erdalduna, yakintsua, eta oso jatorra. Noski! Modako lelo hori ezagutzen yonat.

–Et, et, et! Kontuz gero! Hitzordua lortzia eztok bapere erraza izan. Hortaz, eskertu egidak lortu izana. Euskaldun sikologo onik, edo mailla berekorik behintzet Bilbon ezpadago, zer gurok nik egittia?

–Milla esker, Ixaskun. Esana yagon. Egin zittekiana bete don. Baie arlo horretan eta danetan gauza bera entzuten yonat aspaldi honetan: onenak, ikasienak, ospe handikoenak, erdaldunak dittun beti. Euskaldunok, mailla guztietan, memelo, kankaillu eta zozoak bagiña lez!

–Gurokana. Baie halan dok. Yakin dodanez, gaur onena Ramírez Maldonado doktoria.

–Ezton hala. Modak inddartu yon uste ustel hori! Kasu honetan Maldonado yeritxon. Eta denok “amen”.

–Ezkaittuk itsutu biar, ordia.

–Nor dau hamen itsututa? Ni ala hi?...

–Bego, bego.

Eztabaida pipertu baino lehenago, ados izan gara mozteko.

Eta itsas uhinen leherketa geldoa entzuten uzten zuen isilune bat sortu da gure artean.

–Neronek eroango haut Bilbora gure Opel-ean, bai? Ni zai geldituko etxepian. Eta neronek kotxian barriri hartu eta Labartzara ekarriko.

–Nebiak etxaukon kejatzerik, ez –eztenka nahian.

–Purrustadaka bada be, arrebiaren laztana haz, eta badakik.

Eta irribarre egin dugu.

–Gauza bat egin biok hik –jarraitu du –ordura arteko hamabi egun horretan: ahalik eta lasaienik ibili, Arranora ezetara be ez azaldu, Sagarminagako irakurketak berak be mantsotu, edo osotara itxi. Eta pa... txa...dan...: hori dok oingo berbia.

Bilboko Etorbide Nagusian, Eliptikatik ez urrun, bigarren estaian, sekulako kontsulta dauka Ramírez doktoreak.

Ixaskun kale-kantoiko “Los Coyotes” izeneko kafe-tegian sartu da.

–Gero arte! –biok elkarri.

Igogailuan bertaratu naiz. Eta berehala erreparatu dudanez, baditu han bi erizain gutxienez; gehi neskame moduko bat. Hirurok uniforme desberdinetan jantzirik. Ospitaleetan lan-maila janzkeraz aise bereiztekotan egin ohi den bezala.

–¿Es usted el paciente Sr. Diarcegay? –erizaina niri mintzo.

“Hasi gaittuk”, neure artean.

–Sí. Soy yo. Antton Ihartzegarai.

“Izena bera ezin irakur. Nagusiak hobe ote?”...

–Ya veo. Parece que no lo he pronunciado bien. Perdona. Sígame. De momento vaya usted suministrando sus datos personales a mi colega, la que se ocupa de las identificaciones.

Arratsaldeko bostak eta hamar ene erlojuan. Ordu bera gelakoan.

Hiru lagun zain. Bi emakume: heldua bata, gaztea bestea. Eta gizaseme sendo bat, bere hogeitau urteetan edo.

–Arratsalde on –nik, ahapeka ia-ia.

–Buenas tardes –ozenago, bi ahotsetan, bi andereen ahotik.

Paretetan zintzilikaturik, diploma mordo bat ageri.

Baina xehetasunik begiratu gabe eseri naiz.

Musika-haria ari, itxuraz, bizpahiru bozgorailutatik batera oso apalki. Mozart-edo izan zitekeela iruditu zait. Baina errepikakorra oso, kaskarina, aspergarri samarra.

Dena geldi egon ondoren, txintik atera gabe, handik minutu batzuetara sartu dira batera bi emakumeak. Ama-alabak ote?

“Beharrik nik uste baino azkarrago doa hau”, neure artean.

Nirekin buruz buru gelditutako gazteari zerbait esateko asmoa bururatu zait. Baina azkenean ez dut egin.

Mahai gainean pilaturik zeuden errebistak interesik gabe eta ziztu bizian begiratzen zituela iruditu zait. Pilotxotik bat hartu, fite-fite gainbegiratu, eta aldameanean laga. Eta beste bat, eta beste bat. Geldikorrago, hau bai, bainu-arropa arinetan agertzen ziren modeloen edo artisten orrialdeetan.

Ez ohartuarena egin dut nik. Baina luzamendu adierazgarriei erreparatu niela sumatu duelakoan nago.

–Iker Zaldua? –galdetu du erizainak–. Ya puedes pasar.

Eta sartzera koan “agur” esan dit mutilak.

Seiak laurden gutxi ene erlojuan. “Zazpiak arte gutxienez –neure kolkorako ari– Ixaskun gaixoak zain egon beharko”...

Baina nik uste baino lehenago deitu naute: seiak eta laurden.

–Siéntese, siéntese ahí, señor Diarzay –esan dit Ramírez doktoreak.

“Honek are okerrago. Hasiera egokia...”

Bere hirurogeietan-edo, burusoildurik burugainean, betaurreko lodiak sudurrean behera erori ez erorian jarririk.

–Distiéndase, y expóngame su problema. En la conversación telefónica que tuve hace unos días con su hermana, me dijo que ha tenido usted algún episodio de desorientación un tanto inquietante. ¿Es exacto lo que digo?

Hizkera honek, azalez eta funtsez, goragaleak piztu ditu nigan.

Baina neure kondaira pertsonala azaldu diot, xeheki, luzaz, itzuli-mitzulirik gabe.

Ramírez doktoreak aditu eta aditu egiten zuen, eta notak erruz hartu.

Eta tiroz izandako zauriaren eta gartzeletako egonaldien berri eman diodanean, batera iruditu zait agertzen zirela haren aurpegira arbuio osoa eta ulertu-ustearen poza.

Elkarrizketa erdaraz izan da, jakina; nahiz nik hemen hark esandakoak euskaraz kontatu.

–Ene ustez –esan du halako batez–, zure arazo nagusia honetan datza: ez diozula errealitate berriari amore eman nahi. Suntsitutako errealitate bati eutsi nahi diozu zuk. Eta alferrikako eutsi nahi horretan, hari lotutako talketatik etengabe sortzen zaizkizu ezinak eta amorrurak, gero eta nabarmenkiago somatizaturik. Hitz hau ulertzen duzu?

–Baietz uste dut.

–Mundua den bezalakoa da, ordea; eta horretara behar da hartu. Eta gauza bera Euskal Herria. (Esan beharrik ez berak “El País Vasco” esaten zuela). Hau ere aldatu egin da (“ha cambiado”). Eta ez da nahiko genuke-

en bezalakoa... Naturako izakiek oro bezala, hizkuntzek eta herriek ere beren “sell-by date” dute (hau ingelesez esan dit birritan, ez oso ahoskera onaz, eta gaztelaniazko itzulpena erantsi du: “tienen su fecha de caducidad”). Badugula denok nork bere iraungi-data, gizaki izan edo herri. Eta euskarak eta Euskal Herriak ere badute berena.

Hau gorrotorik eta etsipenik gabe hartu behar dela azaldu dit, sufrikario alferretan tematu gabe.

Konturatzen dela aitortu dit, berak kanpotik begiratzen zuela “euskal arazoa” esan ohi dutena (heine handi batez nirea bihurtua). León-en jaiota, eta hogei urte hartan Bilbon bizi izanik, bai ni, eta bai ni bezalakoak, “ulertzen” saiatzen zela. Baina zail gertatzen zitzaioala; gure jokabide temosoetan halako “itsukeria” aurkitzen zuelako. “Creo encontrar en todos ustedes, perdone mi franqueza, una cierta ceguera culpable –zioen zehazki– en sus tercas actuaciones y en sus aspiraciones anacrónicas”.

Ez zuela politikan sartu nahi; berak psiko-patologia-
ren mailan kokatzen baitzuen bere burua.

Baina herri guztiak eta hizkuntza guztiak (españolak barne) bidai lagun jakitunen arteko moduan moldatu behar liratekeela elkarrekiko. Batak bestea ukatu gabe, naziokerietatik at. Globalizazioari dagokion eran...

Bor-bor neukan barrena.

“Hogei urte honetan –nik neure artean– ez duk euskarara izpirik ikasi!... Ni inperioaren hizkuntzaz mintzatu beharra ez zaik ezeren ukazio iruditzen... Hire erregeak

argi esana baitu Espainiak ez duela inoiz ez inon bere bizkuntza inposatu... Zelebreak zarete!”

–Irredentismoa, bereziki –bere hariari heldu dio–, guztiz kaltegarri iruditzen zait. Irredentismo batek (Palestina-Israel arazoan ikusten dugun bezala) beste irredentismo bat dakarrelako; eta honek, atzerago begiratuz, beste bat. Eta honek beste bat, “ad infinitum”.

Neure arazo pertsonala konponduko banuen, hitz batez, errotik aldatu behar nuen neure pentsaera. Eta neure jarrera ere bai, ondorioz.

Gorroto olatuak hazkor zetozen nigan. Eta brauki eten dut elkarrizketa:

–Muchas gracias, Doctor. ¿ Cuánto le debo?

–¿Por qué interrumpe usted nuestro fructífero diálogo con esa brusquedad? Comete otro error... Normalmente yo cobro 25.000 pesetas por consulta. Pero su caso me parece especialmente trágico y arquetípico; por lo que no le cobraré nada. Y además le recibiré aquí gratis cuantas veces lo desee; y cuando lo estime oportuno.

–Gracias, Doctor.

“Jai daukak, nazkagarri horrek”, pentsatu dut. Baina ez da ezer irten nire ahotik.

–Adiós, señor Diarcegay –agurtu nau erizainak.

–Agur, bai, betirako agur –erantzun diot euskaraz.

Erlojuan zazpiak hamar gutxi.

Izkinako Los Coyotes kafetegira hurbildu naiz.

–Bukatu yonat. Goazeman.

–Da?... Zer esan yok? Aurpegi txarra ekarri dok.

–Ezer bez. Oingoz ixiltzia onena. Bixar, etzi, etzili-
mo, zerbait azalduko? Littekiana.

–Larrixa dok kasua? Esaik zerbait!

–Niria ala beria?

–Tira, Antton. Ezkaittuk hasiko! Zer diño?

–Ni errealitatetik at bizi naizen eskizofrenikoa naza-
la. Eta errotik bi'odala ganbiatu; Euskal Herria erreme-
dixo barik aldatu dala iruntziz.

–Eta zenbat kobratu yuk?

–Ezebez. Oso kaso interesgarrixa ei non.

–Zer egin bi'ok, beraz?

–Popatik hartzera bidaldu!

–Tira, tira!... Afaldu be eztok in biar ala?

–Ez. Itxi nagin baketan, Ixaskun. Goazen orain La-
bartzara astiro-astiro, eta bixar edo etzi berba'ingo yona-
gu lasai.

Neure logelan sartu eta apaletako euskal liburu eta
aldizkari mordoia begiratu dut.

“Horretaz guztiaz ahaztu behar dudala. Eta hauetan
azaltzen den zapalketari ezikusia egin, eta inbaditzailea
bedeinkatu ere egin behar dudala gomendatu dit Ramí-
rez Maldonado *psikologoak*... Mesedez, ez adarra jo! Ba-
luke bai leondar jaun horrek lan aproposa totalitarismo-
ek asmatutako “psikiatriko” famatu haietan...

Alegia, zanpaketaren ondoriozko egoera gaitzetsi eta
zuzentzen jarri beharrean, gu desbideratutako erresu-
minduok, gu erook, “gizarteratu”...

Eta segittuan oka egin beharrez, komunera joan naiz
korrika eta muturka.

–Txarto hago ala? –Ixaskunek sukaldetik galde–. Barrero be botaka?

–Ez, ez. Goragale txiki bat izan don. Bela pasako yastan.

Gelara itzuli, eta papertxo gorri batez seinalaturik neukan Juan Mari Irigoienen poematxo hau berrirakurri dut:

*Maisuaren esanari jarraituz;
are gehiago,
haren marka hautsi nahiz,
behin jarri zuen beste masaila,
bitan jarri zuen,
hirutan...
Azkenean
kirurgia plastikoa
egin behar izan zioten*

Irribarre egin dut isilean.

Eta egun hartarako aski zelakoan, atsotitz hura gogoratu zait: *egun bakoitzak baduela bere buruarekin egitekorik asko.*

Eta itsas zurrumurru errepikakor leunean kulunka oheratu naiz.

XXVI

Bilboko “kontsultakoa” ez nukeen hartara hartu behar.

Ramírez Maldonadoren jokabide itsu, iraingarri eta sasigizakoiak ez luke gogoetarik bat ere merezi.

Zapaltzen duenak ez du zapaldua ulertzen, ezta ulertuko ere.

Lehoiak ez du orkatza inoiz ulertuko, marrazoak arrain txikiaren patu hitsa sekula ulertuko ez duen bezala.

Apo handiak ttikia irensten du, eta belatzak usoa suntsitzen.

Horrela dira gauzak.

Nik ez dut Naturan ikusten (ezta beste hamaikatan ere) aipatu ohi diren “harmonia” eta “ordena” mi-resgarririk.

Natura krudela da, itsua.

Natura osoa da errotik gupidagabea eta xahutzailea.

Eta, hala ere, egia aitortuko badut, atzo eta herenegun guztiz tematurik, neure barrunbean entzun ditut txatxukeria dotore haiek behin eta berriz.

Eta gaur, larunbata, eguna lainotua zabaldu den arren, Jentilsolora hurbiltzea erabaki dut.

Zarata galanta zetorren Azokaren aldetik. Eta harantz abiatu naiz.

San Jose eguna astelehenean tokatuko zela-eta, Labartzako Udalak ospakizunak bi egunez aurreratzea erabaki zuen.

Eta, gutxi gorabehera behintzat, hileko azkeneko martitzenetan egon ohi den giroaren antzeko zerbait sortu da herrian.

Arrantza eta marru ozenak hemendik, irrintziak eta balakak handik, usain azkarra edonon, eta trikiti bizkor bat bozgorailuetatik inguruak blaitzen ari.

Pelloreneko barran tartetxo bat lortzeko bultzaka ibili ondoren, txarranka pare bat jan dut txakolinaz. Eta gorantz abiatu naiz.

Gorakoan, Izarteko latatik Iparraldera ozta-ozta ikus zitekeen laino maskalen artean itsas kilometro erdi bat edo. Eta, jiratu eta atzera begiraturaz, berriz, Labargane aldeko kale batzuk sumatu.

Nire etxe ondokoez, aldiz, han urrun, Uruburu-enetik Mendebaldeko ez, deusik ere ez.

Noiztenka, itsas haize bala hotzak, zakarrak.

* * *

Jentilsoloko trikuharrira joan naiz.

“Puntu batean –neure artean– egia latza aurkitu du hala ere Ramírez doktoreak. Amore eman behar dut. Dena pasatzen da Kosmosean, galaxiak berak barne. Eta

gizateria osoa ere bai, eta herriak, eta hizkuntzak, eta gu gizon-emakumeok ere bai... Eta ni neu gauza bera... Aurki hau esango dute lasai labartzarrek: Antton? Izan zen”.

Eta, tristagarri zitzaidan arren, ez nik ez inork eza-gutu ez genituen asaba zaharrek bezalatsu, nik uste, behin eta berriz errepikatzen nuen itsasora begira: “hire aldia joana duk... hire aldia joana duk”... Eta denbora joana ez da itzultzen.

Eta harri goroldiotsuaren gainean belaunikatu naiz.

Minberago neukan bihotza une horretan hala ere, belaun koskorrek baino.

–Joana da nire aldia! –ni aldarrika ari–. Berantegi niretzat!

Eta jentil-harriaren gaineko harlauza koskatsu lakarra besarkatzen saiatu naiz:

–Ttipiegia ni...

Busti egin zaizkit, eta hoztu, txamarra, alkandora eta bularra bera.

Eta besarkatzeko asmoari laga behar.

–Hutsala da gizona harri gotor dorpearen aldean... Haitzak, harritzarrak, itsasoak, zero izartsuak, denak bidaltzen dit mezu bera: hutsa naizela... Eta jadanik pasea naizela.

Zeru-lurrak –txinatar filosofoak oso aspaldian idatzi zuenez– gupidagabeak dira; eta dauden izakiak oro (“gauden” esatea hobe), milioika, bilioika, lastozko zakurrak bagina bezala tratatzen gaituzte...

Ramirez zerriak –aitor diezaiodan hau– egia zuen puntu nagusi honetan. Antton Ihartzegarairen urteak,

urte baliagarriak, itzuri egin zaizkiola: Valcornejan, Puer-ton, arrats aratz etsigarri geldo haietan...

Itsaso lanbrotsua doi-doi argitzen zen pittin bat. Eta olatuen orrorik ez zen gaurkoan entzuten.

Suntsikuntza baten kronika beltza besterik ez da gu-re biografia. Badakigu.

Baina ez dugu aitortu nahi. Gizakumeok ez dugu egia aurrez aurre begiratzeko adina bertute.

Esperantza-emaile diren ber, ipuinak nahiago!!... Sinestunak gara osoki, umetxoak bezalakoxeak...

Hotzak hartu nau. Hezurretaraino.

Ez dut "beldurrak" hitza esan. "Hotzak" esan dut.

–Ardoa behar duk hik gaur, ausarki –belarriratu dit zerbaitek.

Eta Azokara jaitsi naiz.

Geltokiaren aurreko Gaztañadi-n, oraindik bazkalon-do betean, jendea erruz oraindik. Aurpegietan eta hizke-ran beren lanbidea eta bizilekua salatzen.

Pellorenera sartu naiz berriro. Txistor puska luze bat jan dut, zutik oraingoan; eta dozena bat sardina erre ere bai. Eta bospasei ardo beltz, arrapaladan. Hura egarria!

–Naparra dok –azaldu dit Maximok–. Eurtongu.

–Ona yagok, bai.

Berotasunak erraiak arrapiztu egin dizkidala sentitu dut.

–Gero arte, gizon! –agurtu dut.

Eta geltokiaren aurreko taberna saila banan-banan bisitatzeari ekin diot.

Ietarrene-n ez dut ezer jan. Ardoa edan bai, galanki, txarranka pareta egoki laguntzeko.

Ondoren, ezkerretara eginda dauden hiru tabernetara sartu naiz: Euxe, Matxari eta Meata. Eta hauetan “napar arda baltza” hartu dut, huts-hutsa.

Meata ilun luzean, ez dakit zergatik, paretan zintzilik dagoen Gandiaga poetaren foto bati begira, harroxko bota diot:

–Neanderthal-go arbasoek emoten deustie lotsa. Baia geuk pe geure ondorengoei lotsa bera emongo deutsegun lez... Poetok salbatuko zarie agian!

Txiriboginak harritura begiratu dit. Eta arrantzale zahar batek bere aldetik barre egin du gogotik eta goraki.

Gero eta berritsuago atzematen nuen neure burua:

–Nik Amallon bizi gura neunke, esate baterako. Berritxu onduan, bai. Lau baserri, belaze pare bat, bakardadia... Zetarako besterik?

Txapel-handi haiek irribarrez aditzen zituzten nire predikuak; eta zenbait aldiz zantarkeriaz eta birao ozenez erantzuten.

Baina nire mezuen funtsa inoiz sumatu ere gabe.

Ni neu ere, Röcken-go ermitaua bezala, herri xeheari mintzo bainintzaion. Alegia, inori ez. Edo, nahiago bada, giza itxuraz jantzitako hutsarteari.

Nigan normala ez zen harropuzkeria nabarmenak harrapaturik nengoen.

–Yoana nauzue jadanik! –ia-ia garrasika ari.

Eta algaraz erantzun didate.

–Ez egin barrerik, ez, zozook!! –nik arrapostu–. Atzo hazixa giñean, momixa bixar onenian; eta etzi are gitxiago: hauts hutsa!... Guzurra esan deutsue. Ze, gorputza bera baiño lelago hilgo da-ta zuen arimia!!

Momentu horretan ni hasi nintzen barreka:

–Zetarako Labartzako berbeetia erabiliko?... Alferrik!

Mahai luze batera igo nintzen (oso kostata), eta honetara mintzatu nintzen:

–Zeinen azkar iraungitzen den dena! Gorputzak berak munduan, eta berauen oroitzapena betikotasunean.

Harridura bazterretan.

–Kaixo, mutilak! Zer duzue?

Gero eta nekezago lortzen nuen esaldien ahoskatzea.

Meata barruko bezero bat kopetilun utzi dut, itxuraz...

–Greziar esklabo hark esan zuen egia: “Ez haiz hi, izan, gorpu bat jasaten duen arima erkin bat besterik”...

–Nok esaeban hori? –galdetu dit. Sagarminagako geletan maiz gurutzatu ohi dudan gazte bat zen galdegilea.

–Epikteto eretxon –erantzun diot irmo.

–Argitasun galanta emon yeuk mozkorrak! Alajainkoa! –erantsi du beste batek eztenka nahian.

–Ardauak dihardu gaur nire ahotik. Ardaua, bai, ardau solasturi eta filosofoa...

–Tira, tira! Aski yoagu!

–Banoia, bai. Segi zuek harro-harro Ezerezera bidean!

Eta mahaitik jaisterakoan estropezu egin, eta lagun-
du egin behar izan naute lurretik altxatzeko.

Eta “agur jaun-andereok” esanda, zanbuluka, ares-
tian bisitatutako Matxari tabernara sartu naiz:

–Arratsalde on deabruak! –bota dut oso goratik.

–Arratsalde on Jainkoak, faborez! –erantzun du za-
karki baten batek.

–Arratsalde on deabruak! –errepikatu dut sesio bila.
Bezeria guztia, ugari, niri begira paratu da.

–Gorputzari datxekon guztixa, ibaixa da... Arimia-
ri datxekona, berriz, ametsa eta hutsala...

Eztulaldi txar batek harrapatu nau.

Baina berehala bihurtu naiz neure onera.

–Biziera gerra da... deserri arrotzean jasan beharreko
pausaldi iheskorra... Eta, hil ondoko ospea, zer da?...
Ez al dakizue oraindik?... Ahanztura!!

–Jota yagok guztiz. Non bizi da? –galdetu du batek.

–Labartzarra dok. Asko sufritu dauen gizona –argi-
tu du Matxari-eneko jabeak–. Norbaittek bere etxerai-
ño eroatia izango da zuhurrena. Bere buruz eztok iri-
tsiko ta.

Eta Labartzako gazte bik heldu naute orduan, sen-
do, galtzarbeetatik, lurretik altxatuz.

–Hi, lasai. Etxera eroango haugu.

–Milla esker, mutillok... Baie iñoren biarrik eztot.

–Oker hago, Antton. Goazen hirurok astiro-astiro.

–Txakurradagaz joaten garenian lez...

–Horixe!

Seiabideko 3ko Herrikoaren aurrean, ikurrina mastan eskegita ikusi dut. Eta agurtu egin dut ezkerreko ukabila altxatuz.

–Ondo, Antton, ondo ari haz.

–Ni bai, ondo. Berak, txarto...

–Txarto diñok, Antton? Zergaittik?

–Askatasuna hartun in bida, harrapau... Askatasuna ezta “negoziatzen”... Potroak biar direz, potroak etsaixari guria dana kentzeko... Ez berba polittak... Espaiñiak ezteusku sekula independentzixa autortuko.

–Garaixak aldatu yozak, Antton. Oin politikariaren aroak yatozak. Eta maltzurki yokatzekuak.

–Guzurre!... Guzur galanta! Munduaren historixia zapalkuntza ilara amaigabearen historixia besterik ezta!... Areago: estafarik larrienak agintaririk zientifikoenak lortu dabez.

Goragalea sentitu dut, azkarra.

–Ni baltza nok, ez gorrixa.

–Bai: ardau baltza gurok gorrixa baño...

–Ergelok!

Gelditu egin behar izan dugu apur batez.

–Hago lasai, Antton! Ehun bat metro besterik etxakuk falta hire etxeraño.

–Milla esker, lagunok! Baie... kontutan hartu hak esa-ebana... Armaturik mundura etorri ziren profeta guztixak garaitu egin ebela... Baie, alderantziz, armarik gabe predikatzen etorri zirenak oro izan ziriala azpiratuak eta hankapetuak... Kontuz gero! Mozkorra nayagok, baie egixia esaten ari nok...

–Bai, Antton. Kontutan hartuko yoagu... Oin loegik lasai!

–Nire denporia yoana dok. Baxakixat... Erretiroa hartu gura yoat...

Eta pentsakor gelditu naiz etxeko sotoan.

–Baie nik... zuek baketan ixtian... –azaldu diet– zakur bat eroango yoat neugaz... zakur handi bat... eta ez, hak letxe, arrano bat eta suge bat... Guk bixok ingo yuagu yantza eta yantza... hak zaunka eta nik kanta... egunsentira arte...

–Yakiña, Antton. Lo egik lasai, bai? Ta kitto!

Igogailuan sartu da nirekin gazte biotako bat, eta etxeko txirrina jo du.

–Arrastiri on, Ixaskun. Hemen daukon...

–Eneee! Ene!!! Zer gertatu da?

–Lasai. Ezton ezebe. Mozkor galanta bakarrik. Lotan emon, eta...

–Milla esker, Anartz –Ixaskunek.

Biharamunean ardoz, behazun horixkaz, jaki puska kiratsez blai agertu da nire maindirea.

–Ixaskun gaixua! –neure kolkorako. Dena azaldu beharko.

Ez neukan geroztik beste irtenbiderik.

XXVII

Eta azaldu egin nion dena Ixaskuni. Bakardadean bizitzeko erabakiarena funtsean.

Bizileku bila saiatua nintzela. Eta begiz jota neukala etxetxo txukun bat, planta bakarrekoa, Gipuzkoako Goierrin.

Bizkaian ere beste txabola txikiago batek erakartzen ninduela, Anboto pean.

Baina Gipuzkoakoa hobetsia nuela; eta salmenta prezioaz ere mintzatua nintzela behin jabearekin. Bere hirurogeita hamarretan, alargundu berria, eta bere bi seme-alabak nor bere aldetik joanak, tristagarri zitzaio-la arras hamaika poz-iturri izandako txoko kuttuna hutsik topatzea, eta saldu egin nahi zuela.

Neure gelako liburuak eta aldizkariak oro hara eramateko asmoa azaldu nion arrebari.

–Garraiaketa horretarako eskatuko deunat azkanengo aldiz Opela –agindu nion–. Hiruzpalau bidaixatan, aldaketa kitto. Eta gero, badakin, erretira-lekuan etxonat kotxerik beharko.

Labartzara noizean behin edo azaltzeko deliberoa neramala. Maizegi ez; helburua bakardadea eta gogoeta baitzen.

Trenez etortzea ez zaidala gaitz izango, neure erretira-etxetik ondoko geltokira ozta hiru kilometro daudelako.

Eta berarekin (Ixaskunekin, alegia) eta Sagarminaga Kulturuneko Endika Ozamizekin posta bidezko lotura estua atxikitzekotan nindoala.

Honek Bizkaiko Toponimiari buruzko tesi-lan sakon batean sartu nahi ninduen. Eta nik, gogoz hein batean, eta eskerronez bestetik, ontzat eman behar izan nion proposamena.

Horretara, neure aldegitia hausturatzat, otoi, ez hartzeko erregutu nion arrebari. Ohar hau eransten niolarik: nahi zuenean nire erretira-lekura agertzeko. Bera bakarrik etorri gero, ni pozkariotan. Baina beti bere ondoan dauzkan Arantza eta Arroza adiskide minekin bisita egitea erabakiz gero, oso pozik.

Sarriegi ez joateko erregutu nion, hala ere.

Ixaskunek baretasun harrigarriaz entzun ninduen; eta esaldi bakar honetaz erantzun zidan amaieran:

–Edozelan be, etze hau hirea dala badakik; eta gura dokanian, hator lasai. Besoak zabalik hartuko haut. On-do dakik.

Isilunea sortu zen gure artean.

Eta, barrutik urraturik nik uste, Ixaskun, bere burua ezkutatzekotan, “gabon” esan eta bere logelara joan zen.

Handik oso egun gutxira, martxoaren 27an, asteartea, Martitzen Munarrixa, ohiko Azoka zabaldu zen Gaztañondon, Labartzako tren-geltokiaren ondoan.

Eta hara joan nintzen.

Gero eta areago gustatzen zitzaizkidan baserritar kutsu hura, usain sarkor haiek (kiratsak zirelarik ere) eta abere marru kontzertu kakofonikoa.

Eta, kasu honetan, asmo berezia neraman neure bihotzondoan.

Eta suertea izan nuen:

–Hor yagok! –neure kolkorako.

Eta salpostura hurbildu nintzen.

–Ikuste’ot, bai. Badaukozuz gaur artzain aleman galantak.

–Bai. Halan da. Baie azkar ibili. Berehala salduko dodaz eta. Horixe dozu ama.

Zaunka bakar bat egin du honek, begira gelditu zaidalarik. Hau ere konturatu egin da!

–Zenbat dozu salgai? –nik.

–Lau horreik: ar bi, eta eme bi. Hamar astekuak. Sasoirik onenian jaube barri bati lotzeko.

“Gaurkoan ez diot neure gogoari barraderarik jarriko”, neure artean.

Saskitzarrera bertaratu, eta txakurkumeetako bat hurbildu zait harro-harro.

–Arra dozu hori, eta zugana jo du lasai. Seiñalerik onena. Horixe hautauko neunke nik.

–Baita neuk be. Zenbatetan saltzen?

–Hamar mille pezetatan, zuretzat.

–Egiña! Koillarerik badaukozu?

–Nik ez. Baina hortxe, eskuman, Meata tabernaren parean, kataiak, koillareak, uhalak, gakoak eta gainera-koak eskaintzen dittuezan saltzaille giputx bat badozu.

–Ederto. Hara noia.

Koilare gorri bat jarri diot lepoan, eta neure magalean hartu. Guri-guria, baina sendo; hanka hori-beltzak lodi, begirada erne, belarri biak oraindik tente jarri gabe, bizkarra beltz, oso pozik bide zegoen nirekin.

Azokatik irtetean, uhalaz helduta, etxerako bidea hartu dut erreka ondoko Aita Bastarrika kaletik.

Pittin batez egin dit tira uhaletik hasieran; baina berehala etsi du, eta txintxo-txintxo etxeraino lagundu; zuhaitz pare baten kontra bere “arrastoa” utzi ondoren.

–Baltza! Baltza! –deitu diot–. Hi Baltza eta ni Antton.

Eta halako poz sakon harrigarri batek hartu nau.

–Baltza!... Alkarregaz biziko gaittuk bi-bixok hame-tik aurrera!

Txakurrak arretaz begiratu dit, ni ulertu nahiz.

–Oin Ixaskun ezautu bi’ok; eta geure bizileku barrira yoan arteko gorabeherak prestau behar yoaguz.

Igogailuan sartu dut, eta uhala askatu.

–Zer deretxon? –galdetu diot arrebari.

Berau, ia-ia ni bezain zakurzalea, begira gelditu zaio, eta segituan besotan hartu:

–Ederra dok, Antton. Txakurkumeek eleuketek ha-zi biar! Zelango izena emongo?

–Baltza.

Eta minutu erdi batez isilik eta txakurra magalean zeukalarik:

–Ondo hautatua. Allikeneko Baltzaren seme izan litekek.

–Hauxe izango don nire lagun miña hametik goitti.

Balkoian prestatutako txabolara eraman dut. Goxo etzan zedin burusi puska batzuk jarri dizkiot. Baita, jateko eta edateko, plastikozko ontzi bana: urdinean ura, eta berdean zakurrentzako ale katilukada bat.

Baltzak ez die muzinik egin. Eta bere txabola arazorik gabe onartu du.

Azkenurreneko pausoa emana zegoen.

Eta bakeak bete nau.

XXVIII

2002ko irailaren 7an.

Bihar, igandea, egun hunkigarria izango da Zingiregi honetan.

Arreba etorriko zait nirekin Izaskungo Ama Birjina-ren eguna ospatzera; eta, aspaldian Allikene bihotzekoan gaztaroan zaharren konpainian egin ohi genuen bezalatsu jokatuko dugu.

Oraingoan biok buruz buru ospatzea pentsatu genuen. Baina beraren festa izanik, eta ez nirea, mahaikideak Ixaskunen esku uztea erabaki dut. Eta horrela Arrosee eta Arantza beraren lagun minak ere hemen izango dira oturuntzakoan.

Hitz batez: lau mahaikide izango gara, eta ez bi.

Ez nuen nahi (eta ez dut nahi, hobe) Zingiregi neure pausaleku ezkutu izatetik, inoren bisitaleku bihurtzerik.

Baina Ixaskun etortzea desberdina da. Eta bere egunean etxekotzat har daitezkeen bi lagunak gugana biltzea, normala.

Ospaketak halako balantzea egiteko parada eskainiko zidan.

Urte eta erditsu pasa da Labartzatik aldegin nuenez geroztik. Eta, hein batez, hemen egokitu egin naizela iruditzen zait.

Harkaizpe herrixkaren ondoan kokaturik, Karranti mendi haiztsuaren magalean, bizpahiru kilometro da go hemendik herriko tren geltokiraino.

Zingiregiko goratasuna 520 metrokoa da. Harkaizpekoa, aldiz, tren geltokiko bornarrian irakur daitekeenez, 210ekoa.

Urrun ez da, beraz: ordu erdi luze eta gogortxo gorakoan; eta ordu erdi exkax, lasai, etxeratekoan.

Herri koxkorra Harkaizpe: 986 biztanle (2001eko erroldan).

Baina neure eguneroko beharretarako, aski eta sobera.

Normalean, eta eguraldia oso eskasa ez badago, herrira jaisten naiz. Eta okindegi, harategi eta arraindegi koxkorrak bisitatzen ditut; baita prentsa saltzen duen papertegia ere. Maitena okinak (neska gazte eder eta zirikatzaileak) gero eta ausarkiago jotzen dit adarra:

–Zingiregi-ko jauna, lehen Damaso, orain Antton “demasa”... –eta barre egiten dugu bezeroren batek erosketakoan gure arteko txantxak eten arte.

Posta kutxatilak badaude Harkaizpeko elizpean. Eta bat alogeratu dut. Sagarminagarekiko harremanengatik bakarrik, egia esan. Ez baitut inorengandik eskutitzik espero.

Baina Ozamiz-ekiko harremanetarako ez bestetarako ez balitz ere, beharrezkoa guztiz.

Iazko apirilean, azkenean, Ixaskunek berak lagundu ninduen neure liburuak eta gainerakoak Labartzatik hona ekartzen.

Hori bakarrik ez.

Dena txukun apaletan kokatzen laguntza bikaina eman zidan: sukaldekoak, arropak, garbikariak, zein bere armairu aproposalen sailkatzen. Ni eskasa bainaiz gauza horietarako.

Hamaika xehetasunetan ezagun zuen, Larrabazterre-
rrek, lehengo jabeek, txoko hau txit maite zutela. Baita erosotasun teknikoetan ere. Supazterrean, adibidez, erruz hornitutako egur piloan, adibidez; edota harrizko iturri berdaxkan, atzealdeko intxaurrondo sendoan, edo nekaritzako tresnerian.

Zingiregi etxetxo ez da egurrezkoa. Baina zutabeak eta gapirioak marroi ilunez margotuak dauzka, eta sabai txurian ageri.

Zauskada galanta eman zidan honek lehenengo egunean. “Du déjà vu”... Non? Eta hasieran gakoa ez nuen antzeman.

Halako batez, ordea, joan den irailean, Le Moulleauko egongelak ere gapirio beltzetako sabai zuria berdindina zeukala erreparatu nuen... Eta geroztik, maiteago eta barrurago daramat neure etxetxo hau.

Familiako lau Larrabazter-Mendiri-tarren argazki handi bat zegoen iaz hemengo jangela nagusian. Eta Ixaskunekin elkar aditurik, bota ez, baina ezkutatu egin genuen atzeko gordailuan, noizbait on Damasori itzulteko asmotan.

Damaso Larrabazter alargundu berriak ere (hiru urte inguru orain) ez zion “errealitate berriari” amore eman nahi. Eta bertago sentitu dut.

Erretratu haren ordeztu, nik Bilbon behin erositako Ahuñemendi inguruetakoko erliebe-mapa zabala zintzilikatu nuen; beste gauzekin batera (Allikeneko argazki famatua barne)...

Eta, euskal toponimoak Burgosen, Oskan, Errioxan, nik ezagutu ahala, neronek noa pixkanaka Zazpiak Bat deritzona erraz handik eta hemendik gaindituz.

Txalupa gorrixka bat ere bazeukaten Larrabaztertarrek (“Amaia” letrak aise irakur daitezke popan); eta badaukat nik ere, hortaz.

Zingiregi etxearen aurrean egoten da estekaturik, bere bi arraunekin. Eta erabiltzeko moduan, hitz batez. Makina bat aldiz ibili izan naiz berarekin arraunketan uda honetan, hain zuzen.

Ikaragarri gustatzen bide zaizkio Baltza-ri ur gaineko arraunketa hauek; eta, urduri jartzen delako-edo, sekulako zaunka-saio zalapartatsuak antolatzen ditu, urtegiko bakea nik nahi baino areago urratuz eta Karrantiko mazela arrokatsuetan hamaika oihartzunetan biderkatuz. Eta txalupan aurrera eta atzera egiten du, erotu balitz bezala.

Zingiregi izenak besterik iradoki arren, berezko zingirarik ez dut etxe aurrean. Presa baten eraikuntzaren ondorioz sortutako urtegiaren ertzean bizi naiz. Baina pozik.

Arrantzarik ez bide dago urtegian. Ez dut uste, behintzat, oraingoz bederen ezer dagoenik.

Bazterra ederra da. Etxearen ezker aldetik (Ekialdetik, beraz) agertzen da Eguzkia: goiz udan barrena, Karrendiren gailur-hegiaren gainetik. Gaurdanik aurrera, berriz, beranduago.

Eguerdian, oskarbi dagoelarik, Larrabaztertarrek ezarritako toldoaz gerizatzen naiz.

Hiru gela daukat hemen (bi nik erabili gabeak); gehi sukალdea, bainugela; baita, jakina, ederrena, lakura begirako areto nagusia; eta niretzat lan-bulego bihurtua.

Baltza-ri ere bere txabola jarri diot; ezkerretako aldean. Sasi-teilatu gorria du; eta atearen gainean, uztai itxuran, *Baltza* hitza irakur daiteke. Eta normalean ez dut lotzen; nahiz kate luzea prest egon, aurreko gako borobil bati atxikia.

Iazko apirilean liburuen eta gainerakoen garraiaketa amaitu genuen egunean, Ixaskunek oso burutazio egokia izan zuen; eta, ni baino aise sukaldari hobea izanik, bazkari “berezixa” prestatuko zuela erabaki zuen.

Hori dela-ta, jaki hauek hautatu zituen: Atxeta-ko sardinak hasteko, erreta. Eta, segidan, Labartzan bertan erositako arkumea, laberako.

Hori bakarrik ez.

Bizilekuari dagokionez (Harkaizpe ez baitago Idiazabal dik urruti), “Izalgo gazta” oso bat oparitu zidan.

Eta kostata lortu zuen azkenean erdia Labartzara eramatea. Hura lana!

Bazkari gogoangarria.

Arrastirian, joaterakoan, mesede ezkutu hau eskatunon arrebari:

–Etxonat hamen txoritxu bat lez hil gura. Badakin. Pistola bat behar yonat. “Browning” bat edo...

–Eneee! Pistola bat hik? Zetarako biok?

–Lasai, Ixaskun. Etxonat neure burua akabatzeke asmorik! Ezton hori. Eta neure kasa atentaturen bat antolatzekotan be enagon...

–Beraz?

–Esan deunat. Etxonat txolarre bat lez hil gura. Anderri eskatu neutsonan; baie ezetz erantzun eustianan. Batetik, orain enpresiak “politika” egin behar ei dauelako. Eta bestetik, ni “ganbaratik nagoala” sinetsita, iskillu bat eskutan komeni ez ei yatalako.

Pentsakor baratu zen ene arreba. Berbarik ez zuen ateratzen.

Baina, azkenean, etsitzen hasia nintzelarik, hau erantzun zidan:

–Saiatuko nok, Antton. Eta espero yoat konfiantza higan jarriaz sekula ez damutzea.

Besarkatu egin nuen estu:

–Lasai, Ixaskun. Seguru asko etxonat iñoiz be erabili beharrik izango. Nire aldixa yuana don. Eta etsaiek bayakiñe hau; eta baketan itxiko nayuen. Ya tiene bastante ese cabrón, esango yuen, además ahora se ha vu-

elto loco, viejo e inofensivo ;Que se pudra en su laguito particular!

Aurreikusirik bezala, eta lauzpabost aldiz guztira, Labartzarako bisitak erauzi ditut neure planetatik. Eta egin ditudanean, azkeneko martitzenetan joan izan naiz.

Goizean goizik joaten naiz lehenengo trenean, Maltzagan truke eginez, eta Gaztañondora joaten naiz lehenik. Harkaizpeko kiputzen artean entzuten ez dudan geure euskara moldea entzuten dut berriro: jendea elkarri “txo”ka deika, eta belu, eta afrontu, eta jorraixak, eta arda baltza, eta azau... eta Allikenera eramaten naute.

Seiabideko Herrikoa ere ikusten dut pasaeran; mastan beti ikurrin galanta zintzilikaturik. Baina sekula ez naiz bertaratu, ate ondoko deiak eta oharrak irakurtzeko, adibidez.

Triste da, oso. Baina neure bidea hautatua dut.

Odsela Ixaskunen arropa-dendara hurbiltzen naiz beti, eta han agurtzen dut.

Etxera, ordea... Mateo Zugasti 33ko laugarren estaira... neure etxe izandakora... geure etxera... Ixaskunen etxera?? Behin ere ez!! Ezin nei!! Gogorregia litzaidake.

Hemen egoten naiz, hitz batez, Zingiregi honetan.

Zoriontsu ote? Ez diot neure buruari galdera hori behin ere egin.

Erretiran bizi naiz.

Neure gorputzari eragiteko, oso nekez hazten ez diren landare batzuk etxeko atzealdean artatzea hartu dut

lan fisiko bakartzat. Tomate mordo bat, lusagar batzuk, babarrunak (dozena pare bat landare, beren hagetan aise kiribilduta), erruz ugaltzen den borraja, tipula batzuk. Baratzetxo bat!

Oso eguraldi txarra ez badago, gauza bat egiten dugu biok egunero. Baltzak eta biok, alegia: oinez, Har-kaizpeko Urtegiaren inguraketa. Ordu eta erdian. Nik zazpi kilometro kurritzen baditut, Baltzak... berrogei bat bai!

Etxera itzultzean eseri egiten naiz ni aurreko aulkian. Eta Baltzak orduan, ni erremestiatu nahiz, begietara begiratzen dit, eta hanka eskaintzen dit. Ez dugu txintik ateratzen, ez berak ez nik.

Kateaz lotzen dut orduan. Eta ni prentsa eta janari bila abiatzen naiz herrirantz.

Arratsaldeak osoki erabiltzen ditut irakurketan. Gehiago irakurri dut urte eta erdi honetan ordurarteko urte guztietan baino.

Neure euskal sailaz gain, oso interesgarria iruditu zait Aita Orue omabarrendarragandik jasotako liburu multzo "unibertsala".

On Fermin apaiz apal hark, herrixka apal hartan deserriturik, bakardade osoan hila eta zakurrik eta lakurrik gabe, bazeukan sua bere barruan; eta zalantza asko ere bai, nabarmenki. Zientzia liburu asko zeukan, bai literatura klasiko dexente, baita, oso bereziki, Zenon, Krisipo, Marko Aurelio enperadorea, eta gainerako estoiko gogorrek ere.

Aitor bat egingo dut: Marko Aurelio enperadore filosofoa bihurtu dela nire kontseilari ezkutua.

–Bixar egun ederra izango yoagu hamen –esan diot Baltzari–. Bixar Ixaskun etorriko dok... Ixaskun... Ixaskun! Aitzen dok?

Postura egingo nuke zakurrak zertsu ari nintzaion ulertu duela. Eta zakurzaleak oro izango nituzke irizkide.

Eguraldia bikain zetorren, epel eta iheskor; eta lakua ezin bareago.

Opelaren arrabotsa sumatu du Baltzak nik baino lehenago. Eguerdi iria zen.

–Kaixo, Ixaskun! –nik, bihozkor–. Ongi etorri! Kaixo, Arrosa! Kaixo, Arantza!

Eta besarkada luze bana eman diet hiruroi.

–Kaixo, laztana! –Ixaskunek.

Eta zaunkaldi laburra Baltzak bere aldetik.

Ixaskunengana hurbildu da isatsari eraginez:

–Bai, bai, noski! –Ixaskun mintzo–. Hiri be bai! Kaixo, Baltza! Enok bapere aitzu higaz, eta hi nitaz bere ez. Ikuste'yoat... Ederto, ederto! Bota egingo nok!! Indder itzela dok, kontuz!... Aski. Hiri be zerbait ekarri deuat.

Opelean ekarritako bazkaria eta edariak jaitsi dituzte Ixaskunen bi lagunek.

–Paraje ederrean bizi haz, Antton. Benetan. Itsasotik urrunxko, baie...

–Hoba, badakizue. Itsasoak esperantza hiltzen dau nigan. Zeru mugagabeok be bai, yakiña. Baia...

–Zer dok fototzar hori? –galdetu dit Arantzak.

–Galaxia urrun mordo bat. Orain dela urte gutxi Hubble teleskopio famatuak hedatu dauen irudi horrek, dudarik gabe, dardarizoa sortzen yon nigan. Neure leku xumean jartzen nau, sakon pentsarazten yestan, eta katean yarten. Allikenetik Zingiregira doian katean kokatzen nau, alegia. Bidaiariak gara gehienik...

–Ederto, Antton. Filosofixari heldu deutsok. Agiri dok.

Eta barre egin dugu laurok.

–Ez, ez. Bakardade isil iraunkor honetan, nornahi bihurtzen don fiolosofo. Baitte Allikeneko astokillo misteriotsu ha be!

–Etorrerako egun hartan lez, gaurkoan nik prestatuko yoat bazkarixa –argitu du Ixaskunek–. Zer deretxok?

–Primeran!

–Eta etorrerako egunean prestatu neban menua yan go yoagu. Gogoratzen yak? Atxetako sardiñak eta Labartzako arkumea, hau eta ha erreta; eta napar ardau gorrixa. Eta amaitzeko Izalgo gaztaia. Baia gaur, Antton, hementxe geldituko'ok oso-osua.

–Bai horixe! –aho batez hiru emakumeek.

Eta hala egin genuen. Mahaia uraren ertzetik ozta-ozta metro pare batera jarrita. Baltzaren hanka hori-bel-tza behin eta berriz eskeka, eta dena hankaz gora uzkailtzeko arriskutan.

–Holan yarraitzen badok, lotu egingo haut! –mehatxua bota diot Baltzari.

Eta makina bat barre egin dugu.

Kafea hartu genuen gero; eta ttotta bat pattar; edo bi, edo lau. Kontua galdu genuen. Eta bazkalondoa zaratatsu jarri zen.

Ixaskun kotxera joan da; eta larru beltzezko poltsa dotore bat ekarri. Eta ene logelara eraman nau, bere bi lagunak kanpoko mahaian utzita:

–Hau hiretzat! –esan dit–. Kostata, baie hamen daukok...

Barrenak zausk egin dit, eta bihotz taupadak azkartu...

–Bayakiñat zer dan... Zizpo...

–Horixe! Eztok erraza izan... Ondo gorde...

–Ointxe!!

–Eta, ahalian, ez iñoz erabili. Bederatzi milimetrokoa dala esa'ustiek. Kartutxo sail bat be poltsan daukok.

Sakon hartu dut arnasa. Hunkituta nengoen:

–Nigan sinetsi don. Biba hi!

Eta besarkatu egin dut neure indar guztiez.

Gero lo-susta egin genuen itzalean laurok.

Gauza bat eskatzen zidan Baltzak biok lotarakoan: bera nire aldamenean etzaten zelarik, nik neure eskuinteko besoa beraren bizkar beltzaren gainean pausatzea.

Eta gaur, horretara, luzaz egin dugu lo... bostok!

Arrosak eta Arantzak barre egiten zuten, ez zuten nahi, baina berak ere, azkenean, lo seko geratu dira.

Esnatzerakoan urtegiaren ertzetik pasealditxo bat egi-
tea erabaki genuen.

–Milla esker, Ixaskun, bisitatxuagaittik. Eta milla
esker zuoi bioi be.

Eta malenkoniara eramango gintuzkeen luzamendu-
rik gabe, musu pare bana masailean elkarri eman, eta
Labartzarantz abiatu da aldapan gora gure Opel zaharra.

Arratsa bazetorren, eta arrastiriko ufada beroak ager-
tu ziren tarteka, urtegiko gainaldea kixkurtuz.

Neure logelan sartu, eta eskutan hartu nuen Ixasku-
nen oparia... Berri-berria zen, sekula ez erabilia... Eta
lakura begira pentsakor gelditu nintzen.

Baltza ere, niri adi-adi begira, hurbildu egin zitza-
dan; eta hanka lodi sendoa ohi bezala eskaini.

–Bai, Baltza. Hamen gaozak buruz buru, bakarrik.
Baie orain bayaukeagu burdinazko laguntxo hau. Eta
gure billa badatoz, etxakek debaldetan atarako. Ez da
hori?

Baltzak zaunka bakar bat egin du.

Eta orduan On Fermin Orue-ri esker ikasi berri
nuena azaldu diot Baltzari.

–Hiri etxak gertauko Argos-i lez. Eta ni enok iñoiz
berantetsita Zingiregira itzuliko, ezta hi simaur ganian
zaharturik gaixotuko be. Gu ezkaittuk hemendik mogi-
ttuko... Bayakixat, bestalde, Argos gizarajo hark Odi-
seo zarpail kiratsen atzean ezagutu eban lez, heuk be ni,
edozein jazkeratan mozorrotuta agertu arren, berehala
ezagutuko ninduala... Eztok?

Lasaitasun harrigarriak bete zituen nire erraiak.

“Nire aldixa yuana dok, Baltza. Baie gure herrixa politikari xaxi-jakintsuez etsirik altxako dok halango batez.

Etxuagu hori ikusiko ez hik eta ez nik. Zoritxarrez!

Eta ikusteko aukera badogu, gudura yoango gaittuk.

Baie artean hortxe iraungo yuek, zutik, egun dirdai-tsuaeren zai, Zingiregira higaz etorri nintzenez geroztik, etxearen gailurrean, haizeak kulunkatzen dituen gure bi ikurrek...

Bi aldeetatik baltza dana bata (hi be Baltza haz, badakik).

Eta bestia, bigarrena, neuk beren-beregi hona etortian josi nebana: batetik nafar kateak erakusten yozak, eta bestetik gudariek beren odolaz sakratu bihurtu zuten ikurrin zuri-berde-gorria.

Horra hor, guk bixok gaur, Karrandipeko Zingiregi bakarti honetan, egitten dogun ziña.

Agur Ixaskun!

Agur Labartza!

Agur!”